

# HAPN DOKUMENTUAREN DIAGNOSTIKOA, EBALUAZIOA ETA EGOKITZAPENA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZ

## 2013KO URRIA

URBANISMO INCLUSIVO URBESFORALL HIRIGINTZA BARNERATZAILEA


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ayuntamiento Udala
HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO ARLOA
AREA DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE
irun
www.irun.org

# AURKIBIDEA

# I. Dokumentua
# AURREKARIAK, TESTUINGURUA, HELBURUAK

1. Aurrekariak

2. Testuingurua

    2.1. Genero ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintzari dagokionez EAEko Udalek egindako lana.

    2.2. Genero berdintasunaren gaiari buruzko araudia.

3. Kontzeptu esparrua

    3.1. Zer da genero ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintza?

    3.2. Zer da generoa?

    3.3. Zer da genero ikuspegia edo “mainstreaminga” aintzat hartzea?

    3.4. Emakumeek Hiriaz gozatzeko eskubideari buruzko Europako Karta (1994)

4. Helburuak

# II. Dokumentua

# ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA

1. Generoaren ikusezintasuna Irungo HAPNan.

1.1 Hirigintza Informaziorako dokumentua: datuen desagregazioaren azterketa ikuspegi sozioekonomikoaren deskribapenean.

1.2 Diagnostikoaren dokumentua: egoera sozioekonomikoaren deskribapen ez neutralaren bi adibide.

1.3 Plangintzaren Aurrerakin dokumentua: beharrak hautematea.

1.4 Laburpen dokumentua *Aurrerapena Irunerako*: Kontraesana edo itxaropena?

2. II. Berdintasun Plana eta Irungo Hiri Debekatuaren Mapa: mainstreaminga eta ahalduntzea.

2.1 HAPNan HMPIaren edukiak jasotzea.

2.2 HMPIaren irakurketa genero ikuspegitik begiratuta.

2.3 Agenda 21 aipagai irizpideak eta helburuak finkatzeko babes gisa.

2.4 Agenda 21en irakurketa genero ikuspegitik begiratuta.

3. Mainstreaminga, Hirigintza eta Generoa: II. Berdintasun Planaren eta Irungo Hiri Debekatuaren Maparen kasua.

3.1 Irungo II. Berdintasun Plana

3.2 Hiri Debekatuaren Mapa

4. “Hasierako Onarpen dokumentua idazteko Plangintza Irizpideak eta Helburuak” dokumentuaren azterketa.

5. Hasierako Onarpen dokumentuko “Antolamendu memoriaren” azterketa.

6. Hasierako Onarpen dokumentuko “Hirigintza arauen” azterketa.

7. Hasierako Onarpen dokumentuko “Plangintza esparruen” azterketa.

8. Hiriko Erabileran dagoen Diskriminazioari eta Generoari buruzko Txostenaren azterketa.

# III. Dokumentua

# NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. Proposatutako ekintzak

2. HAPNaren dokumentuan Hiri Debekatuaren Mapa sartzea.

3. Lursail Eraikigarrien Eraikuntza eta Erabilera Baldintza Orokorretan proposaturiko aldaketak

    3.1. *2.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak* aldatzea.

    3.2. *3.1.2. Artikulua.- Eraikuntza aprobetxamendua kontatzeko irizpideak* aldatzea.

    3.3. *3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra* aldatzea.

    3.4. *3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak* aldatzea.

    3.5. *3.3.3. Artikulua.- Etxebizitzetan sartzeko erabilera komuneko espazio eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak* aldatzea.

    3.6. *3.3.2. Artikulua.- Garaje erabilerarako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun baldintzak* aldatzea.

    3.7. 3.4.4. Artikuluaren inguruan.- *Esekitokien tratamendua.*

    3.8. *3.6. Kapituluaren* inguruan*.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen eraikuntza eta erabilera baldintzak.*

4. Erabilera Xeheko Eremuak Arautzeko Ordenantzetan proposatutako aldaketak.

### I. ERANSKINA

Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzak (2009ko martxoak 3) eta Zuzenketak (2009ko maiatzak 11).

# IV. Dokumentua

# ERREDAKZIO ALTERNATIBOA

1. 2.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

2. 3.1.2. Artikulua.- Eraikuntza aprobetxamendua kontatzeko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

3. 3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra ALDATZEKO PROPOSAMENA.

4. 3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

5. 3.3.3. Artikulua.- Etxebizitzetan sartzeko erabilera komuneko espazio eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

6. 3.3.6. Artikulua.- Garaje erabilerarako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

7. 3.3.8. Artikulua.- Trasteleku erabilerarako lokaletan eska daitezkeen funtzionaltasun baldintzak GEHITZEKO PROPOSAMENA.

8. 3.6. Kapitulua.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen eraikuntza eta erabilera baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

9. Erabilera Xeheko Eremuak Arautzeko Ordenantzetan PROPOSATUTAKO ALDAKETAK.

10. HAPNaren dokumentuan Hiri Debekatuaren Mapa SARTZEA.

# V. Dokumentua

# ERAGINAREN TXOSTENA

1. Helburua.
2. Aurrekariak
3. Neurri Zuzentzaileak
4. Erredakzio Alternatiborako proposamenak
5. Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak

# VI. Dokumentua

# DOKUMENTUAREN EBALUAZIO GIDA

1. Helburua

2. Adierazleak

   2.1. Dokumentuaren Irismen Publikoa

   2.2. Dokumentuaren irismena Hirigintza eta Ingurumen Arloan

   2.3. Dokumentuaren irismena Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloan.

   2.4. Dokumentuaren irismena Berdintasunerako Batzordean

   2.5. Dokumentuaren irismena administrazioko beste arlo batzuetan eta beste erakunde batzuetan.

   2.6. Dokumentuaren irismena HAPNaren erredakzio taldean.

   2.7. Dokumentuaren Zeharkako Ebaluazioa.

   2.8. Dokumentuaren sartzea.

3. Ebaluazio orria

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# I. DOCUMENTUA

# AURREKARIAK, TESTUINGURUA, HELBURUAK

# 1 AURREKARIAK

Lan honen jatorria Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri-Lan eta Garraio Sailaren 2012ko ekainaren 20ko Aginduan dago, **udalerri mailako hirigintzan genero ikuspegia sartzeko helburua duena,** 2012 urtean zehar Udalei eta Birgaitzeko Hirigintzako Erakundeei subentzioak emanez.

Aginduaren hitzaurrean zehazten zen aipatu diru-laguntzen xedea, eta ondorengoa azpimarratzen du bereziki: “gakoa ez da, hiria pertsona guztiek erabil dezaten, modu integratzailean diseinatzeko eta egiteko beharraren inguruan kontzientziatzea; **lortutako emaitzak egitasmoetan, proiektuetan eta lan zehatzetan gauzatzeko neurriak sustatzea** baizik.”

Aginduak baremaziorako irizpideei buruz ohartarazten zuen, alegia, “**puntu gehiagorekin baloratuko dira hirigintza-araudian generoa modu eraginkorrean integratzera bideratutako laguntza-eskaerak**. Agiri zehatz bat egitea helburu dutenen aurrean, Arau Subsidiarioetako, Plan Orokorretako eta udal-antolamenduko gainerako agirietako mapen, kontu-ikuskapenen, analisien eta diagnosien joerak aztertuko dituzten udalen proposamenak nagusituko dira.” “Punturik gehienak lortuko ditu proposamen mota honek: **generoaren eta herritarren eguneroko bizimoduaren ikuspegitik hirigintzaren analisia egin, neurri zuzentzaileak proposatu, hirigintza-araudian egin beharreko aldaketak zehaztuko dituen txostena egin; eta azkenik, artikulu edo fitxetako idazkuntza alternatibo bat egin**.”

Horrela bada, 1. artikuluak esaten zuen Aginduaren xedea honakoa zela: “diru-laguntzak esleitzeko oinarriak ezartzea. Diru-laguntza horiek bideratuta daude beharrezkoa den laguntza teknikoa kontratatzeak duen kostua finantzatzera (zergak barne), honako agiri motaren bat egiteko (hemendik aurrera diruz lagundutako agiria):”

- Generoaren ikuspegitik hirigintza-analisia, hiri- edo lurralde-diagnosia, hiri-sare osoarena edo zati batekoa.
- Diruz lagundutako agirian, edo hirigintza arloan emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko eginda dagoen beste agiri batean, azaltzen diren neurri zuzentzaileak ezartzeak araudian eragingo lituzkeen aldaketak aztertzea.
- Plan Orokorren, Arau Subsidiarioen edo hiri-antolaketarako beste agiri moten diagnosia, ebaluazioa edota egokitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gainean.

**Irungo Udalak diru-laguntzen deialdian aurkeztu zuen proiektuak zehatz-mehatz bete zituen Aginduak ezartzen zituen baldintzak.** “Irungo HAPNaren Diagnosia, Ebaluazioa eta Egokitzea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Harian” izenburupean, proiektuak 5 dokumentu idaztea proposatzen zuen:

- Azterketa eta Diagnostikoaren dokumentua.
- Neurri Zuzentzaileen dokumentua
- HAPNaren Erredakzio Alternatiboaren dokumentua.
- Eraginari buruzko txostena.
- Irungo HAPNaren Ebaluazioa egiteko Gida

Azkenik, eta deialdira aurkeztu ziren 50etik gorako proposamenak ebaluatu ondoren, balorazio batzordeak erabaki zuen 10 proiektu finantzatzea, eta **horien artean zegoen Irungo Udalak aurkeztutakoa, Urbes**For**All enpresak idatzia,** hirigintza barneratzaileari buruzko aholkularia, Miren Vives arkitektoak eta Patxi Galarraga arkitektoak osatua.

Era honetan, eta Irungo Udalarekin 2012ko abenduan formalizatutako kontratua betez, **Urbes**For**All** ekipoa 2013ko urtarrilean hasi zen lanean. Une horretan, HAPNaren berrikusketa hasierako onespena emateko fasean aurkitzen da, 2013ko uda baino lehen behin-behineko onespena lortzeko itxaropenarekin.

# 2 TESTUINGURUA:

Komenigarri iruditzen zaigu bai txosten hau eta bai txostenaren oinarria izan den Agindua testuinguru batean kokatzea. Testuinguru hori ondorengoa izango da:

- EAEko udaletan garatutako jarduera, genero ikuspegia duen hirigintzari dagokionean.
- Genero berdintasunaren gaiari buruzko arautegia.

## 2.1 EAEKO UDALETAN GARATUTAKO JARDUERA, GENERO IKUSPEGIA DUEN HIRIGINTZARI DAGOKIONEAN.

Aginduaren hitzaurrean bertan azaltzen ziren diru-laguntza hain argiro “hirigintza-arloan berdintasunaren benetako ezarpena” egiteko bideratu izanaren arrazoiak Hirigenmap taldeak eginiko ikerketaren emaitzetan zeudela, Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak enkargatu zuena “EAEko udaletako hirigintza-arloan berdintasunerako politiken ezarpen-maila ezagutzeko”.

Zentzu horretan, **Hirigenmap taldeak eginiko ikerketatik ateratako datu hauek jaso ditugu:**

- Alde batetik zera azpimarratzen du: “ikerketa-lan asko egin dira, beraz, gaur egun Udal askok lehen dokumentua egina daukate, beren kale eta espazio publikoek hirigintza barneratzailearen alorrean dauzkaten gabeziak adierazten dizkiena”. Horrela bada, 3.000 biztanletik gorako EAEko 88 udalerritatik “ ia erdiek, zehazki 41 udalerrik, dokumentu hauetako bat egin du:
    - Debekatutako herriaren mapa; beldurraren mapa, puntu beltzen mapa edo emakumeak seguru sentitzen ez diren lekuen mapa ere deitzen dena.
    - Segurtasunerako tokiko auditoria.
    - Udalerriko espazio publikoaren egoeraren hirigintza-diagnosia, emakumeen beharrizanei dagokienez.
    - Hirigintza-analisiaren mapa, generoaren eta eguneroko bizitzaren ikuspegitik.

Gune beltzen mapek eta tokiko segurtasun auditoriek, segurtasunari lotuta, hala nola hirigintza alorreko analisiek eta diagnosiek, eguneroko bizitzak pertsonetan sortzen dituen beharrak asetzen ez dituzten espazioak kaptatzera bideratuak, gure kaleen eta erabilera publikoko espazioen gaur egungo egoerari buruzko informazioa ematen dute, baita emakumeen eguneroko beharrak asetzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gutxitzeko aurretik dagoena nola konpondu dioen informazioa ere.”.

- **Udaleko arlo desberdinek lan hauetan eduki duten ezagutza eta partaidetza mailari dagokionez,** zera zehazten da, alegia, “agiri horiek egitean hirigintza eta obra arloaren inplikazioak ezinbestekoa dirudien arren, ekimena berdintasun arlotik abiatu da gehienetan. Hain zuzen ere, hirigintzako berdintasunari buruzko ikerketak egin dituzten 41 udaletatik 13tan hirigintza arloek ez dakite lan horiek badirenik ere.

- Horrek ez du eragotzi “hirigintza-agiriren bat egin duten 41 udaletatik 25ek jadanik unean uneko esku-hartzeak egin dituztela agiri horien harira: argiztapena hobetu, hiri-ispiluak jarri, eraikin publikoetarako eta eskoletarako irisgarritasuna hobetu, hiri-altzariak jarri, parkeak berritu, etab.

Baina jarraian zera azpimarratzen da, alegia, “kaleetan esku-hartzeak ez du bermatzen hirigintza departamenduak ezagutuko duenik egindako dokumentua, izan ere, beren kaleetan esku-hartzeak egin dituzten 25 udalerri horietatik 11tan, hirigintza arloak ez du ikerketa  horren, esku-hartzeen edo bietako ezeren berririk”.

- Azkenik, Hirigenmap ikerketak amaitzen du esanez “bereziki berdintasun-arloek bultzatutako agiriek garrantzi txikia izan dutela udalerria itxuratzeko orduan, hobekuntza txikiak baino ez baitira izan.

Datu hauen harira, Hirigenmap ikerketak, Udalerri ugaritan lan hauei lotuta ematen den testuingurua irudikatzen zuen  bere konklusioetan:

*(…) ideia zaharren gainean eraiki ditugun herri eta hirien arazoak konpondu nahi baditugu, barkaezina da era honetako ikerketak egin eta gero kaxoi batean ahaztuta uztea."*

*Galde-sortaren bitartez argi geratu da “haustura” bat dagoela  Berdintasun departamenduaren eta Hirigintza departamenduaren artean, gutxienez gai honi dagokionean. Izan liteke hasierako akats bat Berdintasun departamenduaren ekimen batetik soilik abiatuta lan hori egitea. Baina gerta daiteke diagnosiaren lanak egitea, herritarren partaidetzarako deialdia egitea eta gero horri buruz*

*beste ezer ez egitea. Eta gutxiago oraindik, eguneroko hirigintza jardunaren erantzukizuna duten pertsonek ikerketa hauen berririk ez edukitzea.*

*Elkarrizketatu ditugun Berdintasun departamenduetako pertsona arduradunetako askok ez dute gauza bera erantzun. Arrazoiren batengatik, eta kasurik gehienetan ezjakintasunagatik, ikerketa egin eta gero ez dute jakiten zer egin horrekin. Ikerketa horiek amaitzean prozedurak edo mekanismoak aktibatzea falta izaten da arrakastaz gauzatzea nahi badugu.*

*Pertsona guztien artean, teknikariak izan dira departamenduen arteko zeharkako lanaren kontzeptua gehien aipatu dutenak.*

Aurrerago aztertuko da espezifikoki txosten honetan **Irungo Herri Debekatuaren Mapa,** nahiz hemen jada aurrera dezakegun Irunen egindako lanak, Hirigenmap ikerketak islatzen duen koadroari kontrajarrita, frogatzen duela Berdintasun arloaren (Mapa egitea bultzatu zuena) eta Hirigintza arloaren artean bai egon zela elkarlana, eta azken departamendu horrek ekarpen ugari egin zituela.

## 2.2 GENERO BERDINTASUNAREN GAIARI BURUZKO ARAUTEGIA.

XXI. mendearen lehen hamarkadan izan zen emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokak lorpenik handienak lortu zituena bere sustapen eta bultzadarako. Zehazki, orain dagokigun esparruan, 2005 eta 2007 urte bitartean berdintasunerako Euskadiko eta Estatuko legeak onartzen amaitu zuten.

- 4/2005 Legea, Euskadikoa, otsailaren 18koa, Gizonezko eta Emakumezkoen berdintasunerako. Lan honetan lege honen aipamena egiterakoan “berdintasunerako Euskadiko legea” esango dugu.
- 3/2007 Lege Organikoa, Estatu mailakoa, martxoaren 22koa, Gizonezko eta Emakumezkoen berdintasun eraginkorrerako. Lan honetan lege honen aipamena egiterakoan “berdintasunerako Estatuko legea” esango dugu.

Orain aztergai dugun lanaren xedeari dagokionez daukan eragina kontuan hartuz, jarraian, lege hauetatik ateratako testu batzuk nabarmentzen ditugu. Atal horiek era honetako alderdiei egiten die aipamena:

- Botere publikoek hirigintza alorrean dituzten politika eta jardueretan genero ikuspegia integratzea.
- Tokiko administrazioaren eskumenak eta egitekoak gai honen inguruan.

### a Botere publikoek hirigintza alorrean dituzten politika eta jardueretan genero ikuspegia integratzea.

Jada bere atariko tituluan, printzipio orokorren barnean, berdintasunerako Euskadiko legeak ondorengo esparrua ezartzen du genero ikuspegia integratzeari dagokionez:

> *Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.*
>
> *Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.*

Aurrerago, 46. artikuluan, **hirigintza, pertsonen bizi kalitatean erabakigarria den zerbait bezala aztertzen du** eta hori bermatu beharko da genero ikuspegia integratzearen bitartez:

> *Euskal herri-aginteek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.*

Berdintasunerako estatuko legeak ere ezartzen du **hirigintzak ere genero ikuspegia integratu behar duela**. Horrela bada, 31. artikuluak zera zehazten du:

> *Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu eta betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.*

Azpimarratzekoa da nola bi lege horietan, **emakumeen partaidetza sustatzea dela genero ikuspegia integratzeko baliabide nagusietako bat** hirigintza alorreko politika eta jardueretan.

## b Tokiko administrazioaren eskumenak eta egitekoak genero ikuspegiaren inguruan.

Oraindik gehiago zehaztuz, berdintasunerako Euskadiko legearen 7. artikuluak tokiko administrazioarentzat egiteko batzuk ezartzen ditu eta horietatik ondorengoak azpimarratzen ditugu, HAPN baten berrikusketa prozesuarekin zerikusia dutelako:

> *d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.*

> *e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta*

*ikerketak egitea.*

*g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*

Horrela frogatzen da lege hauek jada eragina izaten ari direla politika eta praktika zehatzak erabakitzeko garaian, eta xehetasun maila bat lortzen dute, HAPN baten erredakzioaren eremura iristeraino, eta horren gauzatzea ez litzateke alde batera utzi behar. Baina legeak exijitzen duenetik haratago, lege bat zera da, ematen duen babesari esker, botere publikoek bultzatutako plan ugariren abiapuntua.

## c Berdintasunerako IV. Plana adibide gisa

Horren adibide da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, 2006an idatzia, eta beraz, berdintasunerako Euskadiko Legearen ondoren eginikoa.

*Berdintasunari dagokionez, VIII. Legealdian euskal botere publikoen jarduna bideratu behar duten jarraibideekin osatu de EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. Aurreko hiru planen indarreko urteetan izandako bilakaeraren eta aurrerabidearen ondorioa da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartuta sortu den esparru berrian.*

Plan hauek legegintzaldi bakoitzari lotuta daudenez, **IV. Plana ez dago indarrean,** baina hemen jaso nahi izan dugu proposatzen zuen helburuetako bat, oso adibide argia iruditzen zaigulako. Hala egiten dugu egiaztatzeko genero ikuspegia, hirigintzan, gutxi-gehiago izaera puntualeko diru-laguntzetatik haratago, Administrazioaren parte garrantzitsu batek beregain hartuta duen ezinbesteko esparru baten partaide dela, eta hirigintza-planeamenduan ere sartu egin beharko dela.

Horrela, berdintasunerako IV. Planak esku-hartzeko sei arlo ezartzen zituen, besteak beste Hirigintza sartzen zuen, eta horretarako, aurretik aipatu dugun 46. artikuluan oinarritzen zen.

1. Kultura Arloa
2. Hezkuntza arloa
3. Lan arloa
4. Gizarte-inklusio arloa

5. Osasun arloa
6. Hirigintza eta Ingurumen Arloa.

Batez ere bost alderdi jorratzen dira, funtsezkotzat jotzen direnak emakumeen beharrak, ekarpenak eta aitortza sartuak izan daitezen hirigintza, ingurumen eta garraio publiko gaietako planifikazioan.

1. Emakumeen parte-hartzea planifikatzeko eta erabakitzeko prozesuetan.
2. Planifikatzeko eta erabakitzeko prozesuetan parekotasuna.
3. Bizitza familiarra, laborala eta pertsonala kontziliatzeko azpiegiturak egokitzea.
4. Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa espazio publikoetan.
5. Emakumeek gizarteari eginiko ekarpenen aitortza, balio sinbolikoa duten elementu urbanoen bitartez.

Horrela bada, Hirigintza eta Ingurumen Arloaren Berdintasunerako IV. Planaren barnean jaso ziren 11 helburuetako lehena, “Mainstreaming” programari lotutako helburua hain zuzen, ondorengoa da:

> *M1.1 Helburua:*
>
> *Baliabide estandar bat ezartzea genero ikuspegia sartzeko hirigintzako jarduera planetan.*

Testuak berak aurrerago aipatzen ditu kontuan edukiko diren 7 adierazleak, genero ikuspegia sartu den ala ez egiaztatzeko:

- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak lantzen dira.
- Lantzen diren dokumentuetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dutenean.
- Jarduera edo arau bat diseinatu baino lehen, emakumeen eta gizonezkoen beharren diagnostiko bereizia egiten da.
- (...)

Azkenik, berdintasunerako IV. Planak jarduteko estrategia bat gomendatzen du helburu hau lortzeko, honetan oinarritua:

- Hirigintzako diseinuaren eta planifikazioaren arduradun diren pertsonak sentsibilizatu, prestatu eta aholkatzea, bai kargu publikoak eta bai teknikariak.
- Tresna estandar bat jorratzea.

Honekin guztiarekin azpimarratu nahi du, arau mailako testuinguruak hala exijitzen duenez duela urte batzuetatik, **genero ikuspegia sartzeak ez luke inongo administrazio publikorentzat arrotza izan behar jarduera edo arauren bat diseinatzeko garaian, hirigintzako arautegia barne dela,** azken honen eskumena tokiko administrazioek baitute, eta esplizituki aipatuta dago berdintasunerako euskal eta estatuko legeetan.

# 3 MARKO KONTZEPTUALA

Tradizioz, genero ikuspegia hirigintzan sartzea **segurtasunari eta hiri debekatuaren mapei** lotuta joan izan da. Normalean aintzat hartzen diren printzipioak Anne Michaud-ek ezarri zituen Montreal-eko emakumeengandik jasotako esperientzietatik abiatuz, 2002an.

- Seinaleztapena: jakitea non gauden eta nora joan nahi dugun.
- Ikuspena: ikustea eta ikusia izatea.
- Pertsonen konkurrentzia: entzutea eta entzuna izatea.
- Zaintza formala eta laguntza jasotzeko aukera: ihes egin ahal izatea eta laguntza lortzea.
- Tokien planifikazioa eta mantentzea: inguru garbi eta atseginean bizitzea.
- Komunitatearen parte hartzea: elkarrekin jardutea.

Espazio publikoan eta komunitarioan, ekipamenduetan eta garraioan segurtasuna sartzeak planeamenduko edozein prozesutan ukaezinezko helburuetako bat izan behar luke. Eta gai hauetan sentsibilizazio handiena duten taldeak izan beharko lirateke errealitate urbanoaren alderdi honetan diagnostikoa egiten, proiektuak enfokatzen eta ekimenak proposatzen lagundu beharko luketenak. Zentzu horretan, emakumeen parte hartzeak gizarteko segmentu horien beharrak transmititzeko balio izan du.

## 3.1 Zer da genero ikuspegia duen hirigintza?

Ez dugu zalantzan jarriko hiri debekatuaren mapek daukaten garrantzia, ez soilik emakumeentzat, baizik eta herritarrentzat orokorki. Baina genero ikuspegia duen hirigintzaz hitz egiten dugunean, espazio publikoan segurtasuna txertatzeaz baino marko zabalago batez hitz egiten ari gara. Muxi, Casanovas, Ciocoletto, Fonseca eta Gutierrez-ek egiten duten definizioa jaso dugu, esaten dutenean **“hirigintzan aplikatutako genero ikuspegiak esan nahi du baldintza berdinetan jartzea produkzio mundutik eta erreprodukzio mundutik datozen exijentziak, hau da, pertsonei arreta emateko eguneroko beharrak. Bi munduak erabakietan garrantzi-maila berean kokatu behar dira desberdintasunak handitu edo mantentzea saihesteko”**. Horrela bada, hiri barneratzailea izango da demanda guztiak baldintza berdinetan jartzen dituen hura, **“diferentziatik, baina ez desberdintasunetik”**.

Ines Sanchez Madariagak antzeko terminoak erabiltzen ditu generoaren kategoria analitiko berriaren ikuspegitik hirian dauden beharrak kontuan hartu ondorengo hirigintza-inplikazioak aztertzen dituenean, esaten baitu genero ikuspegia duen hirigintzaren helburuak izan behar duela planifikatzea **“berdintasunerako aniztasunetik”**. Egileak, Estatu Batuak bezalako herrialdeetan jada finkatutako joera baten barnean kokatzen ditu hirigintzako genero azterketak:

> *Esparru akademikoa baino gehiago, genero azterketak zeharkako ikuspegitik egiten dira, esparru akademiko desberdinen oinarriak 1960ko hamarkadan hasi zirenetik eraldatuz joan diren ezagutzara hurbiltzeko modu bat baita. (…) Frogatu dute nola gizonezkoen esperientzia, eta esan beharko litzateke zuriarena baita ere, eta maila ertainekoa, esperientzia partikular bezala eraikitzen dela, eta gainerako pertsonen ikuspegietatik desbideratuta.*

Marta Roman eta Isabela Vazquez-ek proposatzen dute hirigintzako diziplinan ikusmolde berriak erabiltzea, besteak beste egongo litzatekeelarik aniztasuna aintzat hartzea. Egileek adierazten dute nola hirigintza modernoaren asmoetako bat izan zen “herritar-estandarra” ezartzea, gizateariaren beharren multzoari erantzutera irits zitekeena, “*baina egia dena da hasiera batean osotasunari ordezkatzeko planteatzen dena, aniztasunaren beharrak ez aitortu eta ez esplizitatzean, diskriminatzen amaitzen duela”.* Eta zentzu horretan Carlos Hernandez Pezzi aipatzen dute honek zera esaten duenean: “*diferentzia da diskriminatzeko modurik finena. Diferentzia ukatzea*

*zapalkuntza modu bat da."* Egileek aniztasunaren aurreko axolagabekeria honen arrazoietako bat aipatzen dute:

> *Hirigintzaren oinarriak ezartzen direneko unea bat dator familia nuklearraren ereduaren garaipenarekin, alegia, asumitzen da familia-buruari komeni zaionak on egiten diola familia multzoari.*

Azterketa amaitzen dute ondorengo hausnarketa eginez, herritartasun normalizatuaren eredura lotzen ez diren herritarrek dituzten zailtasunen inguruan:

> *Eredutzat balio izan duen herritartasun ereduak adin erreproduktiboan dagoen gizakia adierazten du, hau da, pertsona heldu bat, saritutako lanarekin, aske mugitzen dena eta hiriko baliabide guztietara sarbidea duena, etxean erantzukizunik ez duena eta mugitzeko arazorik ez duena. Azken batean, biztanlegoaren portzentaje txiki bati lotzen zaion herritarra, baina dezente ongi bat egiten duena hiriaren inguruan planifikatu, eraiki eta teorizatzen duten haiekin. Hauek dominatzen dute komunikabideetan eta botere politikoa eta ekonomikoa daukate, eta gainera definitu dezakete zer den garrantzitsua, zeintzuk diren nagusitu behar diren balio komunitarioak eta nortzuk gauzatuko duten irudi hori.*

> *Herritarren gainerakoei, eredu horretara gehien lotzen diren neurrian, hobeki joaten zaie, baina adinagatik, sexuagatik, baldintza fisiko, dedikazio edo baliabide ekonomikoengatik hortik urruntzen doazen neurrian, oztopoak eta zailtasunak aurkitzen hasten dira beren ezaugarri eta behar errealak kontuan eduki ez diren hiri batean.*

Hau da, **emakumeen beharrek, orain arte aintzat hartu gabeko subjektu desberdin haienak ere jasotzen dituzte** hirigintza planifikatzeko prozesuetan: neskak eta mutilak, pertsona gazteak, pertsona nagusiak, ezgaitasuna duten pertsonak, iraunkorra nahiz aldi batekoa izan, eta errenta baxuko pertsonak.

Diskriminazio (edo gutxienez desabantaila) egoera honen arrazoi nagusia, emakume gehienen behar espezifikoei kategoria subsidiarioa ematen diena hirietan, **familiari arreta emateko zereginen aitortzarik eza** baino ez da, neurri handi batean emakumeek burutzen dutena. Sanchez de Madariagak adierazten duen bezala:

> *Justu, hirigintzako genero azterketek egindako ekarpen nagusietako batek lanaren kontzeptuaren berkontzeptualizazioarekin zerikusia du, horrek espazio urbanoa ulertzeko garaian dakartzan inplikazioekin. Berkontzeptualizazio*

*horrek inplikatzen duena da familiari arreta emateko zereginak, gizarte erreprodukzioa ahalbidetzen duten haiek, lantzat hartzea. Zaintzaren ordaindu gabeko lana aitortu, errebalorizatu eta ikusarazteak zalantzan jartzen du lan esparruan ordaindutako enplegua soilik lantzat hartzen duen ideia androzentrikoa. Ordaindutako lanak esparru publikoan, produkzio ekonomikoari lotuta, esparru pribatuan bere kontrapartea aurkitzen du ordaindu gabeko lanean, gizarte erreprodukzioari lotua.*

Ordaindu gabeko lanarekiko indiferentzia honek kontrastatzen du ikerketa ekonomiko desberdinek ematen dioten balioarekin, Espainiako PIBaren %40 eta %53 artean kokatzen duten estimazioekin. Aldaera hauek gertatzen dira estatistikako datuen tratamendurako erabilitako metodologia desberdinengatik. Adibidez, Madrileko Komunitateak INE erakundeak 2003 urtean PIBaren %55eko balioa eman zion ordaindu gabeko lanari, CSIC erakundearen ikerketa batek 2005ean %131ko portzentajea ematen zion bitartean, izan ere, herritarraren jarduera nagusiari bigarren mailako jarduera gehitzen zitzaion. Euskadiri dagokionez, Eustat erakundeak estatu mailan erregistratutakoak baino balio txikiagoak kalkulatzen ditu, eta Euskal PIBari dagokionez jaitsi egiten da urteak igaro ahala: %49 (1993), %38 (1998) eta %33 (2003). Gainera, Eustatek berak jasotzen du emakumeek egiten duten ordaindu gabeko lanaren portzentajea: %79 (1993), %74 (1998) eta %75 (2003).

Lanaren kontzeptuaren inguruko pentsamolde berri honek, gainera, beste arazo erantsi batzuk ekarriko lituzke. Adibidez, ekipamenduak, beren erabiltzaileentzat laneko espazio bihurtzen dira beste pertsonak zaintzearekin zerikusia duten zereginak betetzeko bertara joaten direnean. Gauza bera gertatzen da etxebizitzari ematen zaionean oraindik, gizonezko gehienek ematen dioten ohiko erabilera kontuan hartuta, atsedenerako tokiaren definizioa, emakumezko gehienentzat laneko toki bat denean. Hau da, hirigintza konbentzionalak ezartzen duen erabilera-banaketa ere zehaztu litekeela genero ikuspegi batetik begiratzen dugun momentutik.

Orrialde hauen bitartez, non josten diren ikertzaile ospetsuek bakoitza bere esparruan eginiko testuak, saiatu gara genero-hirigintzaren oinarriak laburtzen eta gehienetan emakumeek betetzen dituzten zaintza lanekin daukan harreman estua azaltzen. Hirigintzako diziplinari buruzko ikusmolde berri hau gauzatzeko gidek, hemen jaso ditugun hutsuneak murriztea bilatzen dute. Adibidez, zentzu honetan, Roman eta Velazquez-ek proposamen zehatz bat egiten dute hiri espazioa aintzat hartua izan dadin inklusibitatea erraztuko duen erreminta modura. Adierazten dute, era honetan, nola joka dezakeen espazioak emakumeen alde:

1. ***Emakumeak kotuan hartuta:*** *hiria generoaren arabera bizitzeko eta erabiltzeko modu desberdinak ezagutuz. Garrantzitsua da datu guztiak sexuaren arabera bereizita edukitzea desberdintasunak ezabatuko dituzten politikak egiteko.*

2. ***Emakumeekin kontatuz.*** *Emakumeen presentzia ziurtatuz esparru sozial eta politiko guztietan, eta beren ahotsa entzuna eta kontuan hartua izan dadin erraztuz.*

3. ***Tradizioz emakumeek egin dituzten jarduerak baloratuz eta espazioa emanez.*** *Etxearen mantentzearekin eta mendeko pertsonen zaintzarekin zerikusia duten zereginak ulertuz eta balioa emanez eta partekatu daitezen erraztuz.*

**Emakumeen behar berriak arazo publiko gisa sartuz.** Kontziliazioak utzi dio familia edo emakume bakoitzaren gai pribatua izateari eta arazo publiko bihurtzen da emakumeek etxetik kanpo lan egitea eta lehen etxeko andreak egiten zuena elkarrekin konpondu behar izatea.

## 3.2 Zer da generoa?

Testu hau sartu dugu hemen ohar argigarri gisa, askotan gai honen inguruan sortzen den nahasmenagatik. Generoa definitzeko, Zaida Muxi-k egiten duen definizio hau hartu dugu maileguan:

> *Generoa eraikuntza soziala eta kulturala da, historikoki osatua. Inola ere gaitzik gabea eta kaltegabea ez den eraikuntza bat da. Historia berrikustean erakusten zaigu historian zehar egon diren intentzioz beteriko diskurtsoak emakumeak mendeko toki batean jartzeko helburuarekin, dominatzeko estrategia bat, klase, jatorri kultural eta erlijioso, hala nola hezkuntza aniztasunetik haratago doana. Generoaren eraikuntza, edo gauza bera dena, trebetasunen esleipena, hortik sortzen direlarik ahalmenak eta posibilitateak, gaitasunak eta jarduerak. Hau da, ezaugarri baztertzaileak, partikularrak eta unibokoak, emakumezkoa edo gizonezkoa den kontuan hartuta. Generoaren rolak eta trebetasunak ez daude ezarrita jaiotzez daukagun sexu biologikoaren arabera. Banaketa dual eta artifizial honetan emakumezkooi espazio bat esleitu zaigu, pribatua, eta lan mundu bat, erreprodukzioarena. Pribatutasunaren ikusezintasuna eta erreprodukzioaren balioa ez aitortzea (familiaren beste osagaiak zaintzeko, etxea zaintzeko, elikaduraren kudeaketaz arduratzen diren jarduera haiek guztiak sartzen dituenak) markatu izan dute eta markatzen dute emakumeek egiten dituzten jarduerak. Baiezta daiteke jarduera hauek gabe ezinezkoa eta bideraezina izango litzatekeela beste edozein jarduera produktibo.*

Generoa ez da, beraz, jaiotzetiko sexu biologikoa, baizik eta ezarri zaigun rola. Gure dimentsio soziala da, zer izateko hezi gaituzten.

## 3.3 Zer da genero ikuspegiaren integrazioa edo "mainstreaming"?

Txosten honen puntu desberdinetan *mainstreaming* kontzeptu honen erreferentzia egingo dugu. Teknizismoa den arren, bere horretan eta itzulpenik gabe erabiltzen da dokumentu gehienetan, baita Administrazioak eginikoetan ere. Hori definitzeko, Europako Kontseiluak 1999an ezarri zuena jasoko dugu:

> *Genero **mainstreaming** prozesu politikoen berrantolaketa, hobekuntza, garapena eta ebaluaketa da, horrela, berdintasun ikuspegia sar dadin politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan, normalean neurri politikoen erabakietan zerikusia duten ekintzaileen bitartez.*

Sonia Mazey-k 2001ean egindako deskribapenak, zabalagoa, *mainstreaming* kokatzen du azken mende honetan gertatu diren genero alorreko zeharkakotasun politika desberdinen testuinguruaren barnean:

> *"Mainstreaming politikak edo genero zeharkakotasunak, emakume eta gizonen arteko berdintasun politiketan hirugarren belaunaldi bat sortzen du. Berdintasun politiken lehenengo belaunaldia aukera berdintasunarena izango litzateke, XX. mende hasieratik liberalismo politikoak bultzatutakoa, emakumeei ahalbidetu zielarik bizitza publikoan sartzea ordura arte eragozten zizkien oztopo legalak ezabatu ondoren, adibidez, botoa emateko eskubidea lortzea. Bigarren belaunaldia jarduera positiboaren politikak dira, 1960ko hamarkadatik emakumeei espezifikoki zuzendutako neurriak diseinatu dituztenak hastapeneko desberdintasunak murrizteko, agerian baitzegoen sarbide berdintasunak ez duela ezinbestean emaitzen berdintasuna ematen.*
>
> *Mainstreaming politikek ez dituzte aurrekoak ordezkatzen, osatu baizik. Horiek garatzen dira ikusten denean berdintasunerako erakundeetatik bultzatzen diren neurri espezifikoek osatzeko beharra dutela, erabakiak hartzen direneko eta politika publikoetako esparru desberdin bakoitzeko programak definitzen dituzten esparru sektorialetatik.*

## 3.4 Emakumeek hiriaz gozatzeko eskubideari buruzko Europako Karta (1994)

Emakumeek hiriaz gozatzeko eskubideari buruzko Europako Karta (1994-95) nazioarte mailako ikerketa talde desberdinek eginiko deklarazio bat da, "hiri planeamenduan filosofia berri bat sortu nahi duena, ziurrenera eztabaida demokratiko erreal baterako ekarpen konstruktiboa egiteko, herritarren, bai emakumezko eta bai gizonezkoen beharrak eta espektatiba desberdinak kontuan edukiko dituena. *Hiriak biziberritzeko ahaleginek bat egin behar dute lehentasun politiko eta ekonomiko berriak sortzeko, harmonia sozial handiagorantz abiatzeko. Momentuko arazoa da espazioak birsortu eta lokarri sozialak sortzea emakumeentzat eta gizonentzat, aukera berdintasuna areagotu dadin nekazaritza munduko eta hirietako bizitzan."*

Ia 20 urte igaro dira dokumentu hori egin zenetik, eta oraindik indarrean dirau, bai bere motibazioak eta bai deklarazioaren puntuak berak, jarraian transkribitzen dugularik.

## Motibazioa

"Hiria memoria antolatua da".

"Emakumeak Historiak ahaztuta izan dituenak dira"[1]

**izan ere**

Emakumeak ez daude edo nolabait ikusezin daude hiri, etxebizitza eta hirietako planeamenduarekin zerikusia duten erabakietan, maila guztietan. Izan ere oso gutxi inplikatuta daude garaiko gai politiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuetan. Izan ere behar partikularrak ez dira ia aintzat hartu ere egiten planeamenduan eta programetan, normalean erabakiak hartzen dituztenek ignoratu egiten dituztelako, hauen interesak erabat desberdinak baitira.

**izan ere**

Hiriko, auzoko eta etxebizitzako bizi baldintzek bertako bizilagun gehienen eguneroko bizitzan eragina dute eta afektatu egiten dute; emakumeak bereziki afektatuta daude, normalean lanaldi bikoitza jasaten dutelako eta beraz,

[1] Hannah Arendt

kalitatezko hiri zerbitzu pilo handi batean konfiantza eduki behar dute eta zerbitzu horiek guztiak eragina du garraioan eta ingurumen politiketan;

**izan ere**

Emakume gehienak kanpoan uzten dira herritar gisa eta hiri planeamenduko agente gisa;

**izan ere**

“eskubidedun herritarra” izateko, noberak toki zehatzen batekoa izan behar du eta jatorrizko toki hori, elementu neutral bat izan beharrean, bere izaera eta kalitatearen arabera aldez aurretik suposatzen du herritarren ordezkaritza nola izango den. Izan ere, gaur egun, joko arauak eta lehentasunak, bereziki politikoak eta aurrekontukoak, gizonezkoek bakarrik definitzen dituzte, konbentzituta baitaude denen interesen arabera jokatzen ari direla;

**izan ere**

Emakumeak dira diskriminatuenak enpleguari dagokionez, izan ere beraiek dira gizarteko segmenturik pobreenak, eta beraz, disfuntzionalitateak eragindako ondorio gehientsuenak jasaten dituzte (adibidez, etxebizitza, altzari falta eta indarkeria, partikularki). Arrazoi hauengatik guztiengatik, emakumeek zuzeneko interesak dituzte hirian eta landa eremuan bizi baldintzak hobetzearen inguruan.

**izan ere**

Hiri planeamenduak nukleo familiartzat hartzen ditu, soilik, emakumeen zeregina etxeko lanetara mugatzen denean eta gizonaren enplegua denean familiaren euskarri ekonomiko bakarra. Eredu hau, gizarteko estereotipoek finkatu dutena eta hamarkada batzuetan hain ohikoa izateari uzten joaten dena, jada ez da inoiz adierazgarria izango gutxiengo batentzat ez bada. Pixkanaka familia mota berriak sortzen ari dira eta hiri planeamenduak ez du ez aurreikusi eta ez aintzat hartu, eta era honetan gizarteko disfuntzio eta tentsio berriak sortu dira.

**izan ere**

Europako eta mundu osoko hiri asko krisi batean aurkitzen dira eta arriskuan jartzen ari dira justizia soziala eta bakea. Egoera hau dator arazoaren konplexutasunagatik, osotasun batetik hartuta konpondu behar baitira.

Hirigintzako teoria zaharkituak eta edozein garapen eta berrikuntza frenatzen duten metodoek krisian dauden hiriak sortu eta mantentzen dituzte. Le Corbusier Atenas-eko Kartak, hiriak banatzen zituena funtzio bakarreko zonaldetan, distortsioak sartu zituen eta denborarekin nahasmendu serioak sortu ditu. Hori frogatzen duten emaitzak zera dira, arazoak dituzten hiri-barrutiak, gizarteko pariak eta kostu sozialak eta ekonomikoak, etxebizitza eta lantokiaren arteko garraioagatik kostu horiek areagotuz. Hirietako kutsadura eta trafiko astuna ere hirigintzako politiken ondorioa da. Hirietako bizi kalitatea serioski ari da arriskuan jartzen eta hiriek etorkizuna edukiko badute, erronka hau beregain hartu behar dute;

**izan ere**

Hiriek orain erronka handiagoak eta aurrez jakin ezinezkoak dituzte ondorengo helburu hauek hobetzeko: ingurumenaren kontserbazioa eta garapen jasangarria, bizi baldintzak hobetzea denontzat, berdintasuna areagotzea, hiriko disfuntzioen soluzioa eta gizarte bazterketaren aurkako borroka barne, non emakumeak aktiboki inplikatuta dauden.

Ikuspegi berri hau eta egiturazko aldaketak ez dira posible Europako hirigintza politikek ez badituzte erronka hauek eraginkortasunez aintzat hartzen. Edozein kasutan, ez da ezer konponduko emakumeen ekarpenik gabe, alde batetik, demokratikoki legitimatuta dagoelako eta, bestetik, hirigintzako dinamiken berrikuntzarako funtsezko iturri direlako.

## Deklarazioaren 12 puntuak

### 1. Emakumeak hirian, eta herritar aktiboak

*Ordezkaritza demokratiko errealistagoa.*

*Filosofia berri baten bila hirigintzako planeamenduan.*

>> Herritargo aktiboa lortu behar da, alde batetik etxebizitzaren egoerak daukan eragina kontu handiarekin aztertuz eta, bestetik, hiriko agintariek eta mekanismo politikoek eta ekonomikoek nola lan egiten duten aztertuz.

Emakumeek hiriko bizitzara erabat sartzeko dauzkaten mugak ezabatu egin behar dira herritar kolektibo aktiboa bultzatuko duten baliabide berrien bitartez.

Emakumeak, bai beren bizitza pribatuan edo publikoan, oraindik beren burua identifikatu behar dute, modu egokian, egunero beren inguruan dituzten zonalde eta zerbitzuekin, erabat integratutako herritar izatera iritsi baino lehen.

Horrek esan nahi du neurriak hartu behar direla jakiteko zeintzuk diren hirigintzako kudeaketan eta planeamenduan emakumeen aurkako praktika diskriminatorioak gaur egun ere.

Era honetako diskriminazioa da gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak moldeatu dituzten baldintza historiko eta kulturalen emaitza, ez soilik planeamenduari eta bizi kalitateari dagokionean soilik, baizik eta bazterketa ekonomiko, sozial eta kulturalaren osotasunean. Hiriak, era honetako diskriminazioaren ispilu bihurtu dira.

**2. Emakumeak hirian, eta erabakiak hartzea eta berdintasuna demokrazian**

*Berdintasuna demokrazian, erabakiak hartzen direneko maila guztietan*

*Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea funtsezkoa da emantzipaziorako.*

>> Emakumeek parte hartu behar dute une oro planeamendu, hiri espazio, etxebizitza, garraio eta ingurumen kalitatearekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuen maila guztietan.

Emakumeak oso gutxi ordezkatuta daude hiri eta erregio alorreko planeamenduan, etxebizitzen politiketan bezala. Hiriak eraiki ziren emakumerik gabe eta duela urte askotatik beren ekarpenik gabe hazten ari dira. Emakumeei egunero axola dizkien gaiak ez dira politikoki lehentasunezkoak.

Emakumeek, beraz, berdintasunean inplikatuta egon behar dute bizi baldintzekin zerikusia duten gai guztietan. Eztabaida bakoitzean entzunak izan behar dute eta erabaki politiko eta tekniko bakoitzean aholkua eskatu behar zaie, tokiko gaietatik hasi eta europar mailara arte. Emakumeak dira planetako talentu eta potentzialaren erdia, eta toki klabeetan hain ordezkaritza baxua edukitzea galera bat da gizartearentzat orokorki. Hiri proiektua da gairik garrantzitsuena XXI. mendearen hasieran: demokraziaren edozein berrikuntzak ezinbestez jaso behar du erabakiak hartzerakoan emakumeen parte hartzea bultzatzea.

**3. Emakumeak hirian, eta aukeren berdintasuna**

*Bilakaera demokratikoa bat batekoa ez delako.*

>> Aukera berdintasuna bultzatu behar da hezkuntzan eta ikerkuntzan, lantokietan eta hiri eta erregio planeamenduarekin, hiri espazioarekin, hirietako mugikortasun eta segurtasunarekin zerikusia duten lanbide guztietan.

Pizgarrien politikak bultzatu behar dira emakumeen inplikazioa sustatzeko hiriko planeamenduarekin eta eraikuntza industriarekin zerikusia duten jarduеretan.

Mentalitatea aldatu beharra dago, izan ere gaur egun geratzen dira oso ideia misoginoak arlo hauetan, aldaketa garrantzitsua eman den arren, “emakumeak etxean” ideia inplizituki dago komunikabideetan eta eskoletako liburuetan, nahiz eta zuzendaritza postuetan, arkitekturan eta emakume urbanisten ereduak hor dauden.

Planeamendu eta Arkitekturan graduatutako emakumeak animatu behar dira lanbide horiek betetzera eta horretan errekonozituak izan daitezela.

**4. Emakumeak hirian, eta parte hartzea**

*Erabakiak hartzeko erdiko mailak sortzea.*

*Aldaketarako estrategiak.*

>>Emakumeentzat parte hartzeko bidezko prozesuak ezarri behar dira, elkartasunezko sare berrituak sortzeko.

Benetako “bidezko demokrazia urbanoak” ikuspegiaren aldaketa ematen lagundu behar du eta etxebizitza, lan, gizarte solidario, balio kultural eta ingurumen kalitatearen alorrean erabaki egokietara iristen lagundu.

Emakumeek ongizatearen administrazioari buruzko informaziora sarbidea eduki behar dute eta fondo publikoen kudeaketarekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuetara ere bai, alegia, beharrei nola erantzun, emakumeen espektatibei erantzunez eta konponbide posibleen multzo zabal batekin.

Bai emakume herritarrek eta bai gizon herritarrek ekimen indibidual eta autosufizienteen garapenerako espazioak sortu behar dituzte. Espazio hauek erabakiak hartzen direneko erdiko mailak dira, eta aldian behin, herritar aktiboak sortzeko eta interes orokorreko eta partikularki emakumeen intereseko gaiei buruzko eztabaida egiteko bidea eman beharko lukete.

**5. Emakumeak hirian, eta eguneroko bizitza**

*Sinergia sortzea aurrerapen praktikoekin.*

>> Eguneroko bizitza emakumeen begiekin ikusita, gai politiko bat izatera iritsi behar du.

Emakumeek hiriko bizitzaren inguruan daukaten ikuspegiak gutxiengoen eta “talde ikusezinen” , horren partaide baitira emakumeak, kezkei buruzko ikusmolde desberdinak izatera eramaten du.

Beren nortasun pertsonalaz, esku hartzeko gaitasunez eta beren beharren inguruan konturatzera iritsiko ziren emakumeak gai izango dira gizarteko lokarriak indartzeko eta eguneroko egoeretan parte aktiboagoa edukitzeko.

**6. Emakumeak hirian, eta Garapen Eramangarria.**

*Besterik gabe, Lur Planeta hipotekatzen ari gara gure seme-alabentzat*

>> Emakumeek erabat inplikatuta egon behar dute gure planetako oreka ekologikoa mantentzeko politiketan.

Natura zaintzea bihurtu da hiriaren garapen eramangarriaren gai nagusietako bat (Rio-ko Goi bilera). Emakumeak oso konsziente dira beren ingurumenaren kalitatearekin zerikusia duten gaiez; badakite horrek bihurtu behar duela etorkizunari begira garapenerako erronka garrantzitsua (Agenda 21). Emakumeen mugimenduak bereziki sentsibleak dira honetan eta erabat kontzientziatuta daude dimentsio berri honen inguruan bai ekonomiaren eta bai hiri planeamenduaren alorrean.

**7. Emakumeak hirian, eta Segurtasuna eta Mugikortasuna**

*Emakumeek hiri-eskubidea ere badute.*

*Aldaketarako klabeak. Segurtasuna eta mugikortasuna emakumeentzat.*

>> Emakume bakoitzak eta bereziki emakume diskriminatu eta isolatuek sarbide erraza eduki behar dute garraio publikora modu askean zirkulatzeko eta hiriko bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean bete-betean parte hartzeko.

Hirietako segurtasuna, bai egunez eta bai gauez, zeharo birpentsatu beharko litzateke emakumeen ikuspegiak kontuan hartuta. Indarkeriaren eta erasoen

helburu bulnerableek jarraitzen dutenez, planeamendua berrikusi egin behar da eta jarrera egokiaren arabera kontu handiz aintzat hartua izan behar du.

Sozial eta kulturalki baztertuak diren emakumeek arrisku bikoitza dutenez beren isolamendu propioan harrapatuta geratzeko, kontuan eduki behar dira bereziki beren beharrak, emakume herritarren mugikortasuna areagotuko duten politikak erabiliz.

Hiri seguru batek denentzako mugikortasuna sustatuko du eta bereziki emakumeentzat. Segurtasun sentsazioak neurri handi batean lagunduko du gizartearen kohesioan.

**8. Emakumeak hirian, eta habitat eta etxebizitzarako eskubidea**

*Aldaketarako elementu klabeak: Kalitatea eta aniztasuna etxebizitzan; zerbitzu publikoetatik gertu egotea.*

>> Emakumeek etxebizitza eta habitat egokiak edukitzeko eskubidea dute.

Bizitegi zonaldean emakumeen beharrentzako espazio egokirik ez egoteak, emakumeek eta emakumeentzat diseinatuak, nortasuna galtzera eramaten du eta herritar-jarduera mugatua izatera.

Espazio publikoak eta pribatuak, bere osotasunean, funtsean gizonezkoek pentsatu eta egindakoak izaten dira edo gizonezkoen irizpideen arabera, eta emakumeek azaltzen dituzten behar minimoak ere ez dituzte kontuan hartzean eta beharren aniztasuna falta zaie sortzerakoan.

Bestalde, bizitoki egokiek komenigarri diren zerbitzu publikoak ere aintzat hartu behar dituzte, ezinbestekoak baitira oraindik gehienbat emakumeek beren bizkar kargatzen dituzten lanen pisua arintzeko garaian.

Gainera, emakumeak askoz ere adiago daude haurren hazkuntza garaian beraientzat espezifikoki sortutako espazioen eskasia penagarriaren inguruan.

**9. Emakumeak hirian, eta genero alorreko gaiak**

*Generoarekin zerikusia duen heziketa eta filosofia demokratiko berria sustatzea.*

>> Genero alorreko gaiak aitortu egin behar dira kultura partekatu berrituaren iturri bezala, eta hiria eta landa planifikatzeko filosofia berri bat ezartzen parte hartu behar dute.

Gizon eta emakumeen arteko harreman historiko, sozial eta kulturalen ikerketak lagundu egin behar du krisi urbanoaren aurrean soluzio berriak eta gero eta errealistagoak ikusten, baita hiriko biztanle guztien bizi kalitatea hobetzen ere. Generoa, gizon eta emakumeen arteko harremanak ezagutzeko adar bezala hartuta, estereotipoak ezabatu eta ikuspegi desberdin batetik bizikidetza urbanoa hurbiltzeko baliabide eraginkorra da.

**10. Emakumeak hirian, heziketa eta aplikazio praktikoa herri mailan.**

*Ezagutza jasotzea eta gaikuntza.*

*Aurrerabidearen etapa batzuen etengabeko jarraipena.*

*Aplikazio praktikoa egunerokotasunean.*

>> Hirietako genero gaiak eskoletan irakatsi behar dira, Arkitektura eta Hiri Planeamendu Eskoletan eta unibertsitateetan.

Hirietan aplikatzea urgentziazko behar bat da, aldaketak egotea nahi bada.

Ikerketa eta balorazioa funtsezkoak dira hirietan emakumeenganako diskriminazioa zenbateraino zabalduta dagoen ebaluatzeko.

Genero alorreko gaiak, beraz, unibertsitateetan eta bigarren mailako ikastetxeetan irakatsi behar dira eta ezagutzaren alorrean ezinbesteko adar bat bezala aitortu behar dira.

Proiektu pilotuak gomendatzen dira jarrera politiko freskoak sor daitezen genero gaiarekin zerikusia duten gaiez arduratuko direnak.

**11. Emakumeak hirian, eta komunikabideen egitekoa eta esperientziaren transmisioa.**

*Ezagutza eta gaitasuna transmititu eta zabaldu.*

>> Komunikabideek, estereotipoak indarrik gabe utziko dituzten mezuak zabaldu behar dituzte eta emakumeak beren garapen eta emantzipazio propioa burutzen duten roletan erakutsi behar dituzte.

Ikerketa eta aurrerapen berriak eskala handian transmititu eta banatu behar dituzte komunikabideek, hauek izan behar badute behintzat gizartean aldaketak bultzatuko dutenak nagusiki estereotipo sozial zaharkituak ezabatuz, gizartean modu globalean emantzipatzea eragozten baitute.

## 12. Emakumeak hirian, eta ekintza sareak

*Kartaren zabalpena egin.*

*Aldaketarako eszenatokia ezarri europar mailako politika indartsu eta afirmatiboen bitartez.*

>> Europar mailako sare baten bitartez informazioa elkartrukatzeak karta sustatuko du eta bere 12 puntuak abian jarriko ditu.

Informazioa elkartrukatzeko europar mailako sarea funtsezko erreminta da ekintza programetarako eta jarrerak aldatzeko. Adibidez, Herrialde Eskandinabiarretatik eta Iparrameriketatik etor daitezkeen laguntzek, zalantzarik gabe, jarduteko programa berri eta desberdinak agertzea ekarriko dute. Nazioarteko beste lan-sare batzuekin konektatzea garrantzitsua da mundu mailan emakumeen artean dauden antzeko gaiei buruzko elkartasuna garatzeko eta beste kontinenteetan Europaren presentzia ziurtatzeko, bereziki nazioarteko erakundeetan.

# 4 HELBURUAK

Txosten honen helburu nagusia **genero ikuspegia Irungo Hiri Plangintza Nagusiaren berrikusketa prozesuan** sartzea da, horrela, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko aukera aprobetxatuko da hirigintza alorreko dokumentu baten bitartez.

Plangintza behin behingoan onartu nahi da txosten hau entregatzen denarekin batera, beraz, proposatzen den metodologian **neurrien eraginkortasuna eta horiek aplikatzeko erraztasuna** lehenesten dira. Horrela, jada onartutakoarekin kontraesanean sartzea saihestu nahi da, testuko ordenantzak ahalik eta modurik eraginkorrenean osatuz.

Erabilitako metodologia, orain arte landutako Plangintzaren azterketan oinarrituko da, irizpide barneratzaileak sartzeko mesedegarri izan daitezkeen puntuak arautegian detektatu ahal izateko. Beraz, herritarren artean hasierako desberdintasunak orekatzea erraztuko duten neurriak bultzatu nahi dira.

Beraz, diru-laguntzetarako Aginduak ezartzen zuen bezala, Plangintza Nagusia genero eta egunerokotasunaren ikuspegitik aztertzen hasiko gara, neurri zuzentzaileak proposatzeko, artikuluen alternatiba gisa testu bat edo dagozkion fitxak proposatzeko eta, azkenik, proposatutako horrek hirigintzako arautegian duen eragina aztertzeko. Amaierako dokumentu gisa, gida bat egingo dugu honako txosten honek Irungo Plangintza Nagusiaren behin-betiko idazketan zer-nolako eragina duen ebaluatzeko.

| | |
|---|---|
| | |
| Patxi Galarraga Aiestaran, Arkitektoa | Miren Vives Urbieta, Arkitektoa |

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# II. DOCUMENTUA

# ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA

HAPNaren hasierako onarpen faseari dagozkion dokumentu hauek aztertu dira:

- "Hasierako onarpen dokumentua idazteko plangintza irizpideak eta helburuak"[1].
- "Antolamendu memoria".
- "Hirigintza Arauak".
- "Plangintza esparruak".

Txosten honek jasotzen duen lanaren xedea goian aipaturiko dokumentu horiek aztertzera mugatu behar bazuen ere, testuinguru batean kokatzea erabaki da, talde honek egiten dituen irakurketak eta proposamenak ezagutzen lagunduko baitu horrek. Horretarako, analisi gehigarria egitea proposatu da eta hartan beste dokumentu batzuk aztertu dira honako ikuspegi hauetatik begiratuta:

- Generoaren ikusezintasuna.
- Hirigintzaren eta generoaren inguruko mainstreaminga.
- HAPNaren testuaren iragazkortasuna eduki sektorial jakin batzuei begira.

Horrenbestez, eta Irungo HAPNaren hasierako onarpena osatu duten dokumentuen azterketaren aurretik, ondoko hauek aztertu dira, guztiak ere Irungo Udalak eginak edo bultzatuak, bai HAPN berrikusteko prozesuaren barnean bai hartatik kanpo:

- HAPNaren hasierako onarpena osatu dutenen aurreko dokumentuak:
    - "Hirigintza arloko informazioa. Memoria" (1. fasea, 2008ko urtarrila).
    - "Diagnostikoa. Memoria" (1. fasea, 2008ko urtarrila).
    - "Plangintzaren aurrerakina. Memoria" (2. fasea, 2008ko azaroa).
    - "Aurrerapen bat Irunerako" (2. fasea, laburpen dokumentua).
- HAPN berrikusteko prozesuaren barnean ez egon arren, lan hau osatzeko kontuan hartu diren planak:
    - Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2010ek otsaila).

---

[1] Dokumentu hau irizpide eta helburu orokorrak finkatzeko aurreko fasekoa da zentzu hertsian, eta 2010eko martxoko data du. Hala ere, zerrenda honetan sartu dugu berau oinarritzat harturik egin zelako gero dokumentazio teknikoa.

    - Agenda 21- Txingudi: Irungo diagnostikoa eta Ekintza Plana (2006-2007).

- Generoarekin loturiko dokumentuak:
    - Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Plana 2008-2011.
    - Irungo Hiri Debekatuaren Mapa (2011).
    - Hiriko Erabileran dagoen Diskriminazioari eta Generoari buruzko Txostena (2011).

Horrenbestez, honako zortzi atal hauek osatzen dute azterketa desberdinen zerrenda:

1. Generoaren ikusezintasuna Irungo HAPNan.
2. HAPNan ikuspegi sektorialak jasotzea: Agenda 21en eta HMIParen adibidea.
3. Mainstreaminga, hirigintza eta generoa: II. Berdintasun Planaren eta Irungo Hiri Debekatuaren Maparen kasua.
4. “Hasierako Onarpen dokumentua idazteko Plangintza Irizpideak eta Helburuak” dokumentuaren azterketa.
5. “Antolamendu memoriaren” dokumentuaren azterketa.
6. “Hirigintza arauen” dokumentuaren azterketa.
7. “Plangintza esparruen” dokumentuaren azterketa.
8. Hiriko Erabileran dagoen Diskriminazioari eta Generoari buruzko Txostenaren azterketa.

## Analisiaren ondorio nagusiak

Generoaren ikuspegia aintzat hartuta egindako analisi honen ondorio nagusiak aurreratuko ditugu ondoren, iraunkortasun sozialerako irizpideei jarraiki hiri barneratzailea lortu nahian betiere:

- Espainian idazten diren hirigintza dokumentu ia guztietan bezalaxe, generoaren ikuspegia ez da batere aintzat hartzen HAPNaren dokumentuetan, hala diagnostikoa egiteko fasean (sexuaren arabera bereizitako datuak falta dira), nola irizpideak eta helburuak finkatzean (ez zaio inolako aipamenik egiten iraunkortasun sozialari) edo ondoko arauen garapenean.

- Era berean, logika ekonomizista, produkzio munduaren protagonismoa eta bide azpiegitura handiekiko arreta azpimarratzen dituzte dokumentu horiek, eta subsidiarioak edo bigarren mailakoak dirudite eguneroko bizitza (etxebizitzaren, espazio publikoaren edo ekipamenduen kalitatea) edo barneratzailea izatea bezalako kontuek.

# 1 GENEROAREN IKUSEZINTASUNA IRUNGO HAPNan.

Generoaren alderdia ezin ikusi hori gertatzen da, gainera, HAPNaren berrikuspena osatzen duten fase guztietan. Hirigintza Informaziorako dokumentuan jasotzeko moduko daturik ez badago, ez dira aintzat hartuko Diagnostikoaren fasean, eta ezta Plangintzaren Aurrerakinean sartutako beharren programan ere. Izan ere, **lehen faseetan ez bada generoaren ikuspegia aintzat hartzen, guztiz logikoa da, geroko gainerako faseetan ere kontuan ez hartzea**: ez Irizpideak eta Helburuak finkatzeko fasean eta ez gero Hirigintza Araudia garatuko duten dokumentuetan ere.

Hortaz, HAPN osatzen duten dokumentuek **datu kopuru handi baten oinarriarekin** deskribatzen dute egoera sozioekonomikoa. Puntu hori azpimarratu nahi dugu, hain zuzen ere, datu gehiago edo gutxiago egoteagatik ez baitugu pentsatu behar deskribapenak oinarritzat dituen kopuruak zenbat eta ugariagoak izan orduan eta hobeto ulertuko dugula egoera. Izan ere, estatistika datuetan generoaren ikuspegiarekiko joerak ez dira ikusi ere egiten behatzen dugun gizartean dauden botere harremanak ontzat hartzen direnean.

Esan nahi dugu bi arrazoirengatik gertatzen dela ikusezintasun hori:

- Datua ez delako neutroa.
- Baliorik ez duenak daturik ez duelako.

## Datua ez da neutroa.

Datua ez da neutroa, herritar eredu bat existitzen ez den bezalaxe, horixe baita inplizituki nork bere gain hartzen duena beharren homogeneizatzaile gisa subjektu unibertsala egotea onartzen denean. **Bereizi gabeko datu batek argazki orokorrak eskaintzen ditu askotan, eta horren ondorio nagusia ez da argia eskaintzea, jada finkaturiko ikuspegi bat betikotzea baizik**, ekintza hori nahita zein nahi gabe egin bada ere.

Irungo Udalak berak, **Irungo II. Berdintasun Planaren** bidez, datuen eta informazioaren bereizkuntza ezarri zuen bere helburuen artean. Hona hemen II. Berdintasun Planaren 1. Arloari dagokion testua laburbilduta:

*Helburu Nagusia:*

- *"Generoaren ikuspegia modu eraginkorrean sartzea Udalaren eguneroko jardueran".*

*Helburu espezifikoak:*

- *Sexuaren arabera bereizitako datuak eta informazioa edukitzea, emakumeen eta gizonen arteko aldeak eta desberdintasunak hobetu ezagutu ahal izateko.*
- *(...)*

Ez dakigu zenbateko asebetetze maila lortu izango den helburu horri dagokionean (derrigorrez bete beharrekoa, bestalde, berdintasunerako euskal legea onartu zenetik), baina gure iritziz, hain zuzen ere datuak sexuen arabera ez bereiztea da diagnostikoaren prozesuan eta geroago Plan Orokorraren berrikuspenaren helburuak finkatzean generoaren ikuspegia “ezin ikusi” izate horren arrazoietako bat. Ugari dira gertakizun hori islatzen duten adibideak, eta horietako bat hartu dugu Hirigintza Informaziorako dokumentutik:

*2.2.3. Garapen ekonomikoaren maila eta produkzio egitura*

*Alor horri dagokionean Eustatek emandako azken datuen arabera (2001. urteari buruzkoak), pertsona bakoitzeko errenta gordina 9.291 eurokoa zen urte horretan Irunen, hauxe da, EAEko batez bestekoaren % 86 eta Gipuzkoako batez bestekoaren % 84,3. 1997-2001 urteetan, Irunen % 26 gora egin zuen pertsona bakoitzeko batez besteko errentak, eta % 28 Euskal Autonomi Erkidegoan eta % 30, berriz, Gipuzkoan.*

Pertsona bakoitzeko errenta gordinaren datua aipatzen da atal horretan (EUSTAT 2001), sexuaren aldagaia aintzat hartu gabe. Datu horretatik abiatuta egiten dira alderaketak, eta haiei esker, itxuraz bederen, osatzen da erretratu bat. Kasu horrek argi erakusten du sarritan errealitate ezkutua edo ikusezina ezkuta daitekeela kopuru bakoitzaren atzean. Hala bada, eta EUSTATek berak ematen dituen datuetan oinarrituz:

| IRUN. Batez besteko erren. per (€) | 2001 | 2003 | 2006 |
|---|---|---|---|
| Guztira | 11.001 | 11.981 | 15.826 |
| Gizonezkoak | 15.608 | 16.668 | 21.272 |
| Emakumezkoak | 6.699 | 7.533 | 10.676 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| % (Errenta emak. / Errenta gizon.) | % 43 | % 45 | % 50 |

Hauxe da, Irungo gizonek dutenaren erdia baino txikiagoa da Irungo emakumeek duten pertsonako batez besteko errenta. Ikus dezakegu **datu bakar bat sexuaren arabera bereizte hutsarekin oso argazki erakusgarria dugula aurrean** eta, pertsona bakoitzeko batez besteko errentaren adibideari jarraiki, konnotazio argia du horrek generoan oinarritutako botere harremanei dagokienean, eta eragin handia du halaber pertsonen eguneroko bizitzari begira.

## Baliorik ez duenak daturik ez du.

Errealitate ikusezinak azaleratzen lagunduko digun datu ezaz ari gara: hain dago gainbaloratua produkzio mundua non **ezkutatu egiten baitu gure begien aurrean dugun errealitatea, ikusi egiten dugu baina ez dugu baloratzen**.

> *Beren lankideena baino askoz ere lanez kargatuagoa dago emakumeen denbora. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek modu askoz ere zailagoan eta zehatzagoan antolatu behar dute beren denbora. (...) beren gain hartu behar dute gure gizarteak duen "lan mamu" eskerga hori. Egin behar duten lan bikoitza, alde batetik, etxekoa mantentzeko ezkutuko lan hori, eta aldi berean, ahaleginak egin lan mundu konbentzionalean bideak urratzeko, ez da askorik aintzat hartzen finantza eta gizarte alorretan nahiz familian bertan. (...) hiri ingurua jitoan egoteak azken urte hauetan ez du batere laguntzen herritarren eguneroko bizitzan, baina trantsizioko emakumeen bizitza bereziki zaila are zailago egiten laguntzen du, inolaz ere* [2].

Hirigintza dokumentuetan oso agerikoa da produkzio mundua deskribatzen duten datuen nagusitasuna, eguneroko bizitzako, erreprodukzio alorreko edo zaintzarekin loturiko alderdi asko ahantzita, tradizioz emakumeek egiten dituzten lanak, hain zuzen ere. Alabaina, hirigintzak aintzat hartu behar lituzke arreta eta zaintza lan horietatik etorritako beharrak, **hiri barneratzailea diseinatzeko** ezinbesteko puntu gisa.

Oso gutxitan aipatzen da, gizartearen euskarria izateaz gain, erdi edo goi mailako klaseko gizon-langile-independenteari duen autonomia izateko aukera ematen dion "lan mamu" (ordaindu gabea) hori, eta ematen du hirigintza planen josturak oso ondo

[2] "El tiempo de las cerezas. Reflexiones sobre la ciudad desde el feminismo." Isabel Velázquez (2000)

egokitzen zaizkiola gizon molde horri. Azken batean, eta Espainian idazten diren ia hirigintza dokumentu guztietan gertatzen den bezala, **ia batere ez dira deskribatzen** proiektatzen den **hiriko pertsonen eguneroko bizitzaren kalitatea osatzen duten faktoreak**. Horren haritik Ines Madariagaren testua gomendatzen dugu, Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planaren (HMIP) analisian sartu duguna, txosten honetan bertan aurrerago ikus daitekeena. Beharretan eta hiriko erabileran dagoen aniztasuna azaleratzeko eman daitezkeen datuen adibidea:

- Eguneroko bizitzako mapak.
- Kontsumo ohiturak.
- Aisialdiko ohiturak.
- Denboraren erabilera.
- Osasun inkesta.
- Eta abar.

Esate baterako, aurrerago ikusiko dugu HAPNak HMIPari erreparatzen diola oin berriko bizileku eraikuntza orok bizikletak eta motorrik gabeko ibilgailuak aparkatzeko leku bat behar duela dioen artikulua sartzean. Bizikleta, orain dela bi hamarkada bitarte hirigintza dokumentuetan agertu ere egiten ez zena, plangintzan bere lekua aurkitzen ari da iraunkortasunaren inguruan gero eta sentsibilitate handiagoa dagoelako, eta txirrindulariek hirian dituzten eskubideak babestu eta bultzatzen dituzten elkarteak eta taldeak eragiten ari diren presioari esker. Halatan, talde horien eskabideak, hasiera batean askotan gogaikarri eta bigarren mailakotzat hartu izan arren, ekarpen aberasgarri bilakatu dira hiriko plangintzan, aintzat hartzeko prozesu luze samarrak behar izan badira ere.

Hala ere, ez HMIPak eta ez HAPNak oraindik ez dute aintzat hartzen haur-kotxea bezalako ibilgailu bat: ez hitz hori eta ez antzeko beste hitzik ez da ageri dokumentu horietan. Horren ondorioz, esate baterako, Irunen eraiki berri den ikastetxe batek, 2 urteko haurrentzako gela duenak, ez du leku bat ibilgailuak uzteko. Hain agerikoa den behar horren aurrean erakusten den axolagabekeria dela medio, haur-kotxeak uzteko leku bat eska lezaketen pertsonek ez dute guztiz bidezkoa den eskaera horri lege oinarria emango liokeen artikulu baten babesik.

**HAPNan dagoen generoaren ikuspegiaren ikusezintasunarekin loturik, honako dokumentu hauek berrikusiko ditugu ondoren,** plan horren azken erredakzioa osatzen dutenen aurrekoak guztiak ere:

1. Hirigintza Informaziorako dokumentua: datuen desagregazioaren azterketa ikuspegi sozioekonomikoaren deskribapenean.
2. Diagnostikoaren dokumentua: egoera sozioekonomikoaren deskribapen ez neutralaren bi adibide.
3. Plangintzaren Aurrerakin dokumentua: beharrak hautematea.
4. Laburpen dokumentua: “Aurrerapen bat Irunerako”.

## 1.1 HIRIGINTZA INFORMAZIORAKO DOKUMENTUA: DATUEN DESAGREGAZIOAREN AZTERKETA IKUSPEGI SOZIOEKONOMIKOAREN DESKRIBAPENEAN.

Hirigintza informazioan eta diagnostikoan oinarritzen da HAPNaren berrikuspenaren 1. fasea, eta horrenbestez, analisi honetan aurrerago jaso den Diagnostikoaren dokumentuaren garaikidea da Hirigintza Informazioaren dokumentu hau.

Hirigintza Informazioaren memoriaren dokumentu hau plano batzuek osatzen dute, baina horiek alde batera utzi ditugu gure analisian. Honako kapitulu hauek osatzen dute dokumentua:

1. Aurrekariak, justifikazioa eta ikuspegi metodologikoa.
2. Egoera sozioekonomikoa.
3. Inguru fisikoa.
4. Lurralde esparruak eta estrategiak.
5. Hiri egitura: arazoak.
6. Komunikazio sareak.
7. Etxebizitzaren egoera.
8. Industria jarduerak eta hirugarren sektorekoak.
9. Ekipamendu komunitarioa.
10. Ondare historikoaren babesa.
11. Azpiegitura sarea.

Hirigintza Informazioaren memoriaren 2. kapituluan jasotako datuen inguruko azterketa aurkezten dugu ondoren taula batean, eta Irungo egoera sozioekonomikoa deskribatzen da bertan. Datu bakoitzerako klabe bat finkatu da, EAEko[3] eta estatuko[4] berdintasun legeen arabera, datu hori bereizia dagoen ala ez kontuan harturik.

- **EZ** Datuak bereizia egon beharko luke, baina ez dago.
- BAI Datua bereizia dago.

[3] EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.

[4] Estatuko 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari buruzkoa.

| | |
|---|---|
| | **2. Kapitulua: Egoera sozioekonomikoa** |
| | **2.1. Esparru orokorra: EAEko bilakaera sozioekonomikoa** |
| | **2.1.1. Ezaugarritze demografikoa eta makroekonomikoa** |
| **EZ** | “Oinarrizko ezaugarri demografikoak” taula. |
| BAI | “Enplegu tasaren bilakaera EAEn” taula. |
| BAI | “Langabezia tasaren bilakaera EAEn” taula. |
| | **2.2. Irungo udal barrutiaren ezaugarritze sozioekonomikoa eta joerak** |
| | **2.2.1. Ezaugarri demografikoak** |
| **EZ** | “Biztanleriaren banaketa auzoka" taula. |
| **EZ** | “Biztanleriaren bilakaera 1996-2006 urteetan” taula. |
| **EZ** | “Irungo hazkunde demografikoaren osagaiak 2006an” taula. |
| **EZ** | “Jaiotza eta heriotza tasak” taula. |
| **EZ** | “Migrazio saldoa” taula. |
| **EZ** | “Biztanle etorkinen proportzioa Irunen, auzoka” taula |
| **EZ** | “Biztanleriaren banaketa adin-taldeen arabera” taula. |
| **EZ** | “65 urtetik gorako biztanleen proportzioa auzoka” taula. |
| | **2.2.2. Biztanleria aktiboa eta langabea** |
| **EZ** | “Langabezia tasa 2005eko abenduan” taula. |
| **EZ** | "Lan kontratazioaren bilakaera Bidasoa-Txingudi eskualdean 2003-2005 urteetan" taula. |
| **EZ** | "Lan kontratazioaren bilakaera arloka Bidasoa-Txingudi eskualdean 2003-2005 urteetan" taula. |
| **EZ** | “Enplegu eskatzaileak Irunen arloka. 2006ko azaroa” taula. |
| **<% 50** | Testuaren gainerakoan: sexuaren aldagaia jasotzen duten datuen % |
| | **2.2.3. Garapen ekonomikoaren maila eta produkzio egitura** |

| | |
|---|---|
| **% 0** | Testuaren gainerakoan: sexuaren aldagaia[5] jasotzen duten datuen % |
| | **2.2.5. Industria jarduera** |
| **EZ** | "Irungo industria sektore nagusiak 2006" taula. |
| **EZ** | "Industria establezimenduak langile kopuruaren eta jarduera adarren arabera Irunen. 2004" taula. |
| **EZ** | "Irungo industria poligonoetan lanean ari direnak" taula. |
| | **2.2.6. Zerbitzuak** |
| **EZ** | "Enplegua zerbitzuetan Irunen jarduera adarren arabera. 2004" Taula. |
| | **2.5. Ondorio nagusiak** |
| **EZ** | "Irungo biztanleriaren bilakaera" grafikoa. |
| **EZ** | "Irungo aldaketa demografikoaren osagaiak. 2005/06" grafikoa. |
| **EZ** | "Hirugarren sektoreko enpleguaren banaketa" grafikoa "Zerbitzuetako enplegua Irunen jarduera adarren arabera. 2004" taulatik abiatuta (2.2. Irungo udal barrutiaren ezaugarritze sozioekonomikoa eta joerak > 2.2.6. Zerbitzuak. |

[5] Irungo enpleguaren egitura deskribatu da (jarduera arlo bakoitzean lanean ari diren pertsonen kopurua), baina datua ez da bereizi sexuaren arabera, eta ikerketa askok diotenaren arabera egoera prekarioagoa da emakume langileen proportzioa handiagoa den arloetan.

## 1.2 DIAGNOSTIKOAREN DOKUMENTUA: EGOERA SOZIOEKONOMIKOAREN DESKRIBAPEN EZ NEUTRALAREN BI ADIBIDE.

Generoaren ikuspegitik begiratuta, Hirigintza Informazioaren dokumentuaren eskasi berdinak ditu Diagnostikoaren dokumentuak ere (EAEko eta estatuko berdintasun legeak ez betetzea barne).

Diagnostikoaren dokumentuak Irungo egoera sozioekonomikoaren deskribapenari eskaintzen dizkion bi orrietatik ateratako bi paragrafo hartuko ditugu hemen adibide gisa. Horrekin berriro ere esan nahi dugu datuak “ez direla neutralak”, gorago bi modutan interpretatu dugun bezala:

- **Informazio zehatzagoa eta zuzenagoa eskaintzen du bereizitako datuak.** Diagnostikoan[6] egiten den zahartzaroaren fenomenoaren deskribapena hartu dugu hemen:

  > *Garrantzitsua da esatea azken 25 urte hauetan nabarmen gora egin duela zahartze mailak, 60 urtetik gora baitituzte biztanleen % 22k, 20 urtetik beherakoena baina askoz ere kopuru handiagoa hori, jaiotza indizeak berriki izan duen gorakadari esker, haurren kopuruaren hazkundean joera berria sumatzen ari bada ere.*

  Datu horiek eskaintzen duten irudia osa zitekeen beroriek sexuaren arabera bereizita. Irungo errolda jarraituaren estatistika[7] eskuan hartuta, esan daiteke, zahartzea emakumezkoen fenomenoa dela batik bat; izan ere, 65 urteko edo hortik gorako 100 gizoneko 141 emakume daude Irunen, eta proportzio horrek nabarmen gora egiten du 85 urteko edo hortik gorako adina duten pertsonen artean, adin horretako 262 emakume baitaude 100 gizoneko (1.166 emakume eta 445 gizon).

  Gure iritziz, hiria planifikatzeko prozesuan guztiz kontuan hartu beharko litzateke datu horiek erakusten digutena, eragin handia baitute mendekotasuna edo irisgarritasuna bezalako kontuetan, esate baterako.

[6] Diagnostikoa, 2008ko urtarrila > 2.2. Irungo egoera sozioekonomikoa.

[7] Estatistika Institutu Nazionala, errolda jarraituaren estatistika 2012ko urtarrilaren 1ean.

- **Daturik ez duena ez da.** "Izenik ez duena ez da" dioen euskal esaera hartu dugu honetan. Diagnostikoan[8] hiri mugikortasunaren inguruan egiten den deskribapena aipatuko dugu kontu hau azaltzeko.

    ***Etxetik-lanera mugimenduei*** *dagokienean, aipatzekoa da udalerrian lan egiten duten Irungo biztanle okupatuen portzentajea, % 40tik gora, hain zuzen ere, baina Irunen dauden lanpostuen laurdena baino zertxobait gehiago, %26, beste udalerri batzuetan bizi direnek betetzen dute, eta mugikortasun handia sortzen da horrenbestez.*

    *Lan arrazoiengatik mugitzen diren irundar gehienak Donostialdea eskualdera joaten dira, eta arrazoi horregatik Iruna etortzen diren gehienak Hondarribiko biztanleak dira.*

    Esan beharrik ez dago mugikortasun azterketa askoz ere zabalagoa jasotzen duela HMIPak (aurrerago HMIP bera aztertuko dugu generoaren ikuspegitik begiratuta). Nolanahi ere, HAPNaren diagnostikoaren erredakzioan bakarrik bi paragrafo horiek sartu izanak garbi uzten du ia hirigintza dokumentu guztietan dagoen gabezia hori, eta horrek erakusten digu ekoizpen munduaren protagonismo handia dela-eta, lehen egin ditugun baieztapen horiek ez direla funtsik gabekoak[9]. Isabel Velazquezek[10] honela deskribatzen du:

    *Herritar eredu motorizatu, independente eta guztiz gaituaren beharretara egokitzen da hiriaren egitura, asko lotzen duen lana daukan herritarra, huraxe izanik haren bizitzaren ardatza. Auzo berrietako azpiegiturak edo trazatuak planifikatzerakoan lan desplazamenduei ematen zaie beti lehentasuna beste edozein erabileraren gainetik. Autoaren beharrak lehenesten dira mugitzeko beste edozein moduren gainetik. Oso ordutegi zabalak dituzten komertzioak eta aisialdirako guneak behar dira ezinbestean, ibilgailu pribatuaren bidez iristeko modukoak. Hauxe da, bizi-eredu espezifiko batera egokitutako hiri-eredua, eta emakume gehienen eguneroko bizitzako egitekoekin nekez etorriko da hori bat.*

---

[8] Diagnostikoa, 2008ko urtarrila > 2.2. Irungo egoera sozioekonomikoa.

[9] Ezarritako boterearentzat existitu ere egiten ez diren errealitateak deskribatzen dituzten datuez ari gara. Hirigintza dokumentuetan oso agerikoa da produkzio mundua deskribatzen duten datuen nagusitasuna, eguneroko bizitzako, erreprodukzio alorreko edo zaintzarekin loturiko alderdi asko ahantzita. Aipatu ere ez da egiten, gizartearen euskarria izateaz gain, erdi edo goi mailako klaseko gizon-langile-independenteari duen autonomia izateko aukera ematen dion "lan mamu" (ordaindu gabea) hori, eta ematen du herritar horrengan bakarrik pentsatzen dela hiria planifikatzerakoan.

[10] "El tiempo de las cerezas. Reflexiones sobre la ciudad desde el feminismo", Isabel Velázquez, Madril, 2000ko uztaila.

## 1.3 PLANGINTZAREN AURRERAKIN DOKUMENTUA: BEHARRAK HAUTEMATEA.

Analisi eta diagnostiko mailako dokumentu horien ondoren, Plangintzaren Aurrerapen dokumentu hau da **proposamen izaerako** edukiak jasotzen dituen lehena.

> *Helburu osagarri hirukoitza dute proposamenen garapenak eta azalpenak: lehenbizikoa da jendaurrean erakusteko eta herritarrek parte hartzeko ezinbesteko eta behar-beharrezko tramitearen xede izatea ahalik eta maila zehatzenean. Bigarren helburua da proposamenak ezagutzera ematea eta udalerriaren etorkizunari buruzko eztabaida bultzatzea. Hirugarren helburua da Plan Orokor berria egiteko gida gisa erabiltzea, sumaturiko arazoei eta beharrei erantzuna ematen laguntzeko. Hori guztia proposamenak behar bezala berregokitu ondoren eztabaidaren ondorioak aintzat hartuta. Plangintza Irizpideak eta Helburuak izeneko dokumentu espezifikoan jasoko dira ondorio horiek.*

Dokumentuak berak aipatzen duen bezala hemen nabarmentzen dugun paragrafoaren amaieran, Aurrerakin dokumentu honen helburu nagusietako bat da eztabaida sortzea eta haren bidez jasotzea Irizpideak eta Helburuak **sumaturiko arazoen eta beharren arabera**. Gorago adierazi dugun bezala, ez dago herritar eredurik, subjektu unibertsal bat beharren homogeneizatzaile gisa. Eskubideen berdintasuna ez da beharren berdintasunaren parekidea.

Oso deigarria da **esparru sozioekonomikoko proposamenak** ia bakarrik produkzio ikuspegitik begiratzea fenomenoa. Izan ere, hedapen soziala alde batera uzten da garapen iraunkorra eta tokikoa aipatzen denean:

> *Azkenik tokiaren eta hiriaren garapen iraunkorrean oinarritzen da laugarren ardatza, lekuko jarduera ekonomikoa dibertsifikatu ahal izateko, kultur jarduerak eta turismo jarduerak bultzatuta eta hiri nahiz landa eremua suspertuta.*
> *(...)*
> *Programak ahaleginak egiten ditu garapen iraunkorra bultzatzeko, kooperazio transnazionalaren ondorio positiboak aprobetxatuz hirien eta hiri sareen garapen orekatu gisa, elkarren artean eta landa inguruekin sinergiak sor daitezen lagunduz. Bestalde, teknologia alorreko ikerketen garapena azpimarratzen du, sareak sortzea berrikuntzak trukatzeko eta eskualdatzeko eta lehiakortasuna nahiz ekonomiaren berrikuntzarako gaitasuna indartzea.*

Eta langabeziaren arazoa aztertzen denean, industria zoru berria sortu behar izateko argudio gisa erabiltzen da batik bat:

> *Irungo enplegu kontuari dagokionean eta beti kezkagarri diren langabezia kopuruen aurrean, garrantzitsua da Plan berriak ziurtatzea, alde batetik, egungo ekonomi eta produkzio jarduerei eutsiko zaiela eta era berean aurreikuspen egokiak egingo direla udalerrian ezar daitezkeen jarduera berrietarako zorua esleitzeko. Horren bidez lagunduko da Irunen bertan lan egiten duen biztanleria okupatuaren portzentajea handitzen, eta lagunduko da, era berean, etorkizuneko biztanleria kopuruaren hazkundeari erantzuteko enplegu eskaintza bultzatzen.*

**Irungo biztanleriaren egoeraren**[11] berri ematen denean, ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik, Lehen aipatu dugun bezala. Gainera, egoera hori azaltzen duten paragrafoek planteamendu kuantitatiboa besterik ez dute egiten, herritarren beharrak edo egoerak aipatzen dituen inolako daturik eman gabe, **zahartze fenomenoaren bi aipamen eta immigrazioaren aipamen bat izan ezik**.

Ikuspegi “zenbatzaile” horrek izan dezake bere azalpena (baina hala izanda ere ez gatoz bat) Plan Nagusien protagonismoaren zati handi bat, udalerriko biztanleriari dagokionean, bizilekuetarako zorua sortzea baita, dokumentuan proposatzen den biztanleria hazkundeari erantzun ahal izateko. Hauxe da, bizilekuetarako zorua sortzeko proposamena eragiten du hautemaniko hazkunde demografikoak, **gizartearen zahartzea bezalako fenomeno batek, berriz**, ez du dagokion ekipamenduan plazen eskaera handitu beharra beste arretarik merezi.

[11] 2.2.2 Biztanleriaren egoera Irunen

## 1.4 "AURRERAPEN BAT IRUNERAKO" LABURPEN DOKUMENTUA: KONTRAESANA EDO ITXAROPENA?

Plan Nagusiaren Aurrerakinaren laburpen dokumentua sartu dugu oso deigarri gertatu zaizkigulako haren aurkezpenean sartu diren elementu grafikoak. 14 pertsona irudi ageri dira guztira, honako era honetan banatuak:

| Guztira | Jarduera / Ezaugarria | Sexua | Adina |
|---|---|---|---|
| 1 | Kirola | Emakumea | 0-16 |
| 4 | Patinetea, futbola, parkea | Gizona | 0-16 |
| 0 | - | Emakumea | 16-24 |
| 4 | Bizikleta | Gizona | 16-24 |
| 1 | Langilea | Emakumea | 24-60 |
| 1 | Langilea | Gizona | 24-60 |
| 1 | Eserita | Emakumea | >60 |
| 1 | Eserita, irakurtzen | Gizona | >60 |

Ikusten dugu, horrenbestez, Plan Nagusian biztanleria segmentu asko ikusi ere egiten ez diren bezala, dibulgazio izaerako dokumentu honen grafikoetan neurriz kanpo ageri direla segmentu horiek. Gertakizun hori anekdotikoa edo esanguratsua izanda ere, kontraesan baten aurrean ote gaude edo itxaropentsu egoteko arrazoia ote da?

# 2 HAPNan IKUSPEGI SEKTORIALAK JASOTZEA: AGENDA 21en ETA HMIParen ADIBIDEA

HAPNak izaera estrategikoko beste dokumentu batzuekin duen lotura aztertuko dugu hemen, **kontuan harturik guztiek partekatzen duten ardatz batek, iraunkortasunak, lotzen dituela**.

HAPNak **Agenda 21 eta haren Ekintza Plana** aipatzen ditu HAPNan iraunkortasun argudioak indartzeko. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Agenda 21ek HAPNari euskarria ematen dio ikuspegi sektorialetik begiratuta.

Bestalde, **HAPNak, Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planean (HMIP) egiten diren gomendioak jasotzen ditu bere artikuluetan**. Horrenbestez, HAPNaren berrikuspen prozesutik kanpo dagoen dokumentu batetik hartutako eduki batzuk jasotzen ditu Plan Nagusiak bi ikuspegitatik begiratuta, garraioa eta iraunkortasuna, hain zuzen ere.

Txosten hau idatzi duen taldearen proposamena da “hirigintzan genero ikuspegia” (hirigintza barneratzailea” edo “eguneroko bizitzarako hirigintza” dira erabiltzen diren beste terminoak) **guztiz aintzat hartzea eta dokumentu honek nahiz beste hirigintza dokumentuek kontuan hartzea Iraunkortasun Sozialari begira**, ikuspegi hori inolaz ere bazterrean utzi gabe.

Horrexegatik, Agenda 21 eta HMIP hartu ditugu adibide gisa: HAPNaren berrikuspen prozesutik kanpo dauden dokumentuak izan arren, hartan parte hartu baitute (bai babesa eskainiz bai haren artikuluei edukia emanez) Iraunkortasunaren ardatzaren inguruan sortutako loturari esker. **HAPN honetan eta ondoko hirigintza dokumentuetan hirigintzan genero ikuspegia aintzat hartzeko proposatzen dugun prozesu berdina da hau.**

Honako atal hauen bidez aztertu da kontu hau:

1. HAPNan HMPIaren edukiak jasotzea.
2. HMPIaren irakurketa genero ikuspegitik begiratuta.
3. Agenda 21 aipagai irizpideak eta helburuak finkatzeko babes gisa.
4. Agenda 21en irakurketa genero ikuspegitik begiratuta.

## 2.1 HAPNAN HMPIAREN EDUKIAK JASOTZEA.

Aipatu dugun bezala, egin dugun Plan Orokorraren analisian ikusi dugu Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana (HMIP) sartu dela HAPNaren artikuluen hainbat puntutan. Oso positiboa da hiri plangintza tresnetatik kanpo dagoen testu batek, hiriko erabilerarekin zerikusi handia badu ere, presentzia eta eragin hori lortu izatea HAPNan.

A Dokumentuan: Antolamendu Memoria, HMIPak bere kapitulua du komunikazio sareei eskainitako atalaren barnean (6.4 puntua). HMIParen gomendioak HAPNan nola jasotzen diren azaltzen da bertan.

B Dokumentuan: Hirigintza Arauak, **1.5. Urbanizazioa Gauzatzeko Erregimen Orokorra** kapituluan aipatzen da lehen aldiz HMIP. Urbanizazio proiektuen baldintzak zehazten diren kapitulu horretan eta ondoko artikuluetan aipatzen da HMIP hori:

*1.5.5. Artikulua. Bizikleta bideen diseinuaren inguruko irizpideak.*

*1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.*

*1.5.7. Artikulua. Zirkulazioaren erregulazioaren, trafikoen koexistentziaren eta segurtasunaren inguruko irizpideak.*

**3.2.- Bizileku Erabilerako Lursailetan aplikatu beharreko Erabilera Baldintza Orokorrak** atala da HAPNak HMIParen ekarpen bat jasotzen duen hurrengo puntua.

*3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra.*

*5.- Bizikletentzako aparkalekuen hornidurari buruzko irizpideak eta araudia.*

Artikulu honen bidez, HMIPak gomendatzen du eraikin publikoetan eta pribatuetan bizikleten aparkalekuen diseinurako arauak eta gutxieneko estandarren parametroak ere jasotzea etorkizuneko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantzan. Gomendio horretan oinarriturik, eta berariazko Mugikortasun Ordenantzaren onarpenetik etor litekeen ondoko garapena alde batera utzita, HAPNak berak zera dio: *“Plan Nagusi honen arabera eraikiko den bizileku eraikin berri orok izan behako du bizikletak aparkatzeko eta motorrik gabeko ibilgailuak uzteko leku bat"*. Hornidura eta gutxieneko neurriak zehazten ditu ondoren artikuluetan.

HMIParen iradokizun batean oinarriturik, bizileku eraikin berri orok izan beharko du **bizikletak eta motorrik gabeko ibilgailuak uzteko leku bat**. Analisian aipatu dugun bezala, oso ekintza positiboa iruditzen zaigu, adostasun eta parte hartze handia izan duen plan batek babestua. Hala bada, ikuspegi sektorialetik begiratuta egindako gomendio batzuk jaso dira HAPNan, generoaren ikuspegiaren kasuan proposatzen dugun bezala.

## 2.2 HMPIAREN IRAKURKETA GENERO IKUSPEGITIK BEGIRATUTA.

HMIParen dokumentuetan eskasiak sumatu dira generoaren ikuspegiari dagokionean, generoaren alorrean arrakala batzuk ikusezin uzten baititu mugikortasunarekin loturiko beharrak, arrazoiak eta erabilerak bezalako kontuetan.

> *(...) Hiri eredu horren oinarria da ibilgailu pribatuaren mende egoteko beharra ezinbestean eta errepideetan zein garraio azpiegituretan inbertsio handiak egin beharra eskatzen du. Espazio publikoa, bizikidetza bezalako balioen oinarria zena, funtsezko balioak hirian bizitza osasungarria izateko, hartu egin dute automobilek eta haren ondorioek (zarata, kutsadura, espazio fisikoaren okupazioa, hiriaren irudia...). Egile batzuen iritziz, funtsezko okerra izan da kaleen eta plazen sistema batik bat ibilgailuen zirkulaziorako erabiltzea, eta gure hirien egungo gainbehera eragin du horrek*[12].

Eskainitako estatistika datuetan sexuaren arabera bereizitako daturik ez dagoela aipatu behar dugu berriz ere, EAEko eta estatuko berdintasun legeetatik etorritako eskakizuna bada ere hori. Egoera bat ezin da konprenitu egoera horrek barnean duen aniztasunari erreparatzen ez bazaio.

Baina bestalde, hemen esan nahi dugu datuen bereizte hutsa beharbada ez dela aski izango egoera bat ulertzeko. Batzuetan gogoeta egin behar da egiten diren galderen inguruan. Inés Sánchez de Madariagak[13] **"zaintza alorreko mugikortasuna"** kontzeptua garatzen duen testu baten zati bat jaso dugu ondoren, egoera hori deskribatzen baitu bertan:

> *Garraio estatistikek teknikoki **"derrigorrezko bidaiak"** deitzen dietenak, lantokira eta ikastetxeetara egiten diren bidaiak, bezain beharrezkoak eta derrigorrezkoak dira erosteko, autonomia pertsonalik ez duten pertsonei laguntzeko, paperak kudeatzeko edo etxeko konponketak bideratzeko egiten diren bidaiak. Ibilbide poligonalak deskribatzen dituzten bidaiak dira, tipikoki maskulinoak diren etxebizitza-lantokia bidaia pendularrak ez bezala, eta gainera, askotan, kateatu egiten dira hainbat bidaia-arrazoi direla medio elkarri lotutako ibilbide sailak eratuz.*

---

[12] "El tiempo de las cerezas. Reflexiones sobre la ciudad desde el feminismo" Isabel Velázquez (2000)

[13] "Vivienda, movilidad y urbanismo para la igualdad en la diversidad" Inés Sánchez de Madariaga (2009).

*Halatan, generoaren ikuspegitik begiratuta, oso baten moduan uler liteke zaintzarekin eta erreprodukzio sozialarekin loturiko bidaien multzoa. Gaur egungo estatistikek bereizi egiten dituzte arrazoi askoren arabera, eta guztizko bidaien portzentaje txiki bat osatzen du horietako bakoitzak: laguntzea, erosketak, kudeaketak eta abar. Mugikortasuna deskribatzeko modu horrek balioa kentzen dio zaintza bidaien pisuari, osotasunean hartzeko aukerarik ematen ez duelako. Aitzitik, hainbat arrazoirengatik egiten diren bidaia askotan bereizten dira, eta horrela bereizita ikustean, badirudi ez dutela garrantzirik edo ez dutela pisu erlatibo nahikoa mugikortasunaren guztizkoan.*

*Alabaina, multzo askoz ere zabalago baten barnean daude bidaia horiek, eta esan liteke arrazoia zaintza dela, aterki-arrazoi gisa hartuta, hauxe da, familia zaintzeko lan desberdin horietatik guztietatik etorritako beste arrazoi espezifiko horien batura. Erosketak egiteko, kudeaketak egiteko, pertsonei laguntzeko eta abar egiten diren bidaiak bidaien guztizkoaren portzentaje txiki baten moduan ageri dira gaur egun, lanarengatik egiten diren bidaien azpitik nabarmen. Hala ere, ezusteko bat baino gehiago eramango dugu zaintzagatik egiten diren bidaia guztiak batera hartzen baditugu.* ***Aukera emango digu ikusteko zaintza alorreko mugikortasunak mugikortasunaren guztizkoan duen pisu erreala enplegu alorreko mugikortasunarekin pareka daitekeela, gaur egun adituen iritziz lan arrazoiengatik egiten dena baita mugikortasun arrazoi nagusia, eta hala den aldetik, horixe da garraio sistemak planifikatzeko orduan erabiltzen den irizpide nagusia.***

*Gorago aipaturiko lanean garraio estatistiketan zaintza alorreko mugikortasunaren kontzeptu berri hori aterki-arrazoi gisa sartzea proposatu dut, etxeko lanekin loturiko arrazoi guztiak (erosketak, pertsonei laguntzea, kudeaketak, besteak zaintzea eta abar) biltzen dituelako. Hala ere, bidaia horien kuantifikazio eta deskribapen zuzena ezin da lortu besterik gabe gaur egun estatistiketan erosketak, laguntza lanak, kudeaketak eta abar egiteko bidaia gisa ageri diren datuak batuta, zaintza alorreko bidaiak gutxiesten dituzten hutsune batzuk baitituzte estatistikek. Batzuetan ezkutatu egiten dituzte beste izen batzuen pean, eta besteetan, besterik gabe, ez dute informazioa jasotzen ez dutelako garrantzitsutzat jotzen.*

*Izan ere, estatistikek ez dituzte jasotzen oinez egiten diren bidaia txikiak, tipikoki femeninoak direnak; ez dituzte behar bezala deskribatzen bidaia kateatuak, tipikoki femeninoak horiek ere; handiegia da “besteak” deitutako saski-naskia eta zaintza alorreko bidaia ugari ezkutatzen ditu barruan. Azkenik, ez dituzte behar bezala bereizten bidaia pertsonalak eta aisialdian egiten direnak etxeko lanak direla-eta egiten direnetatik, eta horren ondorioz, bidaia*

*pertsonal edo aisialdiko bidaia gisa ageri dira zaintza alorreko bidaia ugari. Aisialdiko bidaiak zaintza alorreko bidaietatik behar bezala bereizteko eta "besteak" deituriko saski-naskian zer dagoen jakiteko, galdera zehatzak egin behar dira, galdera xeheak eta ez anbiguoak, etxeko lan ugariekin eta beste pertsonen zaintzarekin loturiko bidaia arrazoien aldaerak behar bezala islatu ahal izateko.*

Erredakzio talde hau bat dator hemen deskribatzen den ikuspegiarekin: lan arrazoiengatik edo ikasketengatik egiten direnak bezain "derrigorrezkoak" dira zaintza lanetik etorritako bidaiak. Aldiz, beste pertsonak zaintzeko arrazoi hori ez da garrantzitsutzat hartzen edo, kasurik hoberenean ere, ez du izen propiorik izaten. Datu bilketan dagoen eskasi horren ondorioz, **mugikortasun azterketetan nagusi da lan arrazoiengatik egiten den mugikortasuna**, eta hori bat dator gure hiriak **produkzio munduak markatzen dituen hirigintza planen** bidez planifikatzeko ikuspegiarekin.

## 2.3 AGENDA 21 AIPAGAI IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK FINKATZEKO BABES GISA

Aipatzekoa da Plan Nagusiaren Hasierako Onarpenerako Antolamendu Memoriaren dokumentuan **plangintza estrategikoko dokumentu izaera ematen zaiola Tokiko Agenda 21i eta harekin lotzen dela**. Ekintza Planaren Proposamena jaso da gainera, eta antolatzerakoan oinarritzat hartu diren gaikako 4 pakete handiak ere zehaztu dira:

> *Hainbat mailatan* ***aurreikuspen eta plangintza estrategikoak*** *eskatzen dituzten bi prozesurekin loturik dago ezinbestean Plan Nagusiaren berrikuspena: Tokiko AGENDA 21, haren dokumentua eta Ekintza Plana jadanik onartuak daude, eta IRUN 2020 PLAN ESTRATEGIKOA, Plan Nagusiaren Aurrerakinarekin batera idazten hasi zena.*
>
> *(...) 2007ko otsailean onartu zen Agenda 21en Ekintza Planaren Proposamena, eta halako ildo estrategiko batzuk jaso ziren hartan, gaikako lau pakete handiren inguruan antolatuak, hauxe da,* ***Gizartearen eta Bizi-kalitatearen Garapena****, Mugikortasuna eta Garraioa, Lurralde Antolakuntza eta Ingurumena eta Ingurumen Bektoreak, gai horiek gaingiroki bat etorririk diagnostikoan aztertutakoekin.*

## 2.4 AGENDA 21EN IRAKURKETA GENERO IKUSPEGITIK BEGIRATUTA.

Tokiko iraunkortasun printzipioa da Agenda 21en oinarri teorikoa, eta horrenbestez, haren helburua da justizia soziala, ekonomia iraunkorra eta inguru iraunkorra lortzea, denboran iraungo duen oreka erdietsi eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Munduko ekintza plan gisa sortu zen Agenda 21 garapen iraunkorra bultzatzeko, eta honako alderdi hauek sustatzen ditu, besteak beste: **emakumearen papera ingurumenaren antolakuntzan eta haren erabateko parte hartzea izateko beharra garapen iraunkorra lortu ahal izateko**. Ekosistemen antolakuntzan eta ingurumenaren hondamenaren aurkako borrokan emakumeak parte hartzea proposatzen du. Hori dela-eta, hainbat konbentzio egin eta onartu ditu nazioarteko komunitateak (OITrena eta UNESCOrena, esate baterako). Horien helburua da sexu arrazoiengatik dagoen era guztietako diskriminazioa baztertzea eta lurren baliabideetan eta beste baliabide batzuetan parte hartzeko eta hezkuntza eta enplegu segurua edukitzeko aukera izatea, berdintasun baldintzetan izan ere[14].

Ekimen horrek eraginkorra izaten jarraitzen du 1994an egindako Aalborgeko (Danimarka) Konferentziaren bidez, Hiri Iraunkorren Europako Biltzar gisa ezagutzen dena, Agenda 21en aurreikusitako printzipioak zehaztu baitziren hartan; hiriek eta herriek, historian zehar, gure gizarte eta kultur eredua eratzerakoan izan duten papera onartu zen, eta berriro ere nabarmendu zen **“zuzentasun soziala” ezinbestekoa dela hiri iraunkortasuna lortu ahal izateko**.

Tokiko Agenda 21 – Txingudi dokumentuari dagokionean, eta analisi honetan zerikusia duenari begira, zera esango genuke:

- **Berariazko aipamenik ez zaio egiten emakumearen betekizunari** (eta hala egin beharko luke gorago adierazi den bezala).
- **Genero ikuspegia ez da aintzat hartzen idatzian**, hori garbi ikus daiteke, esate baterako, sexuen arabera ez direlako bereizi datuak sistematikoki, EAEko eta estatuko berdintasun legeetatik etorritako eskakizuna bada ere.

Esan liteke Tokiko Agenda 21 honetan ere galdu egin dela emakumea agerian jartzeko aukera. Baina egin daiteke horren guztiaren irakurketa positiboa ere: bi hamarkada igaro ondoren, eta Tokiko Agenda 21 bezalako prozesuei esker, jarduera administratiboan aintzat hartzen bada “iraunkortasunaren” kontzeptua, nork bere egin eta aktiboki bultzatzen bada, aukera hori aprobetxatu beharko litzateke

[14] “Declaración de Río” (1992)

**"iraunkortasun sozialaren"** bidez generoaren ikuspegia sartzeko. Beharbada egungo egoera sozioekonomikoak lagundu egingo du ardatz hori indartzen, Tokiko Agenda 21 bezalako prozesuetan baztertuenetako bat gure iritziz.



# 3 MAINSTREAMINGA, HIRIGINTZA ETA GENEROA: II. BERDINTASUN PLANAREN KASUA ETA IRUNGO HIRI DEBEKATUAREN MAPA.

## 3.1 IRUNGO II. BERDINTASUN PLANA

Generoaren arabera bereizitako datu ezaren eta ikusezintasunaren inguruko analisian aipatutakoaz harantzago, Irungo II. Berdintasun Planaren[15] azterketan sumatu dugu eskasi bat dagoela plan horretan, eta gure iritziz, horrek eragina izan du diagnostikoan eta Plan Nagusia berrikusteko prozesuan helburuak finkatzeko orduan. Planaren egituran hirigintza arloa ez egoteaz ari gara.

Izan ere, 7 arloren inguruan egituratu zen Plana:

- 1. Arloa. Berdintasuna administrazio araudian eta jardueran.
- 2. Aroa. Emakumeen ahalduntzea eta parte hartze sozio-politikoa.
- 3. Arloa. Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna.
- 4. Arloa. Emakumeen aurkako indarkeria.
- 5. Arloa. Gizarteratzea.
- 6. Arloa. Tolerantzia, Lankidetza eta Gazteria.
- 7. Arloa. Kultura, euskara eta jarduera fisikoa eta kirola.

Ez dakigu zergatik ez zen sartu hirigintzarekin, hiriarekin edo hiri mugikortasunarekin loturiko atalik **udal arlo guztiak tartean sartu nahi zituen Berdintasun Plan** baten egituran.

> *Plan integrala da eta horrexegatik Udaleko udal arlo guztiak sartu nahi ditu tartean, eta horrez gain, udalerrian lan egiten duten gainerako erakundeen eta eragileen parte hartzea, koordinazioa eta lankidetza izan behar du, Berdintasunerako Batzordean ordezkatutako Emakumeen Elkarteena bereziki.*

[15] Irungo III. Berdintasun Plana idatzi zen garai berean idatzi zen txosten hau. Plan horren azterketa baztertu egin da, II. Planaren erredakzioa HAPNaren berrikuspena egin zenean burututako diagnostiko prozesuaren garai berekoa izatea baloratu baitugu analisi honetan.

Izan ere, **zeharkakotasun nahia (“mainstreaminga”)** azaltzen da Planaren printzipioen eta ezaugarrien barnean:

> *Irungo Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planean esku hartzeko estrategia gisa hartzen dira ekintza positiboa eta genero ikuspegia edo mainstreaminga, kontuan izanik bi estrategia horiek beharrezkoak direla berdintasuna bultzatzeko.*

Pentsatu nahi dugu ez dela Plana bultzatu zuen Arloaren interes ezaren edo ahalduntze faltaren isla izan, baizik eta inertzia baten ondorioa dokumentu sektorizatu batzuen erredakzioan, zeharkakotasun nahia izan arren, horietan hiriaren generoarekiko harremanak bere esparru espezifikoa baitu Hiri Debekatuaren Mapa bezalako lanetan.

## 3.2 HIRI DEBEKATUAREN MAPA

Hiri Debekatuaren Mapa egitea izan da sarritan Udalen lehen hurbilketa beren udalerriak genero ikuspegia aintzat hartuta interpretatzeko. Dagoen hiriaren analisi kualitatiboa egiteko ate bat zabaldu dute Udal askotan profesionalek, udal langile teknikoek eta herritarrek segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, espazio publikoan dagoen ordezkaritza sinbolikoa edo hiri eredua bera bezalako kontuen inguruan, parte hartzeko metodologia berrien bidez, egindako baterako gogoetek.

Talde honen iritziz, gogoeta eta prestatze **prozesuetan beretan dago dokumentu horien balio handiena**, prozesu horiek benetan parte hartzaileak eta profesionalen, udal langile teknikoen eta herritarren artean partekatuak diren neurrian, esan den bezala.

Prozesuaren balioari aipamen hori egiten diogu, **eraginkortasunaren ikuspegitik begiratuta Mapa horien inguruan egiten den balorazio orokorrarekin kontrajarrita**, batik bat adierazleek inguru eraikia edo urbanizatua egokitzeko obren arabera neurtzen dutenean lan horien emaitza.

Irungo Hiri Debekatuaren Mapa, 2011. urtean zehar egina, II. Berdintasun Plana baino geroago horrenbestez, izan zen Irungo Udalaren lehen urratsa genero ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintzari begira. Gorago esan den bezala, eta Hirigenmap azterketak egin zuen diagnostiko orokorrean ez bezala, Irungo Hiri Debekatuaren Maparen kasuan **nabari da zeharkakotasuna, Berdintasun Arloa eta Hirigintza Arloa tartean sartzen dituena**, eta espero dugu dokumentu hori eraginkorra izango dela sumatutako arazoak baztertzeko edo arintzeko bederen.

Ildo horretatik, Irungo Hiri Debekatuaren Maparen edukiak Plan Orokorraren dokumentuan jasotzeko aukera planteatzen du talde honek, arestian aipaturiko puntu horiek planean sartzea dagozkien Plangintza Esparruen fitxetan. Puntu hau xeheago azalduko dugu Neurri Zuzentzaileen dokumentuan.

# 4 "HASIERAKO ONARPEN DOKUMENTUA IDAZTEKO PLANGINTZA IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK" DOKUMENTUAREN AZTERKETA.

**Hasierako onarpen dokumentua idazteko Plangintza Irizpideak eta Helburuak** dokumentua da, 2010eko martxoan onartua, Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berriaren oinarria.

Hainbat dokumentuk osatzen dute eta **Plangintza Irizpideak eta Helburuak** izenekoa da horietan lehenengoa, **Planeamenduko Aholku Batzordeak** 2009ko azaroa eta abendua artean onartua, eta sei ataletan banatua dago:

A – IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

B – HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK ZORU URBANIZAEZINEAN

C – SISTEMA OROKORREN SAREEN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

D – ETXEBIZITZAREN INGURUKO IRIZPIDEAK

E – JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUKO IRIZPIDEAK

F – OLABERRIAKO HARANAREN ANTOLAMENDUA

Irizpide horiez gainera, Herritarrek Parte Hartzeko Prozesuan herritarrek eta talde politiko eta sozialek iradokitako aldaketak jasotzen ditu, eta baita instituzioek eta erakundeek proposamenaren hainbat alderdiren inguruan ezinbestean egin beharreko Txostenetan planteatutako kontu batzuk ere. Horrenbestez, hainbat lan-talderen adostasunaren eta gogoetaren emaitza da dokumentu hori.

Zera adierazten du testuak "*2009ko bigarren erdialdean **Planeamenduko Aholku Batzordean** aurrera eramandako Aurrerakinaren proposamenen inguruko eztabaida eta elkarrizketa prozesua, halako **aldaketa, zuzenketa eta zehaztapen** batzuen bidez egindako gogoeta lanak, islatu dira dokumentu honetan, eta horrek guztiak aukera eman du Plan Nagusia Berrikusteko Irizpide eta Helburu nagusiak elkarren arteko akordioz finkatzeko*".

Plan Nagusiaren (HAPN) zehaztapenak **Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planarekin** (HMIP) –une hartan idazten ari zena- koordinatzeko eta egokitzeko beharrarekin lotuta dago sartutako aldaketetako bat.

Irizpide eta Helburu Orokorrak ageri dira dokumentuan, gaika antolatuak (goian aipatu ditugunak) eta halako Irizpide Zonal batzuk ere, eremuen arabera banatuak. A eta D puntuetan oinarrituko dugu dokumentu honen analisia, planak oinarri dituen irizpide eta helburu orokorren eta etxebizitzari buruzko irizpideen inguruan, hain zuzen ere.

## A – Irizpide eta Helburu Orokorrak berrestea

Irizpide eta helburu orokorrak berresteko garaian, Plan Nagusiaren Berrikuspen berri hau justifikatzeko funtsezko arrazoiak aipatzen dira, eta hainbat hirigintza egoera berri eta jarduera ekonomikoetarako zoru berriaren beharra dira arrazoi nagusiak. Beste arrazoi batzuk ere aipatzen dira, honako hau, esate baterako: "*ingurumena babesteko irizpide berrietara egokitzeko beharra, Agenda 21en eta haren Ekintza Planaren iraunkortasun irizpideak jaso ahal izateko*".

Berrikuspenaren garaian egindako dokumentua da, eta horrenbestez, aberasgarria eta egokia da sartzea. Agenda 21en garai berekoa da Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Plana ere, baina hura ez da zerrendan jaso.

Berrikuspena egiteko beharra berresteko aipatzen diren faktoreen artean, hazkunde demografikoa eta jarduera ekonomikoetarako zorua areagotzeko beharra azaltzen dira batik bat.

2024. urtea da Plan Nagusiaren epemuga, eta berretsi egiten dira Aurrerakinaren Memorian egindako hazkunde demografikoaren aurreikuspenak.

Honako hauek aipatzen dira Irizpide eta Helburu negusi gisa:

> A-05 1. Helburua. Bide espazioa berrantolatzea hiriko mugikortasuna hobetzeko.
>
> A-06 2. Helburua: Burdinbide Esparrua berrantolatzea.
>
> A-07 3. Helburua: Lurzoru aukera berriak eskaintzea ekonomi jardueretarako.
>
> A-08 4. Helburua: Lurzoru berria jartzea etxebizitzak egiteko.
>
> A-09 5. Helburua: Espazio libreak eta ekipamenduak zabaldu eta osatzea.
>
> A-10 6. Helburua: Ingurumena babestu eta arautzeko irizpideak harmonizatu eta egokitzea.

Lurraldeko esparru arau-emailea aipatzen da, hainbat plan estrategikoz gainera. Horien artean daude Agenda 21, 2020 Plan Estrategikoa eta aldameneko udalerriekin bateragarri egiteko planak.

Aurrerakinari dagokionean egindako aldaketetako bat, **PLAN BERRIAREN ARDATZ** gisa aipatzen dena, **IRAUNKORTASUN** irizpide eta printzipioei dagokiena da.

***<u>IRAUNKORTASUNA PLAN BERRIAREN ARDATZ GISA</u>***

*Hiriko alde eta elementu zehatz batzuk berriro diseinatzerakoan, Hirigintza Iraunkorrerako estrategia erabiltzea eta baldintzatzaile batzuk kontuan hartzea etorkizuneko garapenen eraginkortasuna eta iraunkortasuna bermatu ahal izateko:*

***A-12 Garatzeko zoru berriak aurkitzeko zailtasunaren aurrean kontuan hartu beharreko irizpideak.***

***A-13 Bideetako arazoak konpontzeko kontuan hartu beharreko ingurumen irizpideak.***

***A-14 Garapen berrietan aintzat hartu beharreko ingurumen irizpideak.***

***A-15 Hirigintza erabilerarako zoru hazkundean iraunkortasun irizpideak aplikatzea.***

***A-16 Zoru urbanizagarri berria gehitzeak biztanleria kopuruaren hazkundearekin duen lotura.***

***A-17 Zoruaren erabileran eraginkortasun irizpideak aplikatzea.***

Ekonomia eta ingurumen alorretan bermatzeaz gainera, **irizpide sozialetan oinarritzen da iraunkortasuna**. Dimentsio anitzeko prozesu gisa ulertzen dugu garapen iraunkorra, sistema ekonomikoan, ekologikoan eta sozialean du eragina eta guztiz aintzat hartu beharreko aldagaia da politika ekonomikoko erabakietan (Brundtland Txostena “Gure Etorkizun Komuna”, 1987).

Askotan alderdi soziala ahantzi egiten dute garapen iraunkorraz hitz egiten dugunean. Horregatik, uste dugu dokumentuaren puntu hau guztiz egokia izango zela, ingurumen irizpideez gainera, **iraunkortasun sozialaren irizpideak sartzeko, barneratze irizpideak horien artean**.

Plan Nagusiak ukituriko zoruaren kuantifikazioa dute aipagai gainerako kontsiderazioek.

## D – Etxebizitzaren inguruko irizpideak

Etxebizitzen inguruko irizpideei dagokienean, hauxe da dokumentuak dioena:

*Etxebizitzari dagokionean, berretsi egin dira Aurrerakinean planteatutako* ***lehentasunezko bi Helburuak****.*

*a)* ***Bizileku zoru berriak eskaintzea*** *zoru eskaintza* ***agortu*** *edo moteldu* ***ez dadin*** *datozen urteetan ez ezik, biztanleria proiekzioetan jaso diren epeak bete bitarte ere.*

*b)* ***Babes erregimen mota desberdinetan etxebizitzak eskaintzea****, dagoen gizarte eskariari erantzuteko eta Legeak finkatutako estandarrak betetzeko.*

*Horretarako, honako* ***Oinarrizko Irizpide hauek*** *hartuko dira kontuan:*

*a)* ***Hiriko hiri-ehunean oraindik eskura dauden lursailak aprobetxatzea****, eremu hondaturen bat suspertzen laguntzeko eta arazoak edo eragozpenak sortzen dituzten erabilerak ordezkatzeko.*

*b)* ***A-8 autopistaren Iparraldean oraindik okupatu gabe dauden lurrak baliatzea erabilera honetarako,*** *bizileku erabilera ezartzeko egokiak izan bailitezke eta kokaleku erakargarri bilaka baitaitezke.*

*c) Oraindik garatu gabe dauden esparru batzuetako zehaztapenak* ***legearen eta antolamenduaren eskakizun berrietara egokitzea.***

*d)* ***Etxebizitzen berritzea bultzatzea*** *hirigintza araudien bidez.*

*e) Bizileku eskaintzaren* ***tipologia aukera zabaltzea*** *Legearen eskakizunetara egokituta.*

Helburuak nahiz haiek lortzeko irizpideak guztiz arrazoizkoak dira: bizileku erabilerarako zoru berriak eskaintzea sendoturiko hiri-ehunetik hurbil dagoen zorua baliatuta, etxebizitzen berritzea bultzatuz eta tipologia eskaintza zabalduz, horixe da ohiko gomendioetako bat hirigintza generoaren ikuspegia aintzat hartzeko kontua aztertzean.

Egin diren berregokitzapenek aprobetxamendua areagotu egin dute planteatutako esparru batzuetan. Esparru horien xehetasunak ezagutu gabe, positiboa da horren inguruan egiten dugun irakurketa: eraikuntza dentsitate handiagoak, sendotutako hiri-ehunetik hurbil “*zoruak lortu beharra eta bide azpiegiturak nahiz espazio libreen sistema orokorren azpiegiturak egiteko beharra begi bistatik kendu gabe*”, bermatu egiten du, teorian bederen, inguru egokia izango dela. Geroagoko Plan Partzialak dira

esparru berriak dagoen testuinguruan behar bezala egokitu daitezen bultzatu beharko dutenak.

Tokiko Agenda 21etan eta Hirigintza Planetan Generoaren Ikuspegia Aintzat hartzeko Metodologia Gidan, Kanarietako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak idatzia hura, honako irizpide hauek aipatzen dira[16]:

**Hiri zorua sailkatzeko irizpideak:**

- Hiri zorua izatean **ez da urruti egongo jada sendoturiko hiri saretik,** lortu den hiri garapen eredua sakabanatu ez dadin.
- Hiri sare autonomo orok beharko ditu bere **ekipamenduak eta zerbitzuak**, hiriaren gainerakotik independentea izan dadin oinarrizko beharrei dagokienean.
- Edozein eremu hiri zoru gisa sailkatzeak berekin eramango du hiriaren gainerakoarekin lotuko duen **garraio publikoaren sistema** ezartzeko beharra.
- **Tarteko espazioak** antolatzeak lehentasuna izango du plangintzaren gauzatze ordenan.

**Zoru urbanizagarria sailkatzeko irizpideak:**

- **Hiri zoru gisa sailkatutako lurren aldamenean** egongo da urbanizagarri gisa sailkatutako lurren azalera.
- Plangintzak zoru urbanizagarri kategoria desberdinei esleituriko azalerak eta aprobetxamenduek ere aintzat hartu beharko dituzte hiri ereduaren barnean aurreko faseetan planteatutako genero helburuak.

Etxebizitza beharren ebaluazioari dagokionean, aipatzen da Lurralde Antolamendurako Gidalerroek proposaturiko balioen barnean geratzen dela kuantifikazioa. Gidalerro horiek finkaturiko gehiengotik hurbil dagoen kopurua eskaintzen dute ebaluazio horrek nahiz etxebizitzen eskariaren kuantifikazioak eta etxebizitza hutsen kontsiderazioek eraiki beharreko etxebizitzen kontaketatik kanpo uzten dituzte haiek.

---

[16] Guía Metodológica para la Incorporación de la Perspectiva de Género en las Agendas 21 Locales y los Planes de Urbanismo en Canarias. Consejería de Medioambiente y Ordenación territorial. 2005.

## Irizpideen eta Helburuen dokumentuko genero ikusezintasunaren ondorioak

Horixe da Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berria idazteko oinarritzat hartu den dokumentua. Kuantifikatu ezin diren ondorioak ditu bere atalean aipatu duten ikusezintasun horrek: ezin dugu jakin Planak zein alde izango zituen hiriaren analisiari eta diagnostikoari beste geruza bat erantsi izan balitzaio, edo irizpide eta helburu orokorren eztabaidetan gai horiek sartu izan balira. Bai balora dezakeguna da **edukiko genuen Irunen irudia osoagoa izango zela genero ikuspegiaren aldagaiak aintzat hartu izan balira**.

# 5 "ANTOLAMENDU MEMORIA" DOKUMENTUAREN AZTERKETA

**A Dokumentuak, Antolamendu Memoria**, laburbiltzen du aurrez egindako lana eta forma ematen dio Planari. Honako kapitulu hauetan banatua dago:

| | |
|---|---|
| 1. Kapitulua | Sarrera eta Aurrekariak |
| 2. Kapitulua | Esparru sozioekonomikoa |
| 3. Kapitulua | Inguru Fisikoa eta Ingurumena |
| 4. Kapitulua | Lurralde esparrua eta estrategia |
| 5. Kapitulua | Hiri egitura eta Zoruaren kudeaketa |
| 6. Kapitulua | Komunikazio sareak |
| 7. Kapitulua | Etxebizitza |
| 8. Kapitulua | Jarduera ekonomikoak – Hirugarren sektoreko erabilerak |
| 9. Kapitulua | Espazio libreak eta Ekipamendu publikoak |
| 10. Kapitulua | Zerbitzu azpiegituren sareak |

Memoriaren dokumentua aztertuko dugu oinarritzat hartu dituen dokumentuak (Hirigintza informazioa, Diagnostikoa, Plangintza aurrerakina eta Irizpideak eta Helburuak) aintzat hartuta.

*Plan Orokorraren dokumentu osoa hitzarturiko Irizpide eta Helburuekin bat datorren edo ez zehazteko, jakin bedi zehatz-mehatz errespetatu direla eta xuxen-xuxen islatu dela haien edukia Plan Orokorraren kapituluetako bakoitzean, haren Memorietan eta haren Planoetan*[17].

Dokumentu horrek bere egiten du, beraz, Plangintzaren Irizpide eta Helburuen dokumentuan esandako guztia, eta gabezia berberak ditu horrenbestez.

*Plan Orokorraren berrikuspena bi prozesurekin lotuko da ezinbestean, maila*

[17] Antolamendu memoria

*desberdinetan aurreikuspen eta plangintza estrategikoa inplikatzen zutenak: Tokiko AGENDA 21, haren dokumentua eta Ekintza Plana jadanik onartuak daude, eta IRUN 2020 PLAN ESTRATEGIKOA, Plan Orokorraren Aurrerakinarekin batera idazten hasi zena*[18].

Dokumentuaren analisiak ez digu inolako argudio berririk eskaintzen: generoaren ikusezintasuna berretsi egiten du Plana idazteko prozesuan. Gai bakoitzari eskainitako orrialdeen kuantifikazioak eman diezaguke haietako bakoitzak Berrikuspenean duen pisuaren ikuspegia:

- Bide azpiegiturak: 11 orrialde.
- Jarduera ekonomikoak eta hirugarren sektorekoak: 14 orrialde.
- Laguntza + Osasun + Gizarte-Kultur ekipamenduak: 4 orrialde.

Hiriaren plangintzan ez denez aintzat hartu generoaren ikuspegia, plangintza horretan ez dago, esate baterako, udalerriko Berdintasun Planek aipatzen duten desabantaila egoera hori murrizteko inolako proposamenik.

Orain dela 10 urte baino gehiago Irunen lortutako konpromiso politikoa gogora ekarriko dugu jarraian:

*Irunen 28.581 emakumezko eta 27.291 gizonezko bizi direla eta legeak bi sexuen arteko berdintasuna jasotzen badu ere, eguneroko bizitzan desberdintasunak jasan behar izaten dituztela emakumeek, bidegabekeria eta eragozpen historikoen ondorioz, eta horrenbestez desabantaila egoeran daudela inguru hurbileko gizonei dagokienean.(...)*

*Irungo Udalak herritarren bizi baldintzak hobetzen joateko interesa duela, bi generoen arteko aldeak gero eta txikiagoak izan daitezen eta etorkizunean berdintasunean oinarrituriko gizartea lor dadin.*[19]

---

[18] Antolamendu memoria

[19] Udalbatzak 2001eko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran hartutako akordioaren testua. Orduan onartu zen Irungo emakumeentzako Ekintza Positiboko Udal Plana 2001-2005.

Ez dugu esaten sentsibilitate falta dagoenik, baizik eta zeharkakotasun eraginkorragoa bultzatu behar dela. Hasteko, parte hartzen duten arloen beharren eta helburuen bateratze lana egin liteke Plan Nagusi batean planteatzen diren prozesu estrategikoak elkarren artean diseinatu ahal izateko.

# 6 "HIRIGINTZA ARAUEN" DOKUMENTUAREN AZTERKETA.

Hirigintza Arauen dokumentua da Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak bete beharreko esparru arau-emailea definitzen duena. Hainbat zati (titulu) ditu, eta ondoren aipatu eta azalduko ditugu:

**Atariko Titulua: Plan Nagusiaren Aplikazioaren Inguruko Izaera Orokorreko Xedapenak**

0.1. Kapitulua.-Plan Nagusiaren Aurreikuspenen aplikazioa

0.2. Kapitulua.-Hirigintza Antolamenduari Gainjarritako Baldintzatzaileak

Atariko Tituluan azaltzen da HAPN nola hasiko den indarrean eta nola aplikatuko den eta beste berrikuspen bat egiteko zein baldintza bete beharko diren ere adierazten da. Zein dokumentuk osatzen duten eta bertan azaldutako zehaztapenen maila zein den esaten du halaber.

**Ez dugu bidezkotzat jo titulu honetan aldaketak edo hobekuntzak sartzea.**

**Lehen Titulua: Plangintza garatu eta bideratzeko Erregimen Juridikoa**

1.1. Kapitulua.- Zoruaren Sailkapena

1.2. Kapitulua.- Hirigintza Antolamendua maila juridikoan gauzatzeko Erregimen Orokorra

1.3. Kapitulua.- Eraikigarritasuna esleitzeko Erregimen Orokorra

1.4. Kapitulua.- Plangintzaren garapena

1.5. Kapitulua.- Urbanizazioa gauzatzeko Erregimen Orokorra

1.6. Kapitulua.- Eraikuntza gauzatzeko Erregimen Orokorra

Lehen Tituluan, erregimen juridikoari eskaintzen zaiona hura, zoruaren sailkapena, eraikigarritasunaren esleipena eta plangintza garatzeko tresnak zehazten dira.

Gainera, urbanizazio obren edukiak eta gauzatzeko baldintzak finkatzen dira, eta baita eraikuntzak gauzatzekoak ere.

**Oinezkoentzako eremuen diseinurako irizpideen inguruko artikuluak aztertuko ditugu.**

**Bigarren Titulua: Zoruaren Kalifikazioa**

2.1. Kapitulua.- Hirigintza erabilerak

2.2. Kapitulua.- Kalifikazio globala

2.3. Kapitulua.- Kalifikazio xehea

Bigarren Tituluan hirigintza erabilerak eta haien kategoriak zein diren azaltzen da, eta kalifikazio globalaren eta xehearen berri ematen da halaber.

**Ez dugu bidezkotzat jo titulu honetan aldaketak edo hobekuntzak sartzea.**

**Hirugarren Titulua: Lursail Eraikigarrien eraikuntza eta erabilera Baldintza Orokorrak**

3.1. Kapitulua.- Ordenantzak aplikatzeko oinarrizko definizioak

3.2. Kapitulua.- Bizileku erabilerako lursailetan aplika daitezkeen Erabilera Baldintza Orokorrak

3.3. Kapitulua.- Bizileku erabilerako eraikinetako lokaletan aplika daitezkeen Bizigarritasun Baldintza Orokorrak

3.4. Kapitulua.- Bizileku erabilerako eraikinetan estetika tratamendurako Baldintza Orokorrak

3.5. Kapitulua.- Jabarirako Baldintza Orokorrak bizileku erabilerako eraikinetan

3.6. Kapitulua.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen Eraikuntza eta Erabilera Baldintzak

3.7. Kapitulua.- Irisgarritasun Baldintza Orokorrak bizilekurako eraikuntzetan

Hirugarren Tituluan, berriz, zein baldintzatan lan egingo den zehazteaz gainera, eraikuntzarako baldintza orokorrak definitzen dira.

**Diseinurako irizpideak definitzen dituzten artikuluak aztertuko ditugu horrenbestez.**

**Laugarren Titulua: Erabilera xeheko eremuak arautzeko Ordenantzak**

4.1. Kapitulua.- Bizilekua Alde Zaharrean (RA)

4.2. Kapitulua.- Bide Ondoan Lerrokaturiko Bizilekua (RV)

4.3. Kapitulua.- Bizileku Kolektiboa Blokean (RB)

4.4. Kapitulua.- Bizileku Kolektiboa Lursailean (RP)

4.5. Kapitulua.- Bizileku Familiabakarra Lursailean (RU)

4.6. Kapitulua.- Bizileku Familiabakar Atxikia (RD)

4.7. Kapitulua.- Bizileku Komunitarioko Lursailak (RC)

4.8. Kapitulua.- Sestrapeko aprobetxamendua eta azaleran erabilera publikoko zortasuna duen Bizileku Espazio Libre Pribatua (RS)

4.9. Kapitulua.- Bizileku Espazio Libre Pribatua sestrapeko aprobetxamenduarekin (RK)

4.10. Kapitulua.- Bizileku Espazio Libre Pribatua (RL)

4.11. Kapitulua.- Industria Lursailean (IP)

4.12. Kapitulua.- Industria Kolektiboa (IC)

4.13. Kapitulua.- Zerbitzu Publikoen industria (IS)

4.14. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Hotela (TH)

4.15. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Merkataritza (TC)

4.16. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Bulegoak (TO)

4.17. Kapitulua.- Hirugarren sektorea Garajeak (TK)

4.18. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Gasolindegia (TG)

4.19. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Garraioa (TT)

4.20. Kapitulua.- Hirugarren sektorea Aisia (TE)

4.21. Kapitulua.- Eskola Ekipamendua (EE  EP)

4.22. Kapitulua.- Kirol Ekipamendua (ED  EJ)

4.23. Kapitulua.- Instituzio Ekipamendua (EI)

4.24. Kapitulua.- Osasun Ekipamendu Publikoa (EM)

4.25. Kapitulua.- Laguntza Ekipamendua (EA  EL)

4.26. Kapitulua.- Kultur Ekipamendua (EC)

4.27. Kapitulua.- Erlijio Ekipamendua (ER)

4.28. Kapitulua.- Zerbitzu Publikoen Ekipamendua (ES)

4.29. Kapitulua.- Aduana Ekipamendua (EN)

4.30. Kapitulua.- Hornidura bizilekuak (AD)

4.31. Kapitulua.- Zehaztu Gabeko Ekipamendua (EX)

4.32. Kapitulua.- Bide Sistemak Autopista (VA)

4.33. Kapitulua.- Hiri arteko Bideak eta Egituratzaileak (VI / VE)

4.34. Kapitulua.- Hiri Bide Banatzaileak eta Tokiko Bideak (VD / VL)

4.35. Kapitulua.- Bide Sistemak Aparkalekua (VP)

4.36. Kapitulua.- Bide Sistemak Bide Pribatuak (VK)

4.37. Kapitulua.- Burdinbide Komunikabideak. Trenbideak (FV)

4.38. Kapitulua.- Burdinbide Komunikabideak. Geltokiak (FE)

4.39. Kapitulua.- Ibaiak eta Errekak. C Eremuetako Lursailak (Cc Cf Cr)

4.40. Kapitulua.- Espazio Libreak (LP LJ LL LK)

4.41. Kapitulua.- Zerbitzu azpiegiturak

**Neurri Zuzentzaileen dokumentuan aldaketak sartzeko modua aztertuko dugu.**

**Bosgarren Titulua: Zoru Urbanizaezinean aplika daitezkeen Ordenantzak**

5.1. Kapitulua.- Izaera Orokorrez Zoru Urbanizaezinean aplika daitezkeen Xedapenak

5.2. Kapitulua.- Zoru Urbanizaezinean baimendutako erabileren ezarpena arautzen Duten Ordenantzak

**Ez dugu bidezkotzat jo titulu honetan aldaketak edo hobekuntzak sartzea, Hiri Zorura mugatu garelako.**

Hirigintza Arauen dokumentua aztertzerakoan zein puntu hartu ditugun kontuan azalduko dugu ondoren.

## a 1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.

Oso deigarria gertatu zaigu ondoko artikulu hau:

***1.5. Kapitulua.- Urbanizazioa gauzatzeko Erregimen Orokorra***

***1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.***

*1.- HMIPan oinarriturik, gomendatzen da, lehen aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan jasotzea oinezkoentzako ibilbideen oinarrizko sarerako diseinurako arauak eta gutxieneko parametro estandarrak ere, oinezkoentzako ibilbideetarako gutxieneko sekzioei dagozkien arauak garatuta, eta baita irisgarritasun irizpideak ere.*

*2.- Era berean, erabilera ibilgailu motordunekin partekatua duten eremuak deiturikoetan zirkulazioaren eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da eta “S28” moldeko abiadura muga ezarriko da, muga hori baitagokie bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleei, kale horiek lehenengo oinezkoentzako izanik. Horietan halako zirkulazio arau berezi batzuk ezartzen dira, esate baterako, gehienez ere orduko 20 km-ko abiadura ibilgailuentzako, oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa gidarientzako, beharreko seinale eta markek bereziki adierazitako lekuak ez direnetan aparkatzeko debekua ibilgailuei, oinezkoentzako baimena zirkulazio eremu osoa hartzeko, baina ibilgailuen gidariei alferrik traba egin gabe, eta kale hauetan jokoak eta kirolak egiteko baimena.*

*3.- Era berean, zirkulazio eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da ibilgailu motordunekin partekatzen diren eta “S28” moldeko abiadura muga duten eremuetan. Bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleak dira, lehenengo oinezkoak ibiltzeko direnak. Horietan aplikatu beharreko zirkulaziorako arau bereziak honako hauek dira: orduko 30 km-koa da ibilgailuentzako abiadura gorena eta oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa dute gidariek. Era berean, bideak tratatu eta erregulatzeko aukera desberdinak onartutako abiaduren arabera garatuko dira, oinezkoei emaniko lehentasunek argituz eta bigarren txirrindulariak indartuz.*

1.5.5 eta 1.5.7 puntuek *Bizikleta bideen diseinuaren inguruko irizpideak eta Zirkulazioaren erregulazioaren, trafikoen koexistentziaren eta segurtasunaren inguruko*

*irizpideak* jasotzen dituzte. Hauxe da, **Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planetik** abiatuta garatu dira hiru artikulu horiek, eta testuinguru horretan ulertu behar ditugu horrenbestez. Hala ere, harrigarria da oinezkoentzako eremuen inguruko irizpide bakarrak mugikortasunaren ikuspegitik begiratutakoak izatea. Oinezkoentzako espazio publikoaren alderdietako bat besterik ez da mugikortasuna.

Espazio publikoa partekatu egiten da hirian, bizi egiten da bertan, eta horrenbestez, hiri bateko oinezkoentzako eremuak dira jendeak erabiltzen dituenak, haietan bizi da jendea. Ikuspegi barneratzaileak asko du espazio publikoari eskaintzeko eta uste dugu artikulu horretan atal gehiago sartu beharko liratekeela aberasteko. **Neurri Zuzentzaileen dokumentuan puntu hori zabaltzea proposatzen dugu horrenbestez**.

## b 3.1.2. Artikulua.- Eraikuntza aprobetxamendua kontatzeko irizpideak

Eraikuntza aprobetxamendu gisa eraikineko zein espazio kontatzen diren eta zein ez diren zehazten du artikulu honek. Ohikoa den bezala, balkoien, terrazen, etxe-eguteren eta kanpoaldera irekiak dauden karrerapeen kasuan, azaleraren % 50 kontatzen da. Elementu horiek, besteak beste, oso erabilgarriak dira etxean egiten diren lanak bideratzeko orduan.

> *Etxebizitza baten zatien eta ekarpenen kontsiderazio erabilgarri sinplifikatua dela-eta, pixkanaka-pixkanaka galdu egin dira alferrikakotzat, erabilerarik gabekotzat edo zehaztugabetzat hartzen diren espazioak, galeriak, terrazak, espazio erdi irekiak, esate baterako, baina etxebizitzari erabilera egokikorragoak emateko aukera ematen dute horiek, pribatuaren eta publikoaren artean trantsizio eta erlazio esparruak sortuz, eta bero-hauspo gisa jarduten dute era berean. Bitarteko espazio horiek ezinbestekotzat hartu behar dira, eta berotasuna hobetzeko eta energia aurrezteko ekarpena egiten dutenez,* ***haien azalera kontatu gabe utzi liteke eraikigarritasunean,*** *epe luzera dituzten eragin positiboei balioa emanez. Horregatik, ezinbestekoa da etxebizitza orok izatea bere kanpo espazioa*[20]*.*

[20] “Reflexiones para proyectar viviendas en el siglo XXI”. Zaida Muxí eta Josep María Montaner. 2012.

Zaida Muxí eta Josep María Montaner bezalako egile ospetsuek, esate baterako, proposatzen dute espazio osagarri (edo bitarteko) horiek ez kontatzea eraikigarritasunean, eraikuntza berriko etxebizitzetan era horretako elementuak egongo direla bermatzeko. Uste dugu ondo aztertu behar dela gai hau; izan ere, balkoi handiak zituzten eraikinak izatetik etxebizitza bakoitzean kanpo elementurik gabeko eraikinak izatera pasa gara azken hamarkada hauetan. Gai honen inguruan egingo dugu gogoeta Neurri Zuzentzaileen dokumentuan.

## c 3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra.

Artikulu honek, bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak nola ezarri behar diren finkatzeaz gainera, HMIPak iradokitako atal bat sartzen du:

> *5.- Irizpideak eta araudia bizikletentzako aparkalekuen horniduraren inguruan.*
>
> *HMIPan oinarriturik, gomendatzen da aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan diseinurako arauak eta gutxieneko estandarren parametroak sartzea eraikin publiko eta pribatuan bizikletak Aparkatzeko. Eraikuntza berrietan, edozein dela ere haien erabilera, bizikletak aparkatzeko lekuak zehazteko beharreko baldintzak jasoko dira horietan. Plaza kopurua eta neurriak, sarbidea, lotzeko gailuak eta haien babesa jasoko dira horien artean.*
>
> *Ordenantza honen arau zuzenean lotesle gisa, eta edozein izanik ere Mugikortasunaren Ordenantza espezifikoaren onarpenetik etor daitekeen geroko garapena, Plan Orokor honen arabera eraikiko diren bizileku eraikuntza berri horiek izango dute bizikletak aparkatzeko eta ibilgailu motorgabeak edukitzeko eremu bat. Honako hauek dira kontuan hartuko diren gutxieneko neurriak, 1,5 m² etxebizitza bakoitzeko, gutxienez 1,5 metroko luzera eta 2,0 metroko altuera. Esparru horretarako sarbidea ahalik eta zuzenena izango da kanpoaldetik eta betiere egokia motorrik ez duten ibilgailuentzako.*
>
> *Aurreko atalekoak duen arau maila berdinarekin, dagoen bizileku eraikin batean berritze lan sakonak egiten badira, aurreko irizpide hori kontuan hartu beharko da, eta arau hori osorik edo neurri batean ezin bada bete, eskakizun horiek ezin bete izateko arrazoiak azalduko dira, eta beste alternatiba batzuk agertuko dira*

*bizikletak eta motorrik gabeko gainerako ibilgailuak etxebizitzetan sartzeko. Era berean, bizileku erabilerak ez direnetarako eraikuntza berri guztiek izango dute bizikletak aparkatzeko esparru bat, kanpotik zuzenean sartzeko modukoa, eta eraikuntza horrek izango duen erabileraren araberako plaza kopurua izango du.*

Berriro ere ikusten dugu etxebizitza eraikinetan ere eragina duten soluzioetara eramaten gaituela hiri mugikortasuna bezalako arazo bati erreparatzeak, horietan derrigorrez egin beharko baita erabilera komunitarioko leku bat **bizikletak uzteko**. Inolako zalantzarik ez dago, hiri mugikortasuna hobetzeaz gainera, soluzio horrek hobetu egingo duela neurri handi batean pertsona askoren eguneroko bizitza. Baina guztiz harrituta utzi gaitu, soluzioa HMIPetik etorri izan arren mugikortasun arazo bati erantzuna emateko, harantzago ez joan izanak: bizikletez gainera, leku seguruan eta ondo babesturik utzi beharko lirateke haur-kotxeak edo erosketak eramateko orgatxoak ere. Artikulu horrek berak bere eragin onuragarria handitu lezake hain espezifikoa ez izanda eta dituen helburuak zabalduta.

Gai hau xeheago aztertuko dugu Neurri Zuzentzaileen dokumentuan.

## d 3.2.4. Artikulua.- Dauden eraikuntzen Bizileku Lursailetan beheko solairuko edo tarteko solairuko lokalak erabiltzeko baldintzak.

Dauden eraikuntza sendotuetako bizileku erabileren ezarpena arautzen du artikulu honek. Beheko solairuan etxebizitza erabilera ezartzeko eraikuntzak bete behar dituen baldintzak zehazten ditu horrenbestez.

Artikulu honetan ez dira zehazten etxebizitzetarako bizigarritasun baldintzak, 3.3.2. artikuluan ageri dira horiek, eta horrenbestez, puntu horren inguruan egingo diren analisian eta neurri zuzentzaileetan aztertuko ditugu.

Aipatzen diren gainerako baldintzen artean, nabarmentzekoa da esekitokien protagonismoa. Kasu honetan, kontua denez beheko solairuan etxebizitzak ezartzea, araudiak ziurtatu egin nahi du etxebizitzan esekitokia izatea edo lehorgailu bat jartzeko aukera izatea, eta hori zuzena iruditzen zaigu etxebizitzaren erabileraren ikuspegitik begiratuta. Baina ikuspegi estetikotik begiratuta hartzen da gaia, arropa zabaldua

kaletik ikusi ez dadin ahaleginak egiteko. Hala ere, sukaldeko leihoaren aurrean xaflaz osaturiko esekitokia jartzean, sukalde horiek askotan ez dute argi natural aski izaten.

Uste dugu merezi duela gai hau aztertzea Neurri Zuzentzaileen dokumentuan.

## e 3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun irizpideak.

Etxebizitzaren eta hura osatzen duten lokalen programa eta gutxieneko neurriak zehazten dira artikulu honetan, osasungarritasunaren, argitasunaren eta antolakuntza funtzionalaren baldintzez gainera.

Etxebizitza eredu baten programa genero ikuspegia aintzat hartuta aztertzeko orduan ezinbestean onartu behar da familia unitatea, eta horrenbestez, etxeen osaera ez dela uniformea. Ahalik eta familia aukera gehienetara egokitzeko moduan proiektatu beharko lirateke etxebizitzak. Baina ez hori bakarrik, familia batean urteetan zehar gertatzen diren aldaketetara egokitzeko modukoak izan beharko lirateke. Horrek halako malgutasun bat eskatzen dio etxebizitzari, eta gutxienekoak birpentsatu eta oinarrizko programa berrikusi egin behar dira horrenbestez.

Estatistikoki[21] etxeen erdia bakarrik badator ere bat seme-alabak dituen bikote ereduarekin, familia konbentzionalentzat pentsatuak daude eraikitzen diren etxebizitza gehienak. Era horretako etxebizitzek, ordea, errealitatearekin bat ez datorren familia hierarkia islatzen dute askotan: hiru logelako etxebizitzak, horietako bat bere bainugelarekin, egongela handia eta sukalde oso txikia.

> *Bizileku tipologiei dagokienean, desfase handia dago familiako eta banakako bizitzaren egungo formen, pertsonen bizi-ziloen bilakaeraren eta etxebizitzen barne banaketen artean. Hirigintza araudiek eta higiezinen industriaren egiteko moduek tipologia konbentzionalak sortzen dituzte eta horiek etenik gabe errepikatzen dira, familien eta pertsonen helburuak eta beharrak bat ere kontuan hartu gabe.*

---

[21] Datu berriagorik izan ezean, EUSTATen arabera, 1991. urtean 8.585 ziren seme-alabak zituzten familiak eta 2001ean 8.273ra jaitsi zen kopuru hori. Aldiz, pertsona bakarrekoak, 1991. urtean 1.926 izatetik 4.330 izatera pasa ziren 2001ean, bikoitza baino zertxobait gehiago horrenbestez.

[22] Urbanismo con perspectiva de género, Inés Sánchez de Madariaga, Instituto Andaluz de la Mujer, 2004.

*Etxebizitza oso elementu garrantzitsua da egitura sozialean, bitartekotzaren logikatik jarduten du, sozializatu egiten du eta isolatu aldi berean, espazio publikoarekiko bereizketa eratzen du, dispositibo sozialak berregiteaz gainera... Bi tratamendu izan ditu "bizitza pribatuak" ... lehenengoa, gizonezkoen ikuspegitik begiratuta, familia bizitzaren bildutasunean oinarritua, betebehar eta prestazio publikoetatik at. Bigarrena, emakumezkoen ikuspegitik begiratuta, familia esparruarekin eta ugaltze funtzioarekin identifikatzen bada ere, publikotik erretiratzeko baldintzarekin gozatuko ez duena espazio horretan eskubide osoko kide izan ez delako...*[23]

Adecco Fundazioak familia gurasobakarren inguruan egindako txostenak ematen dituen datuen arabera, familia horien kopurua % 78 handitu da 10 urtetan, eta hamarretik 9tan emakumea da buru[24].

Proiektu aitzindaria da **Frauen-Werk-Stadt**, etxebizitza protagonista duena, Vienako Udaleko Frauen Büro (Emakumearen Idazkaritza) delakoak 1996an bultzatutako proiektua. Emakumeen esperientzian oinarrituta proiektatutako etxebizitza multzo horrek bizitza pertsonala eta familia nahiz lan bizitza bateratzen ditu banaketa espazial eta funtzionaletik. Hainbat adinerako aurreikusiak dira espazio publikoak, etxebizitzak malguak dira, publikoaren eta pribatuaren artean badira elkarreragina bultzatzen duten tarteko espazioak eta arreta handiz aztertu da segurtasuna.

*Diseinuan jaso behar ziren hainbat printzipio jasotzen zituen proiektuak, eta emakumeek adierazitako eguneroko bizitzari buruzko ikuspegiak izan arren, gizonen eta haurren bizi-kalitatea hobetzen ere laguntzen zuten. Printzipio horiek ez zuten emakumea berariaz aipatzen, baina hainbat familia motaren eguneroko errutinak islatzen zituzten, eta baita bizitzako fase desberdinak ere, espazioa modu malguan erabiltzeko aukera eskatuz*[25].

Gaian adituak diren beste egile batzuek, Zaida Muxík eta Josep María Montaner-ek, esate baterako, egin dute gogoeta gai honen inguruan **"Reflexiones para proyectar viviendas del siglo XXI"**[26] **edo "Recomanacions per a un habitatge no jeràrquic ni**

---

[23] Pensar la vivienda. Artículo "La trastienda del espacio privado: género y vivienda" Soledad Murillorena.

[24] Adecco fundazioa. Bere web orriko Argitalpen saila: http://www.fundacionadecco.es/_data/SalaPrensa/Estudios/pdf/299.pdf

[25] Infraestructura para la vida cotidiana: el proyecto modelo Frauen-Werk-Stadt. Chris Booth, Sheffield Hallam University, 2002.

[26] "Reflexiones para proyectar viviendas del siglo XXI", Zaida Muxí eta Josep María Montaner **dearq 06.** 2010eko uztaila.

**androcèntric”**[27] bezalako argitalpenetan. Etxebizitza honela definitzea proposatzen dute “*esparru espezializatuen, ez espezializatuen eta osagarrien multzo gisa, eta aurreikusitako biztanleen kopuruaren eta ezaugarrien arabera zehaztuko dira haren prestazioak*”. Era berean, etxebizitzak bete beharko lituzkeen hainbat irizpide kualitatibo azaltzen dituzte. Horietako batzuk aipatuko ditugu ondoren: bere kanpo espazioa, hierarkizaziorik ez, erreprodukzio lanerako espazioak, produkzio lanerako espazioak, biltegirako espazioak, egokigarritasuna, …

Sukaldearen kontua oso eztabaidatua izan da hainbat forotan ukitu denean. Etxe batean beti ere sukaldea da erreprodukzio lan gehienak egiteko lekua. Azken urte hauetan pixkanaka-pixkanaka murrizten joan da, ordea, sukaldearen tamaina eta etxean gertatzen diren gainerako ekintzen ezkutuan eta bakarrik lan egiteko leku bilakatu da gaur egun. Sukaldea egoteko lekuekin elkartzea ere ez da konponbide egokia generoaren ikuspegitik begiratuta, lanerako eremu hori aisiarako eremu batekin (etxeko egongela esate baterako) lotzen bada, lan horietaz arduratzen den pertsonak ez bailuke erabateko atsedena izango.

> *Etxeko alderdi konbentzionalenetan edo merkatukoetan ageriko eta higiezintzat hartzen dira funtsezko hainbat ezaugarri, gune estanku eta ia monofuntzionaletan banatzea, esate baterako. Etxebizitzetako programa funtzionalak, etxeko lanetarako guneak, gutxienekotzat hartzen dira, sukaldea eta garbitegia izanik horiek, bat ere eztabaidan jarri gabe gainerako jarduerekin eta espazioekin loturiko eskakizunak eta funtzionaltasunak, ezta haien tamaina eta antolakuntza ere. Eguneroko etxeko lanetarako atera diren teknologia eta tresna berriek erabilerak zehaztea eta kontsumo handiagoa sortzea ekarri dute berekin, baina espazioen ezaugarriak ez dituzte funtsean aldatu, eta ezta haiekiko erantzukizunak ere. Aisiarako eta atsedenerako lekua da etxea, baina era berean, lantokia ere bada ia emakume guztientzat*[28].

Artikulu horren idatzian ontzat ematen dira, gure iritziz, zaharkituak dauden edo indarrean dagoen araudiaren kontrakoa adierazten duten hainbat balio kuantitatibo. Esate baterako, ateen gutxieneko zabalerak (ez dute irisgarritasun legea betetzen) edo lokalen aireztapenak (1975eko arau zaharkitu bat aipatzen da). Erratak izango dira akaso eta betiko dokumentuan zuzendu egingo dira beharbada, baina etxebizitzaren inguruan ez dela hausnarketarik egin adierazten dute, proposamenak egiteko inolako

[27] Recomanacions per a un habitatge no jeràrquic ni androcèntric, Zaida Muxí. Col·lecció: Eines (Institut Català de les Dones) ; 13. Generalitat Catalunya.

[28] Recomendaciones para una vivienda no jerárquica ni androcéntrica. Zaida Muxí Martínez.

jarrerarik ez erakusteaz gainera. Ez dugu ahantzi behar hemen onartutako arauen iraunaldia urte askoan luzatuko dela.

Gogoeta horiek guztiek Neurri Zuzentzaileen dokumentuan hobekuntzak proposatzera eramango gaituzte, hobekuntzak artikuluan proposaturiko bizigarritasunaren gutxienekoetan, balio kualitatiboetan ez ezik, balio kualitatiboetan ere.

## f 3.3.3. Artikulua.- Etxebizitzetan sartzeko erabilera komuneko espazio eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak.

Etxebizitza eraikinetako eremu komunen barneko hiru elementu definitzen dira puntu honetan: atariak, eskailerak eta igogailuak.

Elementu horiek dira kanpoko espazio publikoa eta espazio pribatua, etxebizitza, bereizten dituztenak, eta bereziki interesgarriak dira dokumentu honen azterketaren ikuspegitik begiratuta. Aipaturiko **Frauen-Werk-Stadt proiektuan** hainbat gai landu ziren, honako hauek esate baterako:

- Segurtasuna: Ibilbide irekiak guztien begi bistan, sarreretan eta eskailera zuloetan, esate baterako.
- Eskailera zabalak eta argiztapen handikoak, ikuseremurik gabeko leku arriskutsurik egon ez dadin.
- Gauzak uzteko lekuak, esate baterako, bizikletak eta haur-kotxeak uzteko trastelekuak, beheko solairuan egongo dira, erraz iristeko lekuan.
- Garbitegiak eraikinetako teilatu lauetan bertan arropa zabaldu ahal izateko eta topaleku izateko.
- Eskailera bakoitzean “espazio sozialak” sortzea –horregatik lau unitate baino gehiago ez ziren ezarri solairu bakoitzeko- anonimotasuna baztertzeko eta auzokideen arteko harremanak hobetzeko. Erabilerarako eta jokorako espazio gisa diseinatu dira eskailerak, arauzkoa baino zabalera handiagoarekin eta argiztapen naturalarekin.

Segurtasunaren gaia funtsezkoa da arkitekturan genero ikuspegia aintzat hartzeko orduan. Kasu honetan erabili diren parametroak dira ikuseremua, argiztapen egokia eta sarbideen irakurketa argia.

Horrenbestez, baldintzetan alderdi horiek jaso beharko lirateke etxebizitzetako erabilera komuneko espazioak hobetzeko. Neurri Zuzentzaileen dokumentuan zehaztuko ditugu.

## g 3.3.6. Artikulua.- Garaje erabilerarako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun baldintzak.

Aurreko bi artikuluetan bezala, analisirako irizpide berdinak aplikatuko genituzke garaje erabilerarako lokaletan.

Segurtasun irizpide gisa, argiztapenak funtsezko egitekoa du espazio horietan, espazioaren argitasunaz edo irisgarritasunaz gainera.

Garaje plazen gutxieneko neurriei dagokienean, kontuan izan behar dugu ibilgailuen neurriak nabarmen aldatu direla azken urte hauetan. Horrenbestez, gutxieneko estandarra handitu egin beharko litzateke (gutxienez 4,00 x 2,00 m proposatzen du plazen % 25ean gehienez), era guztietako pertsonak: segurtasun gerrikoa lotu behar zaien haurrak, adineko pertsonak, emakume haurdunak, mugitzeko arazo iraunkorrak edo behin-behinekoak dituzten pertsonak eta abar, errazago sartu ahal izateko ibilgailuan.

Kontu hau Neurri Zuzentzaileen dokumenturako uzten dugu horrenbestez, hartan zehaztuko baititugu garaje erabilerarako lokaletarako proposamenak.

## h 3.4.4. Artikulua.- Esekitokien tratamendua.

Esekitokiez mintzatzerakoan, bi gairen inguruan hitz egin nahi dugu batik bat: eraikin baten ezaugarri estetikoez hitz egiten denean ematen zaien arreta handia eta etxe barrutik izan daitekeen ikuseremua oztopatzeari ematen zaion garrantzi txikia.

Azken hamarkada hauetan, esekitokiak ezkutatzeko elementuak gai garrantzitsu bilakatu dira fatxada bat osatzerakoan. Hori dela-eta, eraikitzen ari diren etxebizitza eraikinetan, arropa zabaldua kanpotik ikusi ez dadin, elementu erdi-opakoak jartzera

iritsi gara, gehienetan sukaldeetatik ikuseremua oztopatu arren. **Halatan, etxeko lan ikusezinaren esparru bilakatu dira sukaldeak, kanpoko espaziora bat ere ikuspenik gabe.**

Sukaldeen kasuan bezala, gai eztabaidagarria izan liteke hau, etxeko lan guztia emakumeak egiten duela uste izateagatik, baina lehen aipatu dugun bezala, kontua da pertsonen eguneroko bizitza hobetzea, duten eginkizuna edozein dela ere.

## I 3.6. Kapitulua.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen Eraikuntza eta Erabilera Baldintzak

Bizileku erabilera ez duten lursailen erabilera baldintzak zehazten dira kapitulu honetan, baina **Laugarren Tituluan.- Erabilera xeheko eremuak arautzen dituzten Ordenantzak**, zehazten dira lursail bakoitzaren baldintza espezifikoak.

**Karga eta deskargarako guneetara eta aparkaleku horniduretara mugatzen dira** bigarren artikuluan aipatzen diren baldintza orokorrak. Artikulu horren aplikazioa oso globala da ordea: bizileku erabilera ez duten lursailak. Egoera ugari biltzen ditu horrek, baina uste dugu komenigarria dela **ekipamenduekin** zerikusia duten alderdi batzuen inguruan gogoeta egitea eta honek puntu egokia ematen du horretarako.

Zaida Muxík eta Josep Maria Montaner-ek “**Usos del tiempo y la Ciudad”** lanean adierazten duten bezala[29]

> *Historikoki egin den hiriaren kontsiderazio partziala dela-eta, plangintzan baztertu egin da erlazioen eta beharren konplexutasun hori, eta zenbaki eta estatistika baldintza huts gisa hartu dira, bizileku zoruaren erreserban, espazio publikoan, ekipamenduetan, berdeguneetan, merkataritza eta industria guneetan islatzen direnak, arlo baten eta bestearen artean dagoen mendekotasun lotura hori batere kontuan hartu gabe.*
> *(...)*
> *Ekipamenduek, edozein direla ere duten erabileraren ezaugarriak, tarteko espazioak sortu behar dituzte, gerizpean jartzeko, topaleku eta itxaron leku izateko aukera emango duten eremuak; gardenak izan behar dute; jarduera sortu behar dute kalerantz; identifikatzeko eta iristeko errazak izan behar dute*

[29] Usos del Tiempo y la Ciudad.Josep Maria Montaner i Martorell eta Zaida Muxí Martínez, arkitekto doktoreak. Bartzelonako Udala.ISSN 2013-4142

*eta agerian egon behar dute. Espazio eta eraikin publiko onek, eraikitzen dituen gizartearen isla baitira, pertsona guztien beharrak eta esperientziak hartu behar dituzte kontuan beren eraikuntzan eta egituraketan.*

Herritarrek duten hiriaren pertzepzioa, begien parekoa da funtsean. Gai honen inguruan gogoeta hori egiten du Manu Fernandezek bere “Ciudades a Escala Humana” blogean[30]:

*Giza eskala begien parekoa da funtsean hiri batean, oinezkoaren abiaduran begirada iristen den lekua. Gorantz eraikitako eraikinak ere hiria dira, jakina, baina altuera horiek ez ditu ikusten eguneroko begiradak. Noski, garraiobideetan igotzen bagara ere, eraldatu egiten da begirada eta distortsionatu egiten dira oinezkoaren abiaduran ikus daitezkeen xehetasunak. Halaz ere, kale oineko fatxada hori da kaleei bizitasuna ematen diena –alderdi sozial eta ekonomikoetan eta beste hainbatetan dituen ondorioekin-.*
*(...)*
*Hala ere, kontuan izan behar da, munta txikiko esku hartzeek eragin izugarriak izan ditzaketela kostu aski txikian, esku hartze handiak egiteko beharrik gabe. Kalean erabilera publikoak bultzatzeko, ez dira derrigorrez esparru irekien hornidura berriak eraiki behar. Erabilera mistoak bultza daitezke merkataritza azalerak hornitzeko modu tradizionalarekiko hurbilketa alternatiboekin, etxebizitza eraikinetara sarbideak diseinatuta edo espaloien eta bideen arteko lotura birpentsatuta.*

Ekipamenduez gainera, **industri erabilerako lursailek** ere eragin handia dute hiriaren egituraketan: hiriak hazi egiten dira, hiriaren aldirietako industria eremuak xurgatu eta hiri sarearen barruan geratzen dira, horrek berekin daramatzan arazoekin. Irungo kasuan, industria lursailez gainera, **trenbideek eta haiekin loturiko eraikinek** osatzen duten oztopoa dugu, hiriko **aduana** erabilerak sortutako inguruaz gainera, horrek, noski, biderkatu egiten du kasuistika. **Mugikortasunarena eta segurtasunarena** dira horren inguruan landu beharko genituzkeen gai nagusiak.

Alde batetik, Irungo Udala idazten ari den Mugikortasunaren Ordenantzak bermatu egingo du bideen dimentsionamenduaren eta ezaugarrien egokitasuna. Nolanahi ere, azpimarratu behar da, oinezkoen erabilerarako egokitu behar direla batik bat erabilera motordunarentzat pentsatutako egiturak. Merkataritza guneetako edo industria

[30] “La Ciudad a Pie de Calle”, sarrera Manu Fernandezen “Ciudades a Escala Humana” blogean, Meredith Glaser, Mattijs van 't Hoff, Hans Karssenberg, Jeroen Laven eta Jan van Teeffelen-en “The city at eye level. Lessons for street plynths” liburuaren inguruan.

erabilerako lursailetako aparkalekuek oinezkoen segurtasuna bermatu beharko lukete ibilbide osoan, baita aparkalekuaren barnean bertan egiten dena ere.

Neurri Zuzentzaileen dokumentuan azalduko ditugu puntu hau hobetzeko gure proposamenak.

## j Laugarren Tituluari buruz: Erabilera Xeheko Eremuak arautzeko Ordenantzak

Erabilera Xeheko Eremuak arautzeko Ordenantzek zehazten dituzte eraikuntza erregimena, eraikuntzaren baldintzak, erabilera erregimena eta jabari erregimena. Laburpen fitxa eta beharreko oharrak ere jasotzen ditu dokumentuak. Hirugarren Tituluan zehaztutakoaren arabera idatzi da hori guztia, eta **horrenbestez, honetan aldatutako Kapituluen aipamen puntualetara mugatuko dira Laugarren Titulurako proposatuko ditugun aldaketak**. Xeheago ikusiko dugu Neurri Zuzentzaileen dokumentuan.

# 7 "PLANGINTZA ESPARRUEN" DOKUMENTUAREN AZTERKETA.

Udalerria banatuta dagoen esparruen fitxa xeheek osatzen dute Plangintza Esparruen dokumentua. Honako egitura hau erabili da hura definitzeko:

ESPARRUAREN IZENA ZENBAKI IDENTIFIKAZIOA

HIRIGINTZA BURUBIDEAK

1. Deskribapena
2. Antolamendurako Irizpide eta Helburu Nagusiak
3. Hirigintza Erregimen Estrukturala
4. Hirigintza Erregimen Xehea
5. Gauzatzeko Erregimen Espezifikoa
6. Hirigintza Antolamenduari Gainjarritako Baldintzatzaileak

Honako plangintza esparru hauetan banatu da udalerria:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 0.2.01 | Geltoki Ingurua | 5.2.15 | Francisco de Gainza |
| 1.1.02 | Araso Iparraldea | 5.2.16 | Aldapeta |
| 1.1.04 | Zaldunborda | 5.3.03 | Bidasoa |
| 1.1.06 | Gabiria | 5.3.06 | Istillaga-Dunboa |
| 1.1.10 | Araso Iparraldearen luzap. | 5.3.10 | Fermin Calbeton |
| 1.1.11 | Oiantzabaletaren luzapena | 5.3.11 | San Juan-Etxeandia |
| 1.1.12 | Araso-Sasikoburua | 5.3.13 | Korrokoitz |
| 1.1.13 | Atalaia | 5.3.14 | Papinea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1.1.14 | Semezarrengo Malda | 5.3.19 | Pedro de Hirizar |
| 1.2.01 | Tesa | 6.1.01 | Lartzabal |
| 1.2.02 | Araba Mendebaldea kalea | 6.2.01 | Oinaurre |
| 1.2.03 | Elatzeta | 6.2.02 | Oña |
| 1.2.06 | Andrearriaga | 6.2.06 | Txenperenea |
| 1.2.08 | Ugalde-Katea | 6.2.08 | Alei |
| 1.2.13 | Katea erdialdea | 6.2.09 | Hegoal. Ingurab. eta Lotura |
| 1.2.14 | Araba Ekialdea kalea | 6.3.01 | Alarde |
| 1.3.01 | Porcelanas Bidasoa | 6.3.03 | Gain Gainean |
| 1.3.10 | Belasko eraikina | 6.3.08 | Eguzkitzalde |
| 1.3.11 | Arretxeko Malda | 7.1.01 | Osinbiribil |
| 2.1.05 | Urdanibia-Zubieta | 7.2.02 | Altzukaitz |
| 2.1.07 | Jaizkibel egoitza | 7.2.04 | Arbes |
| 2.1.08 | Zabaleta | 7.2.05 | Ermita |
| 2.2.03 | Wagon Lits | 7.2.08 | Matxalagain |
| 2.2.05 | Mugica | 8.1.02 | Azken Portu |
| 2.2.06 | Decoex S.A. | 8.1.03 | Artia |
| 3.1.01 | San Migel-Anaka | 8.1.05 | Jose Mª Franco |
| 3.2.09 | San Migel ekipamenduak | 8.1.07 | Gazteluzahar |
| 4.2.03 | Iparralde-Gal | 8.1.11 | Harrobieta |
| 4.2.04 | Recondo-Iparralde | 8.2.03 | Ernautenea |
| 4.2.05 | Santiago Urtizberea | 8.2.05 | Blaia |
| 4.2.07 | Kostorbe | 8.2.06 | Gazteluberri |
| 5.1.01 | López de Becerra | 8.2.07 | Gaztelu |
| 5.2.04 | Mendibil | 8.3.04 | Lastaola Postetxea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5.2.06 | Arizmendi almirantea | 8.3.05 | Mendipe |
| 5.2.08 | Kasinoa | 8.3.12 | Pausu |
| 5.2.09 | Ikust Alai | 9.1.01 | Urune |
| 5.2.10 | Artaleku | 9.1.02 | Epele |
| 5.2.14 | Miren-Nekane lursaila | | |

Esparru horietako bakoitza definitu da Plan Nagusiaren testuan. Hantxe zehazten dira lursail bakoitzaren eraikigarritasuna, hirigintza sailkapen globala, baimendutako erabileren araberako xehetasunak, zortasunak eta eremu bakoitza garatzeko gainerako baldintzatzaileak.

Plangintza Esparruen definizioak ez ditu **irizpide edo definizio berriak sartzen**, baizik eta aurreko arauetan definitutakoa laburbiltzen du haietako bakoitzerako. Horrenbestez, uste dugu, fitxa horietako bakoitzean jaso daitezkeela sartu beharreko neurri zuzentzaileak, eta esparru horretan **Hiri Debekatuaren Mapan** aipaturiko punturen bat dagoen zehaztu liteke halaber, ekintzaren eraginkortasuna bermatzeko. Neurri Zuzentzaileen dokumentuan ikusiko dugu gai hau.

# 8 "DISKRIMINAZIO ETA GENEROAREN INGURUKO TXOSTENA HIRIKO ERABILERAN". DOKUMENTUAREN AZTERKETA

2011n egindako Hiriko Erabileran dagoen Diskriminazioari eta Generoari buruzko Txostena sartu dugu analisiaren amaieran, planaren beraren prozesuaren bukaeran idatzi zelako hura. Erredakzio taldeak egindako generoaren ikuspegia sartzeko ahalegintzat hartu dugu, eta horrenbestez, positibotzat jotzen dugu **generoaren inguruko txostena idazteak xede dugun gai honi ematen dion ikusgaitasuna**.

Kapitulu honen aurreko analisia ikusita, txosten hau idatzi duen taldea ez dator bat **Hiriko Erabileran dagoen Diskriminazioaren eta Generoaren inguruko Txostenean egiten diren baieztapenen zati handi batekin**.

Haren edukia azalduko dugu ondoren laburbilduta:

Bost puntutan egituratua dago txostena:

1.- Sarrera

2.- Legezko eta Plangintzako aurrekariak

3.- Hirigintza eta Diskriminazioa generoagatik

4.- Plan Nagusi batetik ondorioa duten alderdiak

5.- Irungo Plan Nagusiaren eraginaren balorazioa

## Sarrera

Dokumentua izatearen justifikazioa egiten da sarreran, erabilgarritasunetik begiratua: diskriminazio sozialen inguruko gogoeta bultzatzeko erabilgarritasuna, konponbideak proposatzeko bideak bilatzeko erabilgarritasuna eta krisi garai hauetan hiriak birpentsatzeko erabilgarritasuna. *"Lotura arau-emailerik ez izatea"*[31], eta dokumentu

[31] *2.2. Genero berdintasunaren inguruko Araudia* puntura jotzen dugu, *Aurrekariak, Testuingurua eta Helburuak* dokumentuari dagokiona, EAEko eta estatuko Genero Berdintasunari buruzko legeek hirigintza plangintza dokumentuetan dituzten inplikazioak erakusten baitira hartan, 2005. eta 2007. urteak ezkeroztik indarrean horiek, hurrenez hurren.

honen proposamen izaera ez derrigorrezkoa aipatzen dira, osagarria izan nahi baitu, eztabaidarako irekia.

## Legezko eta Plangintzako aurrekariak

Lege esparrua eta plangintza tresnak deskribatzen dira, Plan Nagusiaren erredakzioan Plangintzako Aholku Batzordeak egin duen lana eta duen garrantzia aipatzeaz gainera. Irungo Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana aipatzen da Plan Nagusian kanpo dokumentu bat, baina osagarria, jasotzeko adibide gisa.

Plan Nagusietan Memoria hori **ez dela beharrezkoa** aipatzen da berriro ere, eta indarrean dagoen araudiaren azalpen laburra egiten da: Nazioko Gobernuaren 50/1997 Legea, bere 24. artikuluan aurreikusten baitu xedapen arau-emaileetan generoaren eraginaren txostena egiteko aukera, eta Eusko Jaurlaritzaren 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.

## Hirigintza eta Diskriminazioa generoagatik

Genero ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintzak oinarrian dituen kontzeptu nagusiak sartzen dira. Segurtasuna, irisgarritasuna, erabilera nahasketa edo espazio ez neutroa bezalako kontuak dira.

Esaten da halaber, gai batzuek zerikusi txikia dutela Plan Nagusiaren esparruan har daitezkeen erabakiekin; izan ere, **"antolamendu tresna markoaren erregulazioari ihes egiten die”.** Txostena idatzi dutenen arabera, hiriak emakumeari egiten dion diskriminazioa kuantitatiboa da eta ez kualitatiboa: “*Gizon batek behar horiek berak estali behar izango balitu, hiriak ez duelako eskaintzarik edo eskaintza egokia ez izateagatik izango lukeen diskriminazioak eragin berdina izango luke harengan*”.

Puntuaren amaieran generoagatik egiten den diskriminazioa murrizteko neurri zehatzak planteatzen ditu. Alde batetik, Eragin Sozialaren Azterketak egitea, eta bestetik, prozesu parte hartzaileak ezartzea herritarren eta udalaren arteko komunikazioa hobetzeko.

Aipatu ere ez dira egiten **Berdintasun Plana** eta **Hiri Debekatuaren Mapa**, horiek bai jasotzen baitute ikuspegi soziala eta parte hartzailea beren lan metodologiaren barnean.

## Plan Nagusi batetik ondorioa duten alderdiak

Plan Nagusiaren eskumenak, hainbat gairen inguruan egiten dituen zehaztapenak eta herritarrekiko diskriminazioari begira izan dezakeen eragina deskribatzen dira puntu honetan.

- Zehaztapen estrukturalak **Erabilerei** dagokienean: Plan Nagusiak erabilera globalak definitzen ditu, ez ordea erabilera xeheen garapena eta kokalekua. Oso murritza da dagoen hiri-ehuna aldatzeko duen gaitasuna.
- Zehaztapen estrukturalak **Espazio Publikoei** dagokienean: Planak baldintzatzaileak defini ditzake baldin eta Sistema Orokorrari badagozkio, baina definizio maila oso txikia izango da.
- Zehaztapen estrukturalak **Ekipamenduei** dagokienean: Planak baldintzatzaileak defini ditzake baldin eta Sistema Orokorrari badagozkio, baina ez da haren egitekoa hornidura erreserbarako lursailen definizio zehatza.
- Zehaztapen estrukturalak **Garraio azpiegiturei** dagokienean: Plan Nagusiak ez du ahalmenik garraio azpiegituretan eragina duten zehaztapen gehienak definitzeko. Beste estamentu batzuek ematen dituzte gehienak, eta urbanizazio proiektuetan definitzen dira gainerakoak.

## Irungo Plan Orokorraren eraginaren balorazioa

Aurreko puntuan azaldutako zehaztapenen eragina baloratzen da azken puntu honetan:

- **Zoruaren Erabileren** alorrean izan daitekeen eraginaren balorazioa: Planak proposaturiko esku hartzeak deskribatzen dira, dentsitateen egokitzapena, kokalekua eta esku hartzeen tamaina justifikatuz, beste gai batzuen artean.
- **Ekipamenduen** alorrean izan daitekeen eraginaren balorazioa: Horien barreiatze banaketa justifikatzen da.
- **Espazio Publikoen** alorrean izan daitekeen eraginaren balorazioa: Horien kokalekua eta elkarren artean duten lotura justifikatzen da, sortu behar diren espazio berriak aipatzeaz gainera.
- **Garraio azpiegituren** alorrean izan daitekeen eraginaren balorazioa: Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planean oinarriturik justifikatzen da, hura erabiltzailearengandik hurbilago baitago gai honetan.

Ondorio gisa zera esaten da “*Plan Nagusiak, irisgarritasuna oker lezaketen, eremu eraikia sakabana lezaketen edo erabilerak era monofuntzionalean pila litzaketen elementu berriak ez sartzeaz gainera*”, “*hiri-ehuna hobetu eta aberastu nahi du, eta horrekin herritar guztiei bizi-kalitate hobea eskaini nahi die hiri eremua erabiltzeko eta hartaz gozatzeko aukera handiagoak eskainiz*”.

Plana egokitzeko proposamenak egiteko orduan, aipatzen da zehaztapenek puntualak izan behar dutela, eremu zehatz bakoitzera egokituak, eta horrenbestez, dokumentua idatzi dutenek uste dute Planean ez dela inolako punturik sartu behar honen inguruan, baizik eta “*geroko garapen tresnetarako gomendioak*" izan beharko luketela.

| | |
|---|---|
|  |  |
| Patxi Galarraga Aiestaran, arkitektoa | Miren Vives Urbieta, arkitektoa |

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# III. DOKUMENTUA

# NEURRI ZUZENTZAILEAK

# 1 PROPOSATUTAKO EKINTZAK

Dokumentu honen helburua da Irungo Hiri Antolamenduko Plana ikuspegi barneratzaile batetik aztertzea, herritarren abiapuntuko desberdintasunak orekatzen lagun dezaketen araudiko puntuak antzemateko. Horrela, bada, asmoa da dokumentua aberastea eta irundarren bizi-kalitatearen alde eragingo duten tresnez hornitzea.

Azterketan, azaldu ditugun inklusitate-arauekin lerrokatzeko egokitu eta zabaldu daitezkeen planeko artikuluak aurkitu ahal izan ditugu. **Neurrien eraginkortasunari eta haiek aplikatzeko sinpletasunari eman diogu lehentasuna, zeren jakitun izan behar dugu azterketa hau berandu samar sartu dela HAPN berrikusteko prozesura.**

Zuzenketei ekiteko hiru modu proposatzen ditugu:

- Alde batetik, Hiri Debekatuaren Maparen emaitza HAPNren dokumentuan sartzea proposatzen dugu. 2. atalean azalduko dugu.
- Bestetik, 3. eta 4. ataletan, aldaketa batzuk egitea proposatuko dugu, edo, hala badagokio, beste puntu batzuk sartzea Hirigintza Arauetako eta Eremuen Fitxetako zenbait artikulutan.
- Azkenik, planean sartu nahi diren aldaketen osagarri, uste dugu gomendagarria dela eguneroko bizimoduaren kalitaterako irizpideak sartzeko gida izango den dokumentu bat egitea, HAPN garatzerakoan. Hori eraikitako hiri-ingurunean ere aplikatzekoa izan liteke. 3. atalean, dokumentu honen oinarri diren artikuluak xehatuko dira.

Aldaketak proposatuko ditugun artikuluetan, bi modutan egingo dugu: bata, aldaketa bera edo hura osatzen duten puntuak zabaltzea izango da, eta bestea, **Adierazleak eta Gomendioak** dokumentuari lotzea izango da, **Genero Irizpideak Irungo Hiri Plangintzan sartzeko**. Gida hori behar izateko arrazoia da zaila gertatzen dela gai batzuei nahitaezkotasunaren balio bat ematea, aplikatzen den lekuko azterketa espezifikoa izango baita benetan lekurako irtenbide egokia emango diguna. Haien inguruan esku hartzeko proposamena azalduko dugu aipatatutako artikulu horietako bakoitzean.

# 2 HAPN DOKUMENTUAN HIRI DEBEKATUAREN MAPA SARTZEA

Hiri Debekatuaren Mapak emandako ondorioen arabera, honako hauek dira aipatutako **segurtasun-gabeziaren arrisku-faktore nagusiak**:

- Hiri-ehun bat, hiri-nukleoan gune sakabanatuak eta hutsak dituena.
- Garraio publiko nahikorik ez dagoen gune batzuk.
- Nahiko argirik ez.
- Irisgarritasun eta ikuspen eskasa, udal ekipamendu batzuetan.
- Espaloi estuak dauden guneak.
- Lur azpiko pasabideak.
- Segurtasunik gabeko leku isolatuen identifikazioa.
- Auzo-merkataritzarik ez.

Amaierako txostenean, aurkitutako 42 leku agertzen dira, nahiz eta haietako batzuk azken bi urteotan zuzendu diren. Puntu horietako bakoitzerako, diagnostiko bat eta proposamen bat egiten da, eta, horretaz gainera, honako zein arazo dagoen zehazten da koadro batean:

- Merkataritzako behe-solairurik gabeko etxebizitza/industria-tertziarioa erabilerak nahasten diren guneak egotea.
- Inguruan zoko edo gordelekuak gertu egotea.
- Ikuspen-eremu mugatua eta entzutea eta entzun diezazuten zaila izatea.
- Gauez argi nahikorik ez egotea.
- Utziaren itxurako gunea izatea.
- Urbanizazio gutxiko lekuak izatea.
- Landarediak nahiko mantentze-lan ez daukan lekuak izatea.

Bistan denez, Plan Nagusia ez da leku egokia, landaredia mantentzeko lanen aldizkakotasuna edo dauden zoko guztiak kentzea zehazteko. **Baina gunean antzemandako arazo bati buruzko informazioa eman ahal du, eta gunean jarduteko jarraibide batzuk eman ere bai.**

**Horregatik, proposatzen dugu oraindik irtenbiderik eman ez zaien puntuak Plan Nagusian bi ataletan sartzea:**

1. Laugarren Tituluko araudiko laburpen-fitxetan. Oharren atalak egokia dirudi, gai honen aipamena egiteko eta Maparen Txostenera lotzeko.

2. Dagozkien Plangintzako Eremuetako bakoitzean. Oharpen hori *Deskribapenaren 1. puntuan* sartu beharko litzateke, eta hortik Irungo Hiri Debekatuaren Mapa dokumentuaren 1. Eranskinera igorri, eta proposatzen dugu aldi berean erants dadila Plan Nagusiaren dokumentuko eranskin gisa.

# 3 PARTZELA ERAIKIGARRIEN ERAIKITZE ETA ERABILERA BALDINTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENAK

## 3.1 1.5.6. ARTIKULUA.- OINEZKOENTZAKO GUNEAK DISEINATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEA

***1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.***

*1.- HMPIean oinarriturik, gomendatzen da, lehen aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan jasotzea oinezkoentzako ibilbideen oinarrizko sarerako diseinurako arauak eta gutxieneko parametro estandarrak ere, oinezkoentzako ibilbideetarako gutxieneko sekzioei dagozkien arauak garatuta, eta baita irisgarritasun irizpideak ere.*

*2.- Era berean, erabilera ibilgailu motordunekin partekatua duten eremuak deiturikoetan zirkulazio eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da eta "S28" moldeko abiadura muga ezarriko da, muga hori baitagokie bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleei, kale horiek lehenengo oinezkoentzako izanik. Horietan halako zirkulazio arau berezi batzuk ezartzen dira, esate baterako, gehienez ere orduko 20 km-ko abiadura ibilgailuentzako, oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa gidarientzako, beharreko seinale eta markek bereziki adierazitako lekuak ez direnetan aparkatzeko debekua ibilgailuei, oinezkoentzako baimena zirkulazio eremu osoa hartzeko, baina ibilgailuen gidariei alferrik traba egin gabe, eta kale hauetan jokoak eta kirolak egiteko baimena.*

*3.- Era berean, zirkulazio eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da ibilgailu motordunekin partekatzen diren eta "S28" moldeko abiadura muga duten eremuetan. Bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleak dira, lehenengo oinezkoak ibiltzeko direnak. Horietan aplikatu beharreko zirkulaziorako arau bereziak honako hauek dira: orduko 30 km-koa da ibilgailuentzako abiadura gorena eta oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa dute gidariek. Era berean, bideak tratatu eta erregulatzeko aukera desberdinak onartutako abiaduren arabera garatuko dira, oinezkoei emaniko lehentasunek argituz eta bigarren txirrindulariak indartuz.*

Azterketaren dokumentuan aurreratu dugun bezala, uste dugu, mugikortasun-irizpideez gainera, bestelako irizpide batzuk ere erantsi beharko liratekeela, oinezkoentzako guneak ez baitira batetik bestera mugitzeko bakarrik.

Oinezkoentzako guneetan, kaleak, plazak eta parkeak sartzen dira, eta egoteko, topatzeko, jolasteko eta paseatzeko lekuak bihurtzen dira. Horregatik, haien diseinuak eta itxurak, irisgarritasunaz gainera, eguraldiari edo segurtasunari aurre egiteko babesa bermatu behar dute. Gainera, kontuan hartu behar dugu gizonezkoak eta emakumezkoak modu askotarikoan mugitzen direla hirian: mugikortasuneko eskemek erakusten dute lanagatik egiten diren ibilbideak tokitik tokirakoak izaten direla eta, aldiz, zaintzari lotutakoak poligonalak izaten direla. Ibilbide poligonal horiek konplexutasun handiagoa hartzen dute zaintzaileak bere kargura zenbat eta mendeko gehiago dituen (umeak, adinekoak, gaixoak edo desgaitasun bat dutenak). Horregatik, ezinbestekoa da **oinezkoentzako ibilbide-sare funtzionalak eta seguruak antolatzea.**

Aldaketa egiteko, edo hobeto esanda, artikulu hori zabaltzeko, proposatzen dugu, edukia Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planera eta Irisgarritasunaren Legera lotzeaz gainera (artikuluaren 1. atalean egiten duen bezala), aipa ditzala **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleak eta Gomendioak.** Sarreran komentatu dugunez, planteatzen dugu gida hori planeko testuaren barruan hartuko diren neurrien osagarri gisa erredaktatzea. Gida horretan, gune bakoitzaren analisi eta proiektu hobe bat egiteko aukera emango duten jarraibide batzuk sartuko lirateke.

Ikus ditzagun, ondoren, zenbait adierazle, ingurua aztertzen lagunduko digutenak, kasu bakoitzean eman beharko liratekeen irtenbideak ardazteko:

# ADIERAZLE ADIBIDEA[1]

### Gune berdeen eta libreen kokapena

- Gune-sare bat osatzen al dute oinez ibiltzen direnentzat?
- Gune berdeek pertsonen topaketa eta harremanak sustatzen dituzten guneak al dira?
- Dimentsio egokia (giza-eskalan) eta konfigurazio inguratzailea al daukate emakumeei, umeei, adinekoei eta balizko erasotzaileek zaurgarritzat dauzkaten gainerako pertsonei segurtasun-sentipena bermatzeko?
- Oztoporik eta ibilgailurik gabeko gune libreak al dira?

### Azpiegiturako elementuen kokapena

- Ibilgailuak zirkulatzeko bideak bateragarriak al dira zabaleran eta bide/espaloi erlazioan handik ibiltzen diren ibilgailu eta pertsonekin?
- Oinez dabiltzanek inguruaren ikuspen argia edukitzeko moduan kokatuta al daude hiri-argiteriako elementuak?

### Espaloiak

- Neurri egokiak al dauzkate zenbait pertsona batera ibili ahal izateko (kotxetxoak, gurpil-aulkiak eta laguntzailea, erosketako orga, mugitzeko zailtasunak dituena, umea eta bere laguntzailea...)?<0}
- Material egokiak al dira irristakortasunari, koloreari, egitura-aldaketari dagokienez, ikuspen edo mugikortasun arazoak dituztenek erabil ditzaten?
- Zailtzen al dute hiri-altzariek edo txorkoek pertsonak bata-bestearekin gurutzatzea? Zenbait horrelako puntu ken genitzake?

[1] “”, Col.lectiu Punt 6-koa

## Zebra-bidea

- Oinezkoek lehentasuna al daukate bidegurutzeetan garraiobide desberdinekiko?
- Eta ekipamendu eta zerbitzuetarako ibilbideetan, ertz zabalak eta bidegurutze ikusgaiak eta zebra-bideak ondo bereizita dituztenetan?
- Aldatzen al dituzte pertsona batzuek beren ibilbideak irisgarritasun edo segurtasun kontuengatik kalea nolakoa den eta lekua zein den?
- Koordinatu al dira oinezkoentzako semaforoen denborak mugitzeko zailtasunak dituztenak igaro dezaten laguntzeko?

## Gune publikoa

- Ba al daude jolasguneak adin desberdineko umeentzat?
- Ba al dago gunerik gazteak elkar topatzeko?
- Ba al dago lasai egoteko gunerik, hitz egiteko, irakurtzeko eta atseden hartzeko aukera ematen duenik?
- Ba al dago aisia-gunerik adin desberdineko emakumezko eta gizonezkoentzat?
- Errazten al da eremu desberdin horien arteko lotura?
- Egokia al da hiri-altzarien banaketa, malgutasunez erabil daitezen?
- Zein da gune publikoaren eta eraikinetako behe-solairuen arteko lotura?
- Ba al dago komun publikorik?
- Ba al dago hondakinen gaikako bilketarik?

## Ikuspena

- Gaueko orduetan, nahiko argi ba al dago oinezkoen ibilbideetan?
- Zuzen banatuta al dago argiteria?

- Argi guztiek funtzionatzen al dute?
- Pertsonen aurpegiak identifikatu al daitezke 25 metrora?
- Nolako argiteria dago espaloietan eta oinezkoen guneetan?
- Nolako argiteria dago etxebizitzen eta beste eraikin batzuen sarreretan?
- Jarduerarik ba al dago jendea egunez nahiz gauez egotea bermatzen duena?
- Argi ikus al daiteke zure bidean aurrerago zer dagoen?
- Ba al dago ingurua ikustea eragozten duen oztoporik edo toki-elementurik? Hots, aukera ematen al dute ikusteko eta ikusia izateko?
- Erraza al da jakitea zein bide egin behar duzun?

Adierazle horiek (eta beste batzuek) hiriko oinezkoen edozein gunek eduki ditzakeen arazoetan eta hobetzeko aukeretan jarraraziko digute ardatza. Oinezkoen gunea galdera horiei erantzunez aztertzerakoan, aldagai gehiago kontuan hartuko ditugu, eta, horrela, irtenbide globalago bat eskaini ahal izango diogu aztertutako inguruari.

Ondoren, oinezkoen guneetarako zenbait gomendio orokor aipatuko ditugu.

## GOMENDIOAK[2]

### Oinezkoen guneak

- Oinez dabiltzanentzako ibilbideak lasaiak, atseginak, seguruak eta oztoporik gabekoak bihurtzea.
- Zoladura zaintzea: ondo aztertzea ea espaloien eta ibilgailuen trafikoaren zatiaren arteko bereizketa desnibelaz ala desnibelik gabe egingo den.

[2] Zaida Muxíren eta Josep Maria Montanerren “Usos del tiempo y la ciudad” eta Col.lectiu Punt 6-ko “Construyendo entornos seguros desde la perspectiva de género” dokumentuetako gomendioetan oinarrituak.

- Zolatzeko aukeratutako materiala askotarikoa izatea, ornamentazioduna, zati bakoitzaren funtzioaren eta erabileraren araberakoa.
- Saihestea ibilbidean ikuspena zailtzen duten desnibelak sortzea, bai orientaziorako bai segurtasun-sentipenerako.
- Oinezkoen ibilbideak trazatzerakoan, kontuan hartzea mugikortasun gutxiko pertsonek, gurpil-aulkietan ibiltzen direnek eta haur-kotxeak edo erosketako orgak daramatzatenek erabiltzeko modukoak izan behar dutela desnibelek.
- Pertsona makuludunak edo gurpil-aulkian doazenak igaro daitezen zabalera minimoko espaloiak diseinatzea. Gurpil-aulkian edo makuluekin doazen bi lagun bata bestearekin gurutzatzeko, 1,80 m behar dira, eta euritakoarekin, 2,20.
- Komeni adina zebra-bide sortzea oso urrun ez dauden tarteak egiten dituzten pertsonentzat, espaloien neurrien eta garrantziaren arabera.
- Bidegurutze handietan, gurutzatze diagonala sustatzea, egoki seinaleztatuta.
- Hala komeni den kaleetan ibilgailuen trafikoa arintzea, arrapalen bidez edo abiadura moteltzekoen bidez, bereziki eskolen, ekipamenduen, plazen eta parkeen, eta horrelakoen inguruetan.
- Oinezkoen pasabideak nabarmentzea sarbide-kaleetan eta bizitegi-kale estuetan, espaloiekin laututako plataformen eta abiadura murrizteko arrapalen bidez.
- Lekuak sortzea zabor-edukiontziak jartzeko oinezkoentzako ibilbide-sarean, baina horretarako nasa seguruetan eta ibilgailuen trafikotik babestuta.

**Plazak**

- Egoteko benetako lekuak, seguruak eta atseginak izan daitezen diseinatzea plazak.
- Itzalguneak, arboladiak eta euritik babesteko eremu estaliak dituzten guneak jartzea.

- Bat-bateko jolasa egiteko aukera ematen duten eta eragozten ez duten plazak diseinatzea: saihestu hiri-altzariak eta lorategi-gunean homogeneoki jartzea. Plaza berean gune desberdinak jartzeak aukera ematen du modu askotan eta talde desberdinek aldi berean erabiltzeko.
- Plazak, gutxienez, balizko lau aldeetatik hirutan zedarritzea, edo haren perimetroaren hiru laurdenetan, eraikinen bidez edo beste elementu batzuen bidez (landaredia, pergolak,…).
- Plazak ibilgailuen bide-sarearekin konektatzea gutxienez alde batetik.
- Oso kontuan hartzea plazak eguzkiarekiko duen orientazioa, egoteko guneak eta eserlekuen kokapena zuzen kokatzeko. Ahalegina egitea gune horiek ibilgailuen trafiko bide baten ondoan egon ez daitezen, zaraten eta gasen eragozpenak saihesteko.
- Argiteria zuzena ziurtatzea, lanpara altuak arbolekin bateragarri jarrita, segurtasuna bermatzeko eta segurtasun ezaren sentsazioa saihesteko behar adina lux jarrita.
- Jabari publikoaren eta pribatuaren arteko tarteak sortzearen alde egitea. Tarteko guneak auzoko umeek eta gazteek jolas dezaten eta helduak berrelkar daitezen laguntzen du.

**Parkeak eta Berdeguneak**

- Parkeen diseinuan, funtzio askotarako guneak eta eremu irekiak nahastea, hainbat erabilera egiteko aukera emateko moduan: paseoak, lorategi edo baso eremuak, aisirako eta atsedenerako eremuak, lorategi didaktikoak, etxalde hezitzaileak, haztegiak, auzokoek laboratzeko baratzeak,...
- Zabaleran 3 m-tik gorako bideak egitea, eta altueran 4,5 m-tik gora libre, mugatzen dituzten arbolen adaburupean, larrialdiko eta mantentze-lanetako ibilgailuak zirkulatu dezaten.
- Eserlekuak jartzerakoan ere, pentsatu behar da aukera eman behar dutela alboetara gurpil aulkiak edo haur-kotxeak jartzeko.

- Topo egiteko eta harremanetarako eremuek kontuan hartu behar dute intsolazioa, eta, beraz, itzala emateko elementuekin (materialak zein landareak) sortu behar dira.
- Umeentzako jolasek hesi baxuekin babestutako eremuetan egon behar dute, txakurrak bertara ez sartzeko, jabeekin eta lotuta ez bada. Gorotzak biltzeko sistemak eta paperontziak eduki beharko dira.
- Helduentzako eta adinekoentzako jarduera eta jolas eremuek (bola-jokoa,…) umeenetik hurbil egon behar dute, adin desberdinekoen arteko harremana enbarazurik gabe gerta dadin.
- Gauez argia jartzea ibilbideetan eta pasabide-eremuetan, eta arbolekin eta beste landare batzukein bateragarriak izango dira.
- Jarduera-eremuen ertzean zerbitzuak jartzea, eta ekipamenduak, hala nola, kioskoak eta tabernak, mahai eta aulkiekin, eta komun-zerbitzuekin, eta konketa eta umeak aldatzeko toki nahikorekin, eta baita larrialdi eta SOS guneak ere, markesinekin edo eguzkitik eta euritik babesteko beste elementu batzuekin.
- Kontuan hartzekoa da gune horietatik hurbil aparkalekuak gaitu beharra.
- Kontuan hartzekoa da garraio publikoan ere iritsi beharko litzatekeela; oinez 10 minututik beherako tartea izan beharko luke.
- Kontuan hartzekoa da ume handiagoentzako eta gazteentzako jarduera-eremuen beharra.
- Kirol-parke pistadunak jartzea adin eta genero talde desberdinek gehien egiten dituzten jokoetarako. Gero eta emakume gehiagok jokatzen dute talde-jokoetan.
- Kirol-parkeetan urte osoan erabil daitezkeen instalazioak jartzea, nahitaezkoak diren aldagela, bainu-gela eta mantentze-aretoak bezalako ekipamenduez gainera.
- Distantzia maximo bat ezartzea, etxebizitza oro parke edo berdegune batetik adibidez 500 m hurbil egon dadin bermatzeko.

Oinezkoentzako guneetako argiteria-mailetarako, gomendatzen dugu CIE erabiltzea (Espainiako Argiteria Batzordea); haren gidaliburuetan honelako gomendioak aurkituko ditugu:

> *Aurpegia ikustea beharrezkoa da oinezkoentzako; beraz, betekizun jakin batzuk ere bete beharko dira, hala nola, argi bertikal minimoa (Ev min.) eta argi erdizilindriko minimoa (Esc, min).*

**Erredakzio Alternatiboaren dokumentuan, horri buruzko aldaketak proposatuko ditugu.**

## 3.2 3.1.2. ARTIKULUA.- ERAIKUNTZA APROBETXAMENDUA ZENBATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEA.

### *3.1.2.1. Artikulua.- Espazio konputagarriak*

*Izaera orokorrez, honako espazio hauek hartuko dira kontuan eraikuntza aprobetxamenduaren barnean:*

· *1,80 metrotik gorako altuera librea duten espazio itxi eta irekiak –horietan altuera hori gainditzen duen zatia hartuko da kontuan-.*

· *Eraikuntzaren elementu trinkoak.*

· *Ø< 1.50 metroko patioak eta instalazio hodiak.*

· *Igogailuen zuloak.*

· ***Balkoiak, terrazak, eguterak eta era guztietako portxeak, estalita daudenean eta erabilera publikoko zortasunik ez dutenean. (Horien azaleraren %50 hartuko da kontuan, baldin eta kanpoaldera irekiak badaude).***

· *Estalkipeetan arestian aipaturiko espazio eta elementu horiek hartuko dira kontuan, baldin eta batik bat lursailaren erabilera nagusirako edo baimenduriko erabileretarako erabiltzen badira.*

### *3.1.2.2. Artikulua.- Espazio konputaezinak*

*Aitzitik, inolaz ere ez dira eraikuntza aprobetxamenduaren barnean kontuan hartuko honako espazio eta elementu hauek:*

· *1,80 metro baino altuera txikiagoa duten espazio itxiak eta irekiak.*

· *Ø > 1.50 metroko patioak eta instalazio horiek.*

· *Erabilera publikoko portxeak.*

Artikulu hau aldatzeko proposamenerako, bi egoera desberdin kontuan hartuko ditugu: dauden eraikinetan esku hartzea eta etxebizitza-eraikin berriak.

## Dauden eraikinetan esku hartzea

Dauden etxebizitzetako askok –esaterako, 70eko urteetako etxebizitzek–, balkoi handiak dauzkate, baina ez daukate biltegi-gunerik eta/edo garaje edo trastelekurik. Kontuan hartu behar dugu gune ertain eta osagarriak ezinbestekoak direla etxebizitza guztietan. Beraz, etxebizitza horien bizigarritasuna hobetzeko asmoz, balkoiak etxebizitzan sar litezke gune osagarri gisa edo haren energi eraginkortasuna hobetzeko galeria gisa, **eraikigarritasunaren zenbaketa oztopo izan gabe.** Artikulu honen azterketan ikusten genuen bezala, Zaida Muxí eta Josep María Montaner egileek “Reflexiones para proyectar viviendas del siglo XXI” liburuan iradokitzen dute kanpo-gune eta gune osagarri horiek ez zenbatzea.

Gai hori arautzen duen ordenantzak definitu lezake erreforma zein baldintzatan gauzatu behar den; jakina, bizitegi-erabilerako eraikinen tratamendu estetikoari buruzko artikuluak bete beharko lituzke, hala nola, 3.4.1. artikulua, eraikinen kanpo-tratamenduaren homogeneotasunari buruzkoa, edo muga bat ipini, lotu litekeen azalerari.

## Etxebizitza eraikin berriak

Eraiki behar diren etxebizitza-eraikinetan, komeni da etxebizitza bakoitzari kanpo-gune bat bermatzea, gune hori erabiltzea bultzatzen duten ezaugarriak izango dituena, hala nola, azalera minimo bat eta orientazio egokia.

Beraz, proposatzen dugu **bermatu egin behar dela eraiki behar den etxebizitza berri orok kanpo-gune minimo ez zenbatzekoa edukitzea (adibidez, 5 m2), gainerakoaren %50a zenbagarria izanik.** Kanpo-gune horrek ez luke soilik iparrera edo patio batera orientatzeko aukera eduki beharko, horrela, erabilera osagarrietarako izateaz gainera, aire zabaleko gune bat bezala tratatu ahal izateko ere bai, adinekoen, mugikortasun gutxitua dutenen edo ume txikitxoen egonleku izateko egokitua.

**Artikulu honetarako, beraz, bere edukia aldatzea proposatzen dugu.**

## 3.3 3.2.1 ARTIKULUA.- BIZITEGI ERABILERAKO PARTZELETAN ERABILERA BAIMENDUAK EZARTZEKO ARAUBIDE OROKORRA ALDATZEA.

Artikulu honetan, bizitegi-erabilerako partzeletan erabilera baimenduak nola ezartzen diren definitzeaz gainera, HMIPk iradokitako atal bat ere sartzen du, zeinaren arabera ***Plan Nagusi horren arabera eraikitzen den bizitegi-eraikin berri orok bizikletak aparkatzeko eta motorrik gabeko ibilgailuak uzteko gune bat eduki beharko baitu.***

*5.- Irizpideak eta araudia bizikletentzako aparkalekuen horniduraren inguruan.*

*HMPIean oinarriturik, gomendatzen da aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan diseinurako arauak eta gutxieneko estandarren parametroak sartzea eraikin publiko eta pribatuan bizikletak Aparkatzeko. Eraikuntza berrietan, edozein dela ere haien erabilera, bizikletak aparkatzeko lekuak zehazteko beharreko baldintzak jasoko dira horietan. Plaza kopurua eta neurriak, sarbidea, lotzeko gailuak eta haien babesa jasoko dira horien artean.*

*Ordenantza honen arau zuzenean lotesle gisa, eta edozein izanik ere Mugikortasunaren Ordenantza espezifikoaren onarpenetik etor daitekeen geroko garapena, Plan Orokor honen arabera eraikiko den bizileku eraikuntza berri horiek izango du bizikletak aparkatzeko eta ibilgailu motorgabeak edukitzeko eremu bat. Honako hauek dira kontuan hartuko diren gutxieneko neurriak, 1,5 m² etxebizitza bakoitzeko, gutxienez 1,5 metroko luzera eta 2,0 metroko altuera. Esparru horretarako sarbidea ahalik eta zuzenena izango da kanpoaldetik eta beti ere egokia motorrik ez duten ibilgailuentzako.*

*Aurreko atalekoak duen arau maila berdinarekin, dagoen bizileku eraikin batean berritze lan sakonak egiten badira, aurreko irizpide hori kontuan hartu beharko da, eta arau hori osorik edo neurri batean ezin bada bete, eskakizun horiek ezin bete izateko arrazoiak azalduko dira, eta beste alternatiba batzuk agertuko dira bizikletak eta motorrik gabeko gainerako ibilgailuak etxebizitzetan sartzeko. Era berean, bizileku erabilerak ez direnetarako eraikuntza berri guztiek izango dute bizikletak aparkatzeko esparru bat, kanpotik zuzenean sartzeko modukoa, eta eraikuntza horrek izango duen erabileraren araberako plaza kopurua izango du.*

Gure iritziz, bizikletak aparkatzeko leku bat bermatzeaz gainera, lokal bat ere eskaini beharko litzateke, atarira lotua, haur-kotxeak, erosketa-orgak, gurpil-aulki motordunak eta abar gordetzeko. Etxebizitza bakoitzeko 1,5 m2-ko tokia proposatzen dugu, 12 m2-ko

minimoarekin, behe-solairuko lokal batean, ataritik zuzenean sartzeko moduan, eta bertan, 2 m diametroko zirkulu bat egin ahal izan beharko litzateke.

**Beraz, artikulua aldatzea eta zabaltzea proposatzen dugu.**

## 3.4 3.3.2. ARTIKULUA.- ETXEBIZITZA ERABILERARAKO LOKALETAN APLIKATU BEHARREKO BIZIGARRITASUN BALDINTZAK ALDATZEA

Etxebizitza-erabilerako lokalen bizigarritasunaren kasuan, proposatzen dugu kalitate-estandar minimoa Babes Ofizialeko Etxebizitzena izatea eta horri buruzko Plan Nagusiko araudia horretara lotzea.

Beraz, azalera eta neurri minimoak indarrean dagoen BOE araudiak egiten duen bezala definituta geratuko litzateke: azalera minimoak,zirkunferentzia minimoen bidez definitutako gelen neurriaren eta logela-kopuruaren arabera. Artikulu hau gainerako BOE artikuluek zehaztuta geratuko litzateke, azalera eta neurri minimoetatik harago. **ERANSKIN** gisa sartzen dugu aipatutako araudia.

Nolanahi ere, iradokitzen dugu **BOEren estandarrak gainditzea** eta eguneroko bizimoduaren kalitatea hobetuko duten irizpideak sartzea, alor horretako adituen gomendioen arabera. Azaterketan, Vienako Frauen Werk Stadt-en adibidea aipatzen genuen, aurrendaria baita etxebizitzaren alorrean inklusibotasunaren irizpide teorikoak gauzatzen. Zaida Muxíren eta Josep María Montanerren proposamenak ere aipatzen genituen. Txosten honetan egiten dugun proposamenaren ardatza da etxebizitzaren erabilera malgutzea eta haren etxeko lanetarako erabilera erraztea. Horiek dira oinarritzat hartu nahi ditugun puntu nagusiak, nahiz eta gero zenbait gomendio espezifikoago eta zehatzago azalduko ditugun:

### Lan egiteko guneak eta egoteko guneak banantzea

Ez da gomendagarria sukaldea, jangela eta egongela gune bakar bat izatea nahitaez, zeren aukera horrek ez dio uzten etxeko lanak egin behar dituenari etxeko lanak egiteko tokitik aparteko aisia-toki bat gozatzen.  Gomendagarria da sukaldea egongelari batzeko eta banantzeko aukera egotea, eta, beraz, sukaldeak bizigarritasun- eta osasungarritasun-baldintzak bere aldetik betetzea.

### Biltegi-gune bat bermatzea

Ordenantzetan sartzea iradokitzen dugun beste gai bat etxebizitzako biltegi- eta lan-gune bat edukitzea da. Eraikitzeko Kode Teknikoak, HS-2 Oinarrizko Dokumentuan, Osasungarritasunari buruzkoa baita, arautzen du etxebizitza bakoitzak hondakinak berehala biltegiratzeko eduki beharko duen azalera.

## *Osasungarritasuna - Hondakinak biltzea eta hustea HS Oinarrizko Dokumentua*

### *2.3 Berehala biltegiratzeko guneak etxebizitzetan*

1. *Etxe bakoitzean, tokia eduki behar da bertan sortzen diren ohizko hondakinen bost zatikietako bakoitza biltzeko.*
2. *Etxebizitza isolatuen edo horizontalean multzokatuen kasuan, papera / kartoi eta beira zatikietarako, eraikineko edukiontzi-biltegia erabil daiteke berehala biltzeko gune gisa.*
3. *Zatiki bakoitzerako biltegiratze-edukiera kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da:*

*C= CA x Pv (2.3)*

*C da etxebizitzak duen biltegiratzeko edukiera zatiki bakoitzeko [dm3];*

*CA da biltegiratzeko koefizientea [dm3/pertsonako], eta haren zatiki bakoitzerako balioa 2.3 taulan lortzen da;*

*2.3 Taula Biltegiratzeko Koefizientea, CA*

| *Zatikia* | *CA* |
|---|---|
| *Ontzi arinak* | *7,80* |
| *Gai Organikoa* | *3,00* |
| *Papera / kartoia* | *10,85* |
| *Beira* | *3,36* |
| *Beste zenbait* | *10,50* |

*Pv da etxebizitzako ohizko bizilagun-kopurua, alegia, logela sinple guztien eta logela bikoitz guztien kopuru bikoitzaren batuketa.*

4. *Lehen azaldutakoa aparte utzita, zatiki bakoitza biltegiratzeko guneak 30x30 cm baino gutxiagoko oinplantako azalera eduki behar du, eta 45 dm3 neurrikoa edo handiagoa izan behar du.*
5. *Gai organikoetarako eta ontzi arinetarako guneak sukaldean edo eratxikitako gune osagarrietan jarri behar dira.*
6. *Gune horiek haietara beste elementu osagarririk erabili beharrik gabe sartzeko moduan prestatu behar dira, eta goien dagoen puntuak ez du egon beharko 1,2 m baino gorago lurzoruaren mailaren gainetik.*

7. *Biltegi-gunearen mugetatik 30 m baino gutxiagora dagoen edozein elementuren azaleraren akaberak iragazgaitza eta garbitzeko modukoa izan behar du.*

Ulertzen dugu, beraz, bizigarritasunaren ikuspegitik sar daitezkeela arauetan honako irizpide hauek kontuan hartuta ezaugarritutako azalera (edo bolumen) minimoak:

- Sukaldean biltegiratzea, 1,40 m-tik beherako altuera, irisgarritasun eta segurtasun kontuengatik.
- Biltegiratze minimoa etxeko gainerako lekuetan, logeletako armairuetakoaz gainera.

BOEren araudian, zehazten da 1:20 eskalan marraztu behar direla sukaldeak; etxetresna elektrikoen kokapena barne. Gure ustez, gainera, honako hauek ere sartu beharko lirateke:

- Lan minimoko azalera, harraskaren eta sukaldearen ondoan.
- Biltegiratzeko gunea.
- Hondakinak biltzeko kokalekua.

Gomendio asko egin daitezke, eta adostu egin beharko da haietako zeinek hartuko duen nahitaez bete beharreko araudi-maila, Hirigintza Arauetara erantsi ondoren. Ondoren, Adierazleen eta Gomendioen dokumentuak jasoko lituzkeen gaiak agertuko ditugu:

## GOMENDIOAK [3]

**Orokorrak:**

Toki-neutraltasuna lortzen saiatu behar da; hots, tokia ez egotea erabilera esklusibo eta aurrez zehaztutakoek baldintzatuta, baizik eta aukera ematea bizilagunen araberako egokitze bereiztua egiteko. Horregatik, beharrezkoa da honako premisa hauek kontuan hartzea:

- Antzeko azalera eta proportzioetako gelak.
- Aurrez funtzio esklusibo baterako zehaztu gabeko azalerak eta neurriak. Definitu gabeko erabilerak dituzten guneak.

[3] Zaida Muxi arkitektoaren “Recomendaciones para una vivienda no jerárquica ni androcéntrica” dokumentuko gomendioen laburpena.

- Aurrez ezarritako erabilera bat islatzen ez duten leihoak, banaketa aldatzea laguntzen duen banaketa-homogeneotasun batekin.

Eraikuntzak berak bermatu beharko luke malgutasun hori. Gastu ekonomiko handiegirik sortu gabe egin ahal izateko, egiturek, sarrerek edo instalazioek baldintzatuta geratuko ez diren guneak banatu behar dira.

- Elementu modulu-egiturazkoak eta argi definituak, ahal bada puntualak, eta aske birbanatzeko oinplanoarekin eragozpenik sortzen ez dutenak.
- Tabikeak eta egiturak banantzea.
- Ur-, hustubide- eta gas-instalazioak multzokatuta.
- Hezeguneak multzokatuta, lekuan ahalik eta gutxien eragiteko.
- Ezinbesteko elektrizitate-instalazioak hormetatik.
- Zoladura jarraia, tabikeak baino lehen jarria, aldatu gabe haiek kentzeko aukera emango duena.
- Biltegi-gunea, ohizko guneak gehitzea etengo ez duten zerrendetan.
- Saiatu sarrera erdialdean jartzen, barne-banaketa errazteko eta malgutzeko.

**Biltegiratze-gunea**

Egunero erabiltzen ditugun elementu-mota desberdinak biltegiratzeko, armairuak eta gune espezifikoak behar dira. Kontuan hartu behar da etxebizitza lan egiten den leku bat dela; horregatik, kontuan hartu beharko dira lanak egiteko eta tresnak gordetzeko behar diren tokiak. Ekintza bakoitzak eta jarduera bakoitzak gordetzeko toki eta azalera espezifikoak behar izaten ditu.

- Trastelekua edo etxebizitzaren kanpoaldeko biltegiratze-gunea, egokitu gabe, aldizka erabiltzeko eta/edo bolumen handiko elementuetarako.
- Trasteleku komunitarioa, mugikortasuneko elementuetarako (bizikletak, haur-kotxeak, erosketa-orgak).
- Arroparen katerako lekua (arropa zikina eta arropa garbia).
- Janaria gordetzeko tokia edo jaki-tokia.

- Ohe-arroparako eta mahai-ohialetarako eta beste urtaro bateko arroparako.

**Egongela eta jangela**

Etxebizitzen azaleraren estutasunak berriz pentsarazi behar du guneen eta erabileren arteko erlazioa. Egongela izan ohi da etxebizitza gehienetan guztiontzako gune bakarra, eta hura erabiltzeak aisia-jarduera askotarikoak dakartza erabiltzaileentzat. Gune-edukiera maximoa lortzeko, beharrezkoa da beste jarduera batzuk elkartzea edo bateratzea.

Ez da gomendagarria sukaldea-egongela-jangela gune bakar bat izatea; izan ere, aukera horrek, egungo etxebizitza batzuetan aldaketa handi gisa ikusten baitugu, ez dio laguntzen lan partekatuari, eta emakumeari ere ez dio uzten aisia-toki bat edukitzen, familiako gainerakoei bezala. Emakumearentzat gehienbat etxea lan gisa mantentzen jarraituko litzateke, zeren atsedenerako eta lanerako tokia bakarra baita. Egongela, jangela eta sukaldeak integratuta baldin badaude, gomendagarria da aldi baterako batzeko edo banantzeko aukera izatea.

Sukaldea eta jangela egongelatik bananduta integratzeak aukera ematen du taldearentzako bi gune komunitario edukitzeko, garrantzitsutzat hartzen baita egongela denok topatzeko eta aisia partekatzeko toki bat izatea, horrela lanerako eta obligazioetarako toki bat gehiago utziz sukalde-jangelan.

**Logelak**

Logelek ez dute toki hierarkikoak izan behar. Logelak, denak azalera eta proportzio berekoak edo antzekoak (ahal bada, 10 m2-koak, gutxienez), erabilera eta altzari askotarikoak izateko aukera ematen dutenak.

- Azalera bereko giroak, haien artean gehienez 1 m2-ko aldaketa dutela.
- Bi logela baino gehiagoren kasuan, estrakoa txikiagoa izan liteke (1 m-2ko aldea gainditzuz), beste erabilera baterako hartzen bada (bulego, estudio, etxeko lanak) eta toki partekatura bateratu baldin badaiteke.
- Logeal guztiak, antzeko ikuspen, aireztapen eta orientazio baldintzekin.
- Ez du egon behar bainu esklusibo bat logela baterako.

Erabilera-malgutasuna: Bat-bateko aldaketak eta alderantzikagarriak ahalbidetu behar dira, tokiak erabilera desberdinetarako aldatuz:

- Altzariak jartzeko zenbait aukera.
- Aldi bereko jarduera desberdinak.
- Erabiltzaile-talde bakoitzak toki bakoitzaren erabilera zehazteko aukera izan dezala.
- Logeletarantz irekita ez dauden armairuak.
- Tokiak elementu mugikorren bidez integratzea.

Logelen azalera handitzen duten biltegiratze-toki nahikoak. Logela 10 m2 baldin badauzka, horma-armairuak azalera horretatik aparte egon behar du, eta ahal dela, pasillora ireki dadila, logelaren guneak moldakortasun handiagoa izate aldera.

**Sukaldea**

Sukaldeko lanak ikustekoak bihurtzea, uste baitugu hura ikusteak balorazioa, laguntza eta partekatzea sustatzen duela. Baina baloratzen da ikusteko aukera hori kontrolatua izatea. Ihes egin behar da ezarritako minimoetatik, Bakarkako lanpostutzat hartzen baitute.

Sukaldeak eta jangelak gune bakar bat osa lezakete. Jangela sukaldera batuta, galarazi egingo litzateke etxekoandrea guztiontzako gunetik baztertzea eta "bere" lana ikusi egingo litzateke. Beraz, ardurak hartzeko eta partekatzeko aukera egongo litzateke, eta, aldi berean, aisia-toki bat familia-taldeko gainerakoek bezala gozatzekoa.

Sukaldea beti ikusteko moduan baldin badago (egongelarekin eta jangelarekin toki bat osatzen duenean), gehiago txukundu eta garbitu beharra dago, eta emakumea etxeko ordenaren arduradun kulturala den aldetik, hobekuntza dirudienak are gehiago larritu dezake bere aisiarako eta atsedenerako toki eza, eta lan gehiago eman liezaioke.

Sukaldeak gordetzeko bere tokiak behar ditu.

- Jaki-tokitarako lekuak.
- Sukaldeko tresnetarako tokiak.
- Sukaldeko tresnetarako tokiak.
- Zaborra birziklatzeko guneak.

**Bainu-gela**

Bainu-gelen banaketa erabilera-aukera gehiago emateko moduan egingo da. Hots, bi bainu-gela oso baino gehiago erabilera anitzetarako aukera ematen ez dutenak; pentsatu behar da funtzioak banantzea eta umeak eta mugikortasun gutxituko jendea zaintzeko eta garbitzeko aukera ematen duten tokiak egitea.

Hierarkiak sahiestea. Logela jakin batera sartutako bainu-gelak malgutasuna kentzen diote etxebizitzari.

Erabilera-malgutasuna. Eremu funtzionalen zatiketak (gailuak) aukera ematen du energia-, ekonomia- eta toki-baliabideak optimizatzeko. Gailu bakoitzaren banakako aldi bereko jarduerarako aukera ematen da:

- Dutxa isolatua
- WC isolatua
- Konketa isolatuak

Arreta-jarduerarako aukera ematen du:

- Haur bat edo adin txikiko umeak bainatzea
- Minusbaliotasun fisikoa duen pertsona bat bainatzea

Norberaren higieneko elementuak eta toallak gordetzeko tokia.

**Pasilloa**

Saihestu egin behar dira batetik bestera joateko funtzioa besterik ez duten pasilloak, eta erabilera trinkoetarako tokiak izan daitezen, bai neurriek aukera hori ematen dutelako bai armairuak irekitzeko. Azkeneko aukera horrek logeletako toki-erabilerari laguntzen dio, zeren, oro har, biltegiratze-tokien kokapenak baldintzatuta egoten dira. Haren neurriek minimoak gainditzen badituzte, erabilera osagarrietarako aukera eman dezake.

- Jolasteko tokia
- Etxeko lanetarako tokia, esaterako, lixatzea
- Estudio-tokia

Erabilera horiek gauza daitezen, neurriez gainera, aireztapen eta argi baldintza egokiak bete behar ditu.

**Etxeko zereginetarako tokiak**

Arroparen kudeaketan lan guztia sartzen da, etxeko jantziei eta osagarriei dagokienez:

- Arropa aire zabalean zintzilikatzeko tokia duen garbitegia.
- Logelen eta bainu-gelen eremuekin lotuta dagoen garbitegia; horrela, arropa zikinak garbitu eta gorde arte egin behar duen ibilbidea minimoa da.
- Prozesu horretan arropa biltzeko tokia.
- Garbitzeko eta lixatzeko tresnak gordetzeko tokiak (makinak, mahaia, xaboia,…).
- Mantentze-lanak egiteko eta lixatzeko tokia.

Gorde behar diren elementu espezifikoetarako tokiak:

- Hondakinen birziklaketa
- Tresnak eta etxeko mantentze- eta garbitze-lanetako elementu orokorrak

**Beraz, artikulua aldatzeaz gainera, proposatzen dugu komenigarri iritzitako gaiak idaztea iradokitzen dugun Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleen eta Gomendioen dokumentuan sartzea.**

## 3.5 *3.3.3. ARTIKULUA.- ETXEBIZITZETAN SARTZEKO ERABILERA KOMUNEKO ESPAZIO ETA ELEMENTUETAN APLIKA DAITEZKEEN BIZIGARRITASUN BALDINTZAK* ALDATZEA.

Elementu horietako argiteria mailetarako eta dimentsionamendurako, uste dugu komenigarria dela indarrean dauden BOEren araudia eta Irisgarritasunaren legea betetzea.

Txosten honen xedeko gaiei dagokienez, garrantzitsutzat hartuko ditugu honako puntu hauek:

- Komeni da atariek sarrera kaleko espaloiarekin lerrokatuta edukitzea, bide publikotik ikuspen maximoa eduki dezaten.
- Atariaren gardentasuna: Kristaldun azalera batek aukera ematen du erabiltzaileak ikus dezan eta ikusia izan dadin.
- Ikuspena eta ibilbidea: Igogailu eta eskailera guneak kanpotik ikusi beharko lirateke, atarietan gune itsuak saihesteko. Saihestu egingo ditugu gune horietarako ikuspen-oztopoak.
- Eskailerek eta gune komunitarioek ondo argiztatuta egon behar dute, gardenak eta ikusteko modukoak izan behar dute, eta, gainera, oparoak izan beharko lukete tokiaren kontuan, bizilagunen arteko harremana ahalbidetzeko. Eta, beharrezko izanez gero, umeak jolasteko leku gisa balio izateko.

**Beraz, artikulua aldatzeaz gainera, proposatzen dugu iradokitzen dugun Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleen eta Gomendioen dokumentura sartzea.**

## 3.6 *3.3.6. ARTIKULUA.- GARAJE ERABILERARAKO LOKALETAN APLIKA DAITEZKEEN FUNTZIONALTASUN BALDINTZAK* ALDATZEA.

Garajea erabiltzeko lokaletako argiteria mailetarako eta dimentsionamendurako, uste dugu komenigarria dela indarrean dauden BOEren araudia eta Irisgarritasunaren legea betetzea.

Artikuluan, bizitegi-eraikinetako garajeei baitagokio berariaz, ez dira aipatzen oinezkoentzako sarbideak eta haien baldintzak. Uste dugu gai garrantzitsu bat dela eta aipamen berezia merezi duela. Ondoren, zenbait irizpide aipatuko ditugu, haietaz gogoeta egite aldera:

- Argiteria bermatu egin beharko da aparkalekuko tokien eta sartzeko ibilbideen gainean. Normalean zirkulazio-bideak argiztatzen dira, eta horiek ibilgailuak berak argitzen ditu faroekin.
- Oinezkoentzako ibilbideak argi eta garbi seinaleztatu beharko dira.
- Gomendagarria da azaleren tratamenduak segurtasun-sentsazioa sortzea, adibidez, kolore argiekin eta argi egokiarekin.
- Komenigarria izango litzateke argiteria naturala egotea, iraunkortasun-kontuengatik eta segurtasun-sentsazioagatik.

**Beraz, artikulua aldatzeaz gainera, proposatzen dugu iradokitzen dugun Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleen eta Gomendioen dokumentura sartzea.**

## 3.7 3.4.4. ARTIKULUA.- *ESEKITOKIEN TRATAMENDUA* DELA ETA

Baldin eta, iradokitzen dugun bezala, BOEren baldintzatzaileak minimo gisa hartuko balira, saihestu egingo dugu, adibidez, arropa esekitzekoak sukaldeko leihoaren aurrean jartzea (azkeneko urteetan eraiki diren sustapen libreko etxebizitzetan gertatzen den bezala).

Irungo HAPN erredaktatuta dagoen bezala, esekitokiei buruz aipatzen diren irizpideak estetiko hutsak dira (eraikinen tratamendu estetikoari buruzko 3.4.) atalaren barruan dago:

> ***3.4.4. Artikulua.- Esekitokien tratamendua.***
>
> *1.- Esekitokiak barne patioetan egongo dira, horrelakorik baldin badago, edo estalkipean, horrelakorik jarri badaiteke.*
>
> *2.- Aipaturiko soluzio horiek ez badira bideragarriak, fatxadan jarriko dira, baina derrigorrez etxarte patioei dagokiena aukeratuko da horrelakorik baldin badago.*
>
> *Kasu hauetan, kanpotik arropa zabaldua ez ikusteko moduko elementuekin estaliko dira, eta eraikineko fatxadaren araberakoa izango da haien diseinua.*

Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruz indarrean dagoen araudian, honako hau adierazten da arropa esekitzeari buruz (letra lodia gurea da):

> *Etxebizitza guztiek zuzeneko irispidea izango dute kanpoaldeko arropa-esekitoki batera. Arropa-esekitzea fatxadara egiten denean, kaletik ez ikusteko babesen bat eduki beharko du. Esekitokiaren neurriek aukera emango dute bertan 5 m-ko edo gehiagoko eseki-lerroa jartzeko.*
>
> *(...)*
>
> *5) Arropa fatxadan dagoen terraza edo balkoi batean, erabilera publikoko gunean edo etxadiaren patioan esekitzen denean, hartarako den tokia gorde beharko da, oztoporik gabekoa eta honako neurri minimo hauek definitutakoa: lurzoruaren*

*azalera, 1,50 m2; zabalera, 0,95 m, eta altuera, 2,00 m.*

*Esekitokiaren erabilera esklusiboko toki minimoak benetan ikusteko aukeratik babesteko elementuak eduki beharko ditu, eta* ***ez du eragozpenik sortuko etxebizitzaren piezetako exijitutako gutxieneko argitasunerako beharrezkoa gertatzen den inongo hutsunetako zuzeneko argietan.***

*6) Arropa-esekitzea soka bidez egingo balitz, hara etxebizitzaren barrualdetik iristea bermatuko da. Haren itxitura perimetrala edukiko du, honako gutxieneko neurri hauek dituela: Oinplano-azalera, 1,00 m2; zabalera, 0,50 m. Leihotik iritsi ahal izan beharko da, eta bere perimetro osoan ikusteko aukeratik babesteko elementuak eduki beharko ditu, eta* ***ez du eragozpenik sortuko etxebizitzaren piezetako exijitutako gutxieneko argitasunerako beharrezkoa gertatzen den inongo hutsuneren zuzeneko argietan.***

Adibide horrekin, azpimarratu nahi dugu, alde batetik, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren artikulatua erabil dezakegula kalitate-berme gisa, eta, bestetik, balioan jarri nahi dugu sukaldeen kalitatea. Sukaldea emakumearen lan-eremutzat hartzeari buruz aurkako jarrerak baldin badaude ere, zalantzarik ez dago etxebizitza batean egiten den lan gehiena sukaldean egiten dela: beraz, saiatu egin behar dugu lan hori ahalik eta baldintza onenetan egin dadin, nork egiten duen alde batera utzita.

**Ez legoke artikulu hau aldatu beharrik;** izan ere, proposatzen dugu aldaketak *Bizitegi-erabilerarako eraikinetan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintza orokorrei* buruzko 3.3 kapituluan egitea. Beharrezkoa iruditu zaigu gai hau berariaz aipatzea, zeren, azterketan aipatu dugun bezala, ohizkoa izaten da gai honi ikuspegi estetiko batetik bakarrik aurre egitea.

## 3.8 *3.6. KAPITULUA.- BIZITEGI ERABILERA EZ DUTEN PARTZELETAN APLIKATU DAITEZKEEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZA OROKORRAK DELA ETA*

Plan Nagusia hirigintza barneratzailearen irizpideetara egokitzerakoan gure ustez ezinbestekoak diren gai batzuek ez dute berariazko lekurik egungo testuan. Horregatik proposatzen dugu **gure ustez artikuluetan sartu beharko liratekeen alderdi orokor batzuei buruz gogoeta egitea.**

**Laugarren Tituluan, Ordenantza Arautzaileei buruzkoan,** bizitegi-erabilera ez duten partzela bakoitzak bete beharko dituen baldintzak lortuko ditugu. Baina **Eremuen Fitxetan** kapitulu hori aipatzen da, erabilerak ezartzeko baldintza espezifikoak definitzerakoan. Beraz, bi gaiek bat egin beharko dute Azterketan postulatzen ziren helburuetarantz. Gune publikoaren eta ekipamenduen arteko erlazio-irizpideak zenbait ikuspegitatik sartzen saiatuko gara.

## Ekipamenduei buruz

Ekipamendu publikoek gizarte-sareak sustatu eta eguneroko bizimodua erraztu behar dituzte, **haien erabilera esklusiboa izan ez dadin** erraztuz. Eraikin publikoetako behe-solairuek segurtasuna eta estalpea eman behar diete herritarrei, hiriko zati izan behar dute: bertako behe-solairuen gardentasunaren eta argiteriaren bidez (ikustea eta ikusia izatea) eta gune estali batekin, euritatik edo eguzkitatik babeste aldera erabiltzeko. Honako hauek dira artikuluetan sar litezkeen proposamenak:

1. Ekipamendu publiko orok (kiroldegia, liburutegia, udaletxea, parkea,…) **komun publikoak** eduki beharko lituzke, sarreraren ondoan edo kanpoaldetik, herritarrek erabiltzeko aukera izan dezaten.  Komun horiek, gainera, haurrak garbitzeko toki egoki bat eskainiko dute.

   Proposamen horren oinarria da 12 emakume helduetatik 1ek gernu-ihesaren arazoak dauzkala. Arazo horrek gizonezkoak ere ukitzen ditu, baina neurri txikiagoan (60tik 1). Gainera, egunero, 4 emakumetatik 1ek hilekoa edukitzen du, eta normalean, emakumeak dira mendekoak bainu-gelara eramateko ardura hartzen dutenak.[4]

[4] Lehen aipatutako  “Usos del Tiempo y la Ciudad” dokumentutik lortutako datuak.

Ekipamendu publikorik ez dagoen eta komun publikoak edukitzea ezinezkoa den hiri-eremuetan, akordio batera hel liteke ostalaritzako negozioekin, beren komunak erabilera publikokoak izango balira bezala edukitzeko, udal tasaren bat salbuestearen truke. Ekimen hori hainbat hiritan gauzatu da, hala nola, Bartzelonan, eta abantailak dauzka eta iraunkorra gertatzen da udalerrirako eta negoziorako.

2. Ekipamendu publikoek **ordutegi askotarikoak** izan ohi dituzte, eta horietako batzuk denbora luze samarrean egoten dira itxita. Adibidez, hezkuntza-ekipamenduetako patioek gune publikoak izan beharko lukete ikastetxeak erabiltzen ez dituenean.

3. **Ekipamenduetara sartzea erraztu** egin beharko litzateke, oinezkoen ibilbideak haietatik hurbil dauden aparkalekuetatik eta garraio publikoaren geltokietatik testatuz. Komeni da udal ekipamenduetarako oinezkoen ibilbide nagusiak kartografiatzea, eta lehentasuna ematea haiek optimizatzeari irisgarritasunaren, segurtasunaren, argiteriaren, semaforoen eta abarren inguruan. Oinezkoen lehentasunak, bereziki ikastetxera doazen umeena, argi geratu behar du proiektuetan: espaloien zabalera, oinezkoen pasabideak, iristeko eta itxaroteko tokia.

4. **Ekipamendu publikoek optimizatu egin beharko lukete bere erabilera, erabilerak nahastuz,** bizilagunen jardueretarako topaguneak eskainiz. Horrela, alde batetik, erabiltzaile-kopurua eta mota zabaltzea lortzen da, eta, bestetik, ordutegiak zabaltzea eta dibertsifikatzea.

## Aparkalekuei buruz

Aparkalekuak toki nahasgarriak dira: haien eraginkortasuna gailentzen da: albait toki txikienean albait auto gehien aparkatu ahal izatea. Ibilgailutarako toki bat da, oinezkoek ere erabiltzen dutena eta normalean segurua izaten ez dena. Ez dira oinezkoentzako guneak; beraz, ezin ditugu hala balira bezala tratatu, baina gune publikoaren zati dira, eta bermatu egin behar da segurtasun-baldintzetan erabiltzea. Eraikuntzako Kode Teknikoak puntu bat eskaintzen dio gai honi, baina eraikinei aplikatzeko araudi bat denez gero, ez du konpontzen industrialdeetako, merkataritza-guneetako edo hiri-guneetako azalerako aparkalekuen arazoa. Ondoren, Kodeak horretaz zer dioen transkribatuko dugu:

***ESI Erabilera Segurtasunaren eta Irisgarritasunaren Oinarrizko Dokumentua***

***Segurtasuna mugitzen ari diren ibilgailuek sortutako arriskuaren aurrean.***

***1. Aplikazio esparrua***

1 *Sail hau Aparkaleku-erabilerako guneei aplikatu ahal zaie (horrek kanpoan uzten ditu etxebizitza familiabakarreko garajeak), eta baita eraikinetan ibilgailuak zirkulatzeko dauden bideei ere.*

***2. Eraikuntza ezaugarriak.***

2 *Aparkaleku-erabilerako guneek sartzeko eta kanpoaldera joateko itxaroteko gune bat edukiko dute, ibilgailu-motaren luzerara egokitutako sakonerarekin, eta gutxienez 4,5 m, eta gehienez, %5eko aldaparekin.*

3 *Ibilgailutarako arrapalaz aurreikusitako oinezkoentzako ibilbide orok, larrialdi kasuetarako aurreikusita dagoenean bakarrik izan ezik, gutxienez 80 cm zabal izango da, eta, gutxienez 80 cm altuko babes-langa baten bidez babestuta egongo da, edo maila altuagoan dagoen zoladura baten bidez; orduan, desnibelak ESI 1 Saileko 3.1 atalean zehaztutakoa beteko du.*

***3 Oinezkoen ibilbideen babesa***

1 *200 ibilgailu baino gehiagoko edukiera duten edo 5.000 m2 baino gehiagoko azalera duten aparkaleku-solairuetan, erabilera publikoko guneetako oinezkoen ibilbideak, gutxienez, 0,80 cm zabal izango dira, ibilgailuetarako bideei exijitu lekiekeen gutxieneko zabalera sartu gabe, eta margoz edo erliebez bereizitako zoladura bereizien bidez identifikatuko dira, edo gune horiei maila altuagoko guneak jarriz. Desnibel hori 55 cm baino handiagoa bada, ESI 1 saileko 3.2 atalean ezartzen denaren arabera babestuko da.*

2 *Aurreko 1. puntuak aipatzen dituen aparkalekuak beste gune batzuekin komunikatzen dituzten ateen aurrean, ibilbide horiek langa bidez babestuko dira, ateetatik, gutxienez, 1,20 m-ra jarrita, eta, gutxienez, 80 cm-ko altuerarekin.*

***4 Seinaleztapena***

1 *Zirkulazio-kodean ezarritakoaren arabera seinaleztatu behar da:*

- *a) zirkulazioaren norabidea eta irteerak;*
- *b) zirkulatzeko 20 km/h-ko abiadura maximoa;*
- *c) Oinezkoen pasabide eta ibilbide guneak, zirkulatzeko bideetan edo arrapaletan eta sarreran;*

*Garraio astuna sar daitekeen aparkalekuetan, gainera, galiboak eta altuera mugatuak seinaleztatuta edukiko dituzte.*

2 *Biltegiratze-guneek eta zama-lanetakoek bide-markez edo zoladura margotuz seinaleztatuta eta mugatuta egon behar dute.*

*Ibilgailuak Aparkaleku-erabilerako establezimendutik kanpoko bideetara atera daitezen, gailuak jarriko dira, gidariari irtenbide horien ondoan oinezkoak daudela ohartarazteko.*

Aparkalekuen argiteria minimoari dagokionez ere, Kode Teknikoa erabiltzea proposatzen dugu:

> ***Segurtasuna, argiteria desegokiak sortutako arriskuaren aurrean***
>
> ***1 Ohizko argiteria, zirkulazio-guneetan***
>
> *1 Gune bakoitzean, argiteri instalazio bat edukiko da, gutxienez kanpoaldean 20 luxeko eta barrualdean 100 luxeko argiztapena emateko gai izango dena, barruko aparkalekuetan izan ezik; horietan, 50 luxeko neurria izango da lurraren mailan.*
> *Batezbesteko uniformetasunaren faktorea, gutxienez, %40koa izango da.*

3.6 kapituluan, Erabilerako baldintza orokorren 3.6.2 artikuluan definitzen dira zama-lanetarako guneak, eta aparkaleku eta garaje hornidura kuantifikatzen da. Proposatzen dugu, alde batetik, *2. puntua-Zama-lanetarako guneak* aldatzea, zehaztapen bat sartuz zama-lanetako tokietan oinezkoei uneoro bermatu behar zaien ikuspenari buruz. Bestetik, proposatzen dugu beste puntu bat gehitzea, azalerako aparkalekuei buruz, horietan oinezkoei segurtasuna bermatzeko, egiten duten ibilbideko toki orotan.

Kapitulu hori da Laugarren Tituluko Erabilera Xehatuko Guneak Arautzen dituzten Ordenantzetako zenbait kapituluk aipatzen dutena. Erredakzio Alternatiboko dokumentuan, gure ustez hartzea komeni diren irizpideak definituko ditugu.

**Proposatzen dugu erredaktatzea iradokitzen dugun Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleen eta Gomendioen dokumentura sartzeaz gainera.**

# 4 ERABILERA XEHATUKO GUNEAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZETARAKO PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

Azterketan adierazi dugun bezala, Laugarren Titulu honetan, ez da kontzeptu berririk sartzen, baizik eta gune desberdinetan dagoeneko definitutakoak aplikatzen dira, haien erabilera xehatuaren arabera. Horregatik, sartu nahi ditugun aldaketak aipatzen den artikulua diseinu barneratzailearen irizpideak jarraituz aldatu dela aipatu besterik ez dute egiten.

Bizitegi-erabilerako eraikinek beste eraikin-mota batek (industrialak, merkataritzakoak, mota orotako ekipamenduak) baino definizio sakonagoa dute ordenantzetan. Hain zuzen, eraikin-mota horretan, eta horiek egingo diren partzeletan, gabezia gehiago ikusten ditugu; beraz, puntu honetan, haien hirigintza-fitxak **3.6- Bizileku erabilerarako ez diren partzeletan aplikatu daitezkeen eraikitzeko eta erabiltzeko baldintza orokorrak** kapituluko artikuluetara lotzera ardaztuko gara.

Hainbat kapituluk aipatzen dituzte bizitegi-erabilera ez duten partzeletako baldintza orokor hauek[5]:

4.14. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Hotela (TH)

4.15. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Merkataritza (TC)

4.16. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Bulegoak (TO)

4.17 Kapitulua.- Garaje Tertziarioa (TK)

4.18 Kapitulua.- Gasolindegi Tertziarioa (TG)

4.20 Kapitulua.- Laket Tertziarioa (TE)

4.21. Kapitulua.-Eskola Ekipamendua (EE EP)

4.22. Kapitulua.-Kirol Ekipamendua (ED EJ)

---

[5] Zerrenda hori eskura dagoen Hirigintza Arauak dokumentuaren azken bertsioarekin egin da. Aldaketaren bat egon daiteke behin betiko dokumentuarekiko.

4.23. Kapitulua.-Instituzio Ekipamendua (EI)

4.24. Kapitulua.-Osasun Ekipamendu Publikoa (EM)

4.25. Kapitulua.-Laguntza Ekipamendua (EA EL)

4.26. Kapitulua.-Kultur Ekipamendua (EC)

4.27. Kapitulua.-Erlijio Ekipamendua (ER)

4.28. Kapitulua.-Zerbitzu Publikoen Ekipamendua (ES)

4.29. Kapitulua.-Aduana Ekipamendua (EN)

4.30 Kapitulua.- Zuzkidura-bizitokiak (AD)

4.31. Kapitulua.-Zehaztu Gabeko Ekipamendua (EX)

4.33. Kapitulua.-Hiri arteko Bideak eta Egituratzaileak (VI / VE)

4.34. Kapitulua.-Hiri Bide Banatzaileak eta Tokiko Bideak (VD / VL)

4.35. Kapitulua.-Bide Sistemak Aparkalekua (VP)

4.36. Kapitulua.-Bide Sistemak Bide Pribatuak (VK)

4.40. Kapitulua.- Espazio Libreak (LP LJ LL LK)

Haietan guztietan, Erabilerak Ezartzeko Baldintza Espezifikoak artikulu bat dago, honela erredaktatuta:

***4._.2.2. Artikulua.- Erabilerak Ezartzeko Baldintza Espezifikoak.***

*Araudi honen Hirugarren Tituluaren 3.6 Kapituluak xedaturikoa aplikatuko da, bizileku erabilera ez duten lursailei aplika dakizkiekeen eraikuntza eta erabilera baldintza orokorrei dagokienean.*

Gure ustez, komeni da artikulu honetan aipatzea dokumentu hau existitzen dela, berdintasunaren gaia ikusgarriagoa izan dadin lortzeko.

Era berean, proposatzen dugu laburpen-fitxa bakoitzean gaiaren aipamen berri bat sartzea, helburutzat hartuta Plan Nagusi honetatik abiatuta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna barrukotasun handiagoz ikus dadin eta, pixkanaka, inklusibotasunaren gaia hasieratik egon dadin erredaktatzen diren dokumentu guztietan.

**Txertatze horiek Erredakzio Alternatiboaren dokumentuan ikusiko ditugu.**

| | |
|---|---|
| | |
| Patxi Galarraga Aiestaran, Arkitektoa | Miren Vives Urbieta, Arkitektoa |

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# IV. DOCUMENTUA

# ERREDAKZIO ALTERNATIBOA

Aurreko dokumentuetan proposaturiko azterketaren eta gogoeten ondoren, landutako artikuluen erredakzio alternatiboak proposatuko ditugu orain. Neurri Zuzentzaileen dokumentuan aipatu dugun bezala, neurrien eraginkortasunari eta haiek erabiltzeko erraztasunari eman diegu lehentasuna, erredakzio taldeak egindako lana osatzeko.

Erredakzio alternatiboa edo, behar izanez gero, berria, zein artikulutan proposatzen dugun azalduko dugu ondoren:

1. 1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
2. 3.1.2. Artikulua.- Eraikuntza aprobetxamendua kontatzeko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
3. 3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra ALDATZEKO PROPOSAMENA.
4. 3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
5. 3.3.3. Artikulua.- Etxebizitzetan sartzeko erabilera komuneko espazio eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
6. 3.3.6. Artikulua.- Garaje erabilerarako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
7. 3.3.8. Artikulua.- Trasteleku erabilerarako lokaletan eska daitezkeen funtzionaltasun baldintzak GEHITZEKO PROPOSAMENA.
8. 3.6. Kapitulua.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen eraikuntza eta erabilera baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
9. ERABILERA XEHEKO EREMUAK ARAUTZEKO ORDENANTZETAN PROPOSATUTAKO ALDAKETAK.
10. HAPNaren DOKUMENTUAN HIRI DEBEKATUAREN MAPA SARTZEA.

Era berean, gai honi ikusgaitasun handiagoa emateko, proposatzen dugu dokumentu honen **aipamena sartzea** Plan Nagusian egiten ditugun aldaketa guztietan, aldatutako artikuluak edo sartutakoak aipa dezan, hala behar badu, haren izatea edo aldaketa arrazoitu eta aberastuko duen dokumentu hau.

# 1 1.5.6. ARTIKULUA.- OINEZKOENTZAKO EREMUEN DISEINUAREN INGURUKO IRIZPIDEAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

***1.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.***

*1.- HMIPan oinarriturik, gomendatzen da, lehen aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan jasotzea oinezkoentzako ibilbideen oinarrizko sarerako diseinurako arauak eta gutxieneko parametro estandarrak ere, oinezkoentzako ibilbideetarako gutxieneko sekzioei dagozkien arauak garatuta, eta baita irisgarritasun irizpideak ere.*

*2.- Era berean, erabilera ibilgailu motordunekin partekatua duten eremuak deiturikoetan zirkulazioaren eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da eta "S28" moldeko abiadura muga ezarriko da, muga hori baitagokie bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleei, kale horiek lehenengo oinezkoentzako izanik. Horietan halako zirkulazio arau berezi batzuk ezartzen dira, esate baterako, gehienez ere orduko 20 km-ko abiadura ibilgailuentzako, oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa gidarientzako, beharreko seinale eta markek bereziki adierazitako lekuak ez direnetan aparkatzeko debekua ibilgailuei, oinezkoentzako baimena zirkulazio eremu osoa hartzeko, baina ibilgailuen gidariei alferrik traba egin gabe, eta kale hauetan jokoak eta kirolak egiteko baimena.*

*3.- Era berean, zirkulazio eta mugikortasunaren erregulazioa jaso beharko da ibilgailu motordunekin partekatzen diren eta "S28" moldeko abiadura muga duten eremuetan. Bereziki atondutako zirkulazio eremu gisa antolaturiko bizileku kaleak dira, lehenengo oinezkoak ibiltzeko direnak. Horietan aplikatu beharreko zirkulaziorako arau bereziak honako hauek dira: orduko 30 km-koa da ibilgailuentzako abiadura gorena eta oinezkoei lehentasuna emateko obligazioa dute gidariek. Era berean, bideak tratatu eta erregulatzeko aukera desberdinak onartutako abiaduren arabera garatuko dira, oinezkoei emaniko lehentasunek argituz eta bigarren txirrindulariak indartuz.*

Hiru puntu ditu artikuluak, eta horietan oinezkoentzako eremuetako **zirkulazioa** aipatzen da batik bat. Beste punturen bat sartzea proposatzen dugu. Horietako bakoitza azalduko dugu ondoren:

Uste dugu HMIPak eta Irisgarritasun Legeak bermatuko dituztela neurri egokiak, eta horrenbestez, oinezkoentzako ibilbideen eta pasealekuen kalitatea bermatzea proposatzen dugu, haien erabilera bultzatzeko baliabideak eskainita.

4.- Oinezkoentzako ibilbide guztietan ziurtatuko dira atsedenerako, hidratatzeko eta babesteko beharreko ekipamenduak eta komunak, honako era honetan egokituak:

- Atsedenerako lekuak: Ha-ko 25 etxebizitzatik gorako dentsitatea duen bizileku eremu batean 100 m-koa izango da (modu linealean neurtuak) edozein puntutatik eserleku batera dagoen tartea.
- Hidratazioa: Ha-ko 25 etxebizitzatik gorako dentsitatea duen bizileku eremu batean 500 m-koa izango da (modu linealean neurtuak) edozein puntutatik edateko ur iturri batera dagoen tartea.
- Komunak: Ha-ko 25 etxebizitzatik gorako dentsitatea duen bizileku eremu batean 500 m-koa izango da (modu linealean neurtuak) edozein puntutatik komun publiko batera dagoen tartea.

5.- Zoru mailan 15 lux-eko argi-maila bermatzeko moduko argiteria instalazioa jarriko da oinezkoentzako ibilbidean zehar.

Oinezkoen igarobideei dagokienean, Euskal Irisgarritasun Legearen gomendio bat (3.5 puntukoa – *Oinezkoen igarobideak*, II. Eranskinekoa.- Hiri inguruko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak) eskakizun bihurtzea proposatzen dugu:

*5.- Ahal den guztietan, oinezkoen igarobideak egingo dira oinezkoa zirkulazio-bidera hurbiltzeko, igarobide horrek aparkalekuaren eremua hartuta, ibilgailuen zirkulazioan eraginik izan gabe. Era horretako igarobideak bereziki egokiak dira kale-gurutzeetan egokitzeko.*

Honela definituko litzateke puntua:

6.-. Oinezkoen igarobideak: espaloiaren ondoan aparkalekua duten kaleetan, espaloi hori zabaldu egingo da lehen zirkulazio-bideko ertzeraino, aparkatuta dauden ibilgailuek ikuseremua oztopatu ez dezaten.

Era berean, proposatzen dugu kaleak diagonalean gurutza daitezen bultzatzea, oinezkoen segurtasuna bermatuz:

7.- Diagonalean gurutzatzea (edo gurutzatze unibertsala) bultzatuko da kaleen artean, ahal bada bederen, jende ugari ibiltzen den hezkuntza, kultur, kirol edo merkataritza erabilerarako ekipamendu publikoen alboan daudenean. Horretarako, gomendatzen da igarobidea maila berean egitea (igarobide osoaren maila goratuz edo inguru osoan espaloiak

beheratuz) eta semaforoen denborak eta seinaleek aukera ematea segurtasun-baldintza egokietan gurutzatzeko.

Oinezkoak egoteko eta jolaserako eremuei dagokienean, plazetan eta parkeetan, esate baterako, honako puntu hauek jasotzea proposatzen dugu:

8.- Atsedenerako lekuen eta eserlekuen kokalekua aztertu eta justifikatuko da, kontuan harturik plazaren orientazioa, urteko garai desberdinetan eguzkiak nola ematen duen, eremuan dagoen trafikoarekiko lotura eta leku estaliren bat dagoen ala ez.

9.- Parkeetara sarbidea ziurtatuko da garraio publikoaren bidez, eta 500 metro baino gutxiagora egongo da geltoki hurbilena, oinezkoak sartzeko ibilbidearekiko neurtuak horiek.

10.- Eraikuntza berriko parke edo berdegune orok izango ditu komuna, hidratatzeko, atseden hartzeko eta babesteko ekipamenduak, oinezkoen sarbidetik hurbil kokatuak.

Irungo **Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentura jotzea proposatzen dugu. Derrigorrezko izaerarik gabe, oinezkoen espazio barneratzaileak planifikatzeko orduan baliagarriak izan daitezkeen gomendioak jasoko lirateke dokumentu horretan.

11.- Oinezkoentzako eremuak diseinatzeko orduan **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentua erabiltzea gomendatzen da.

Sartutako puntuak edo aldatutakoak dokumentu honetan oinarritu direla adieraziko da.

Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta sartu dira 4 – 11 puntuak Hirigintza Arauen erredakzioan.

# 2 3.1.2. Artikulua.- ERAIKUNTZA APROBETXAMENDUA KONTATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

### *3.1.2.1. Artikulua.- Espazio konputagarriak*

*Izaera orokorrez, honako espazio hauek hartuko dira kontuan eraikuntza aprobetxamenduaren barnean:*

· *1,80 metrotik gorako altuera librea duten espazio itxi eta irekiak –horietan altuera hori gainditzen duen zatia hartuko da kontuan-.*

· *Eraikuntzaren elementu trinkoak.*

· *Ø< 1.50 metroko patioak eta instalazio hodiak.*

· *Igogailuen zuloak.*

· ***Balkoiak, terrazak, eguterak eta era guztietako portxeak, estalita daudenean eta erabilera publikoko zortasunik ez dutenean. (Horien azaleraren % 50 hartuko da kontuan, baldin eta kanpoaldera irekiak badaude).***

· *Estalkipeetan arestian aipaturiko espazio eta elementu horiek hartuko dira kontuan, baldin eta batik bat lursailaren erabilera nagusirako edo baimenduriko erabileretarako erabiltzen badira.*

### *3.1.2.2. Artikulua.- Espazio konputaezinak*

*Aitzitik, inolaz ere ez dira eraikuntza aprobetxamenduaren barnean kontuan hartuko honako espazio eta elementu hauek:*

· *1,80 metro baino altuera txikiagoa duten espazio itxiak eta irekiak.*

· *Ø > 1.50 metroko patioak eta instalazio horiek.*

· *Erabilera publikoko portxeak.*

Artikulu batzuk aldatzea proposatzen dugu etxebizitza berri orok kanpoan gutxienez 5 m2-ko espazioa izan dezan bermatzeko. Salbuetsi egingo dira, dauden lekuagatik (mendi mazelan, eremu babestuan, ...) arauak urratu gabe kanpoan azalera hori eduki

ezin dutenak. Horrenbestez, Udaleko bulego teknikoaren esku geratuko da salbuespen hori egiaztatzea. Artikuluak honela geratuko lirateke horrenbestez:

**3.1.2.1. Artikulua.- Espazio konputagarriak**

Izaera orokorrez, honako espazio hauek hartuko dira kontuan eraikuntza aprobetxamenduaren barnean:

- 1,80 metrotik gorako altuera librea duten espazio itxi eta irekiak –horietan altuera hori gainditzen duen zatia hartuko da kontuan-.
- Eraikuntzaren elementu trinkoak.
- Ø< 1.50 metroko patioak eta instalazio hodiak.
- Igogailuen zuloak.
- Era guztietako portxeak, estaliak direnean eta erabilera publikoko zortasunik ez dutenean. (Horien azaleraren % 50 kontatuko da, baldin eta kanpoaldera irekiak badaude).
- **5,00 m2-ko azaleratik** gora duten balkoiak, terrazak eta eguterak, Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta.
- Estalkipeetan arestian aipaturiko espazio eta elementu horiek hartuko dira kontuan, baldin eta batik bat lursailaren erabilera nagusirako edo baimenduriko erabileretarako erabiltzen badira.

**3.1.2.2. Artikulua.- Espazio konputaezinak**

Aitzitik, inolaz ere ez dira eraikuntza aprobetxamenduaren barnean kontuan hartuko honako espazio eta elementu hauek:

- **5,00 m2-ko azalera arteko** balkoiak, terrazak eta eguterak. Eraikuntza berriko etxebizitzei eska dakiekeen gutxienekotzat hartuko da kanpoko azalera hori, beste arau batzuekiko kontraesanean egon daitezkeen kasu jakin batzuetan izan ezik, horiek behar bezala justifikatzen direnean dagokion udal bulego teknikoaren iritziz.
- ·1,80 metro baino altuera txikiagoa duten espazio itxiak eta irekiak.
- ·Ø > 1.50 metroko patioak eta instalazio horiek.
- ·Erabilera publikoko portxeak.

Neurri Zuzentzaileen dokumentuan aipatu dugun bezala, dauden etxebizitza batzuen bizigarritasuna hobetzeko neurri interesgarria izan daiteke kanpoko azaleraren zati bat barnekoari eranstea, gutxieneko 5 m2 horri eutsiko zaiola bermatuta betiere. Horrenbestez, beste artikulu bat gehitzea proposatzen dugu:

**3.1.2.3. Artikulua. Etxebizitzari erants dakizkiokeen kanpo espazioak.**

Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta, 5 m2-tik gorako balkoi, terraza edo eguteraren bat duten etxebizitzetan aukera emango da azalera horren zati bat etxebizitzari eransteko, baldin eta:

- Gutxienez 5 m2-ko kanpo azalera ziurtatzen bada.
- Orientazio hoberena duen balkoia kanpoko gisa mantentzen bada, bat baino gehiago baldin badaude.
- Arkitektura tratamendu unitario eta egokia bermatzen bada jarduten den fatxadetan, 3.4.1. Artikuluaren "Homogeneotasuna eraikuntzen kanpo tratamenduan" arabera.
- Eskumena duen udal bulego teknikoaren irizpidearen arabera aplikatuko da artikulu hau kasu zehatz bakoitzean.

# 3 3.2.1. Artikulua.- BIZILEKU ERABILERAKO LURSAILETAN BAIMENDUTAKO ERABILERAK EZARTZEKO ERREGIMEN OROKORRA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

***3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra.***

***(…)***

*5.- Irizpideak eta araudia bizikletentzako aparkalekuen horniduraren inguruan.*

*HMIPan oinarriturik, gomendatzen da aipaturiko Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Ordenantza espezifikoan diseinurako arauak eta gutxieneko estandarren parametroak sartzea eraikin publiko eta pribatuan bizikletak Aparkatzeko. Eraikuntza berrietan, edozein dela ere haien erabilera, bizikletak aparkatzeko lekuak zehazteko beharreko baldintzak jasoko dira horietan. Plaza kopurua eta neurriak, sarbidea, lotzeko gailuak eta haien babesa jasoko dira horien artean.*

*Ordenantza honen arau zuzenean lotesle gisa, eta edozein izanik ere Mugikortasunaren Ordenantza espezifikoaren onarpenetik etor daitekeen geroko garapena, Plan Orokor honen arabera eraikiko den bizileku eraikuntza berri horiek izango du bizikletak aparkatzeko eta ibilgailu motorgabeak edukitzeko eremu bat. Honako hauek dira kontuan hartuko diren gutxieneko neurriak, 1,5 m² etxebizitza bakoitzeko, gutxienez 1,5 metroko luzera eta 2,0 metroko altuera. Esparru horretarako sarbidea ahalik eta zuzenena izango da kanpoaldetik eta beti ere egokia motorrik ez duten ibilgailuentzako.*

*Aurreko atalekoak duen arau maila berdinarekin, dagoen bizileku eraikin batean berritze lan sakonak egiten badira, aurreko irizpide hori kontuan hartu beharko da, eta arau hori osorik edo neurri batean ezin bada bete, eskakizun horiek ezin bete izateko arrazoiak azalduko dira, eta beste alternatiba batzuk agertuko dira bizikletak eta motorrik gabeko gainerako ibilgailuak etxebizitzetan sartzeko. Era berean, bizileku erabilerak ez direnetarako eraikuntza berri guztiek izango dute bizikletak aparkatzeko esparru bat, kanpotik zuzenean sartzeko modukoa, eta eraikuntza horrek izango duen erabileraren araberako plaza kopurua izango du.*

6. puntua eranstea proposatzen dugu higitzen laguntzeko ibilgailuak gorde ahal izateko, esate baterako, haur-kotxeak, aulki gurpildunak, scooter elektrikoak edo erosketak eramateko orgatxoak. Sarrera ataritik izango dute leku horiek eta beheko solairuan egongo dira, ahal izanez gero bederen.

**6.- Higitzen laguntzeko ibilgailuak gordetzeko lokal hornidura.**

Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta, Plan Nagusi honen arabera eraikitako etxebizitza eraikin berri orok izango du beheko solairuan lokal bat higitzen laguntzeko ibilgailuak bertan gordetzeko, esate baterako, haur-kotxeak, erosketak eramateko orgatxoak, aulki gurpildun motordunak edo antzeko elementuak.

Lokal horretarako hornidura 1,5 m2 izango da etxebizitza bakoitzeko, eta 12 m2 gutxienez, bertan 2 metro diametroko zirkulua egiteko moduan eta 1,20 metroko altuerarekin gutxienez. Ahal izanez gero, beheko solairuan egongo da eta sarrera zuzena izango du ataritik.

# 4 3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Kasu honetan, artikuluaren erredakzio alternatiboa proposatu beharrean, proposatzen dugu artikuluak indarrean dagoen Babes Ofizialeko Etxebizitzen araudira jotzeko aipamena egitea. Era horretan ziurtatu egingo dugu etxebizitza libreak nahiz babestuak kalitate irizpide berdinetan oinarritzea. Horrenbestez, honela idatziko genuke artikuluaren lehen puntua:

> 1.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak, Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dauden **Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzek**, "Etxebizitzei eskatu beharreko baldintzak" atalean (edo antzeko tituluan) finkatutakoak izango dira programa, gutxieneko neurri, antolakuntza funtzional, argiteria baldintza eta osasungarritasunari dagokienean. Azalera gorenak ez dira aplikagarriak.

Neurri Zuzentzaileen dokumentuan proposatu dugun bezala, artikulu honetan gutxienez beste hiru puntu sartzeko beharra sumatu dugu. Gainerako gomendioak **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentuan jasotzea proposatzen dugu.

> 2.- **Logela bat** baino gehiagoko etxebizitzetan, pieza bakarra izan daiteke egongela-jangela-sukaldea, baldin eta, pieza horiek banaka hartuta, bakoitzak aireztapen eta argiztapen osagarria baditu kanpotik modu independentean, eta duen banaketagatik, sukaldea gainerakotik bereiz daitekeela ziurtatzen bada. Logela bakarreko etxebizitzetan bakarrik onartuko da esparru bereiztezin bakarra izatea.
>
> 3.- Banaketa planoetan berariaz aipatuta, biltegi gisa erabiltzeko espazio bat edo batzuk ziurtatuko dira honako gutxieneko balio hauekin:
>
> - Logela bateko etxebizitza — 2 modulu
> - Bi logelako etxebizitza — 3 modulu
> - Hiru logelako etxebizitza — 4 modulu
>
> Modulu batek 0,63 m3-ko bolumena hartzen du (0,5 metroko aurrealdea, 2,10 metroko altuera eta 0,6 metroko hondoa duen armairu bati dagokiona). Hondoa 0,35 metrokoa izango da gutxienez eta 0,65 metrokoa gehienez. Modulu 1 gehituko da beste logela bakoitzeko.

Biltegi gisa erabiltzeko gune horiek sarreran, igarobideetan edo egoteko lekuetan egongo dira eta zatitu ahal izango dira, modulu bateko gutxieneko zatiezina betetzen bada.

4.- Sukaldeen banaketari dagokionean BOEen araudian jasotako zehaztapenez gainera, 1:20 banaketa planoetan berariaz aipatuta, honako alderdi hauek bermatuko dira

- 0,25 m3-ko biltegi bolumen zatiezina (0.6x0.6x0.7metrori dagokiona), 0,35 metroko gutxieneko neurriarekin haren erpinetako edozeinetan neurtua eta 1,40 metroko altueraren azpitik.

- Lan azalera finkoak, honako baldintza hauek beteko dituztenak:

    - Gutxieneko guztizko azalera: 0,72 m2 (1,20 metroko aurrealdeari eta 0,60 metroko hondoari dagokiona)

    - Gutxieneko azalera jarraitua: 0,36 m2 (0,60 metroko aurrealdeari eta 0,60 metroko hondoari dagokiona)

    - Lan planoaren kota 0,85 m eta 0,95 m artean.

    - Gutxieneko altuera librea lan planoaren gainean: 0,50 m.

Azken puntu bat proposatzen dugu, eta idaztea gomendatzen dugun Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak dokumentura jotzeko aipatuko da hartan.

5.- Etxebizitzak definitzeko orduan **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentua erabiltzea gomendatzen da.

Artikulua dokumentu honetan oinarritu dela adieraziko da.

**Irungo HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta idatzi da artikulu hau.

# 5 3.3.3. Artikulua.- ETXEBIZITZETAN SARTZEKO ERABILERA KOMUNEKO ESPAZIO ETA ELEMENTUETAN APLIKA DAITEZKEEN BIZIGARRITASUN BALDINTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Elementu horien neurriak eta argiztapen mailak ezartzeko, uste dugu komeni dela indarrean dauden BOEen araudiarekin eta Irisgarritasun legearekin lotzea. Horrenbestez, aurreko artikuluan bezala, horietara jotzeko esango du lehenbiziko puntuak.

> 1.- Etxebizitza eraikinetako atarien, eskaileren eta erabilera komuneko eremuen diseinua, Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzek, “Eraikinari eskatu beharreko baldintzak” atalean (edo antzeko tituluan) eta Irisgarritasun Legean xedaturikoaren arabera definituko da.
>
> 2.- Atariak kanpoaldea ikusteko moduan diseinatuko dira, paramentu gardenak jarrita.
>
> 3.- Beheko solairuan, eskailera tranpala eta igogailua atariko sarreratik ikusteko moduan egokituko dira, eta ez da inolako zokorik egongo sartzeko atearen eta elementu horien artean.

Azken puntu bat proposatzen dugu, eta idaztea gomendatzen dugun Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak dokumentura jotzeko aipatuko da hartan.

> 4.- Espazio komunak definitzeko orduan **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentua erabiltzea gomendatzen da.

Artikulua dokumentu honetan oinarritu dela adieraziko da.

> Irungo HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez dokumentuan oinarrituta idatzi da artikulu hau.

# 6 3.3.6. Artikulua.- GARAJE ERABILERARAKO LOKALETAN APLIKA DAITEZKEEN FUNTZIONALTASUN BALDINTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Garajeen neurriak eta argiztapen mailak ezartzeko, uste dugu komeni dela indarrean dauden BOEen araudiarekin eta Irisgarritasun legearekin lotzea. Horrenbestez, aurreko artikuluan bezala, horietara jotzeko esango du lehenbiziko puntuak.

> 1.- Etxebizitza eraikinetako garaje erabilerarako lokalen diseinua, Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzek, “Garajeei eskatu beharreko baldintzak” atalean (edo antzeko tituluan) eta Irisgarritasun Legean xedaturikoaren arabera definituko da.
>
> 2.- Hirigune historikoetan lursailen kokaeragatik, edo antzeko gorabeherengatik, BOEen Ordenantzak aplikatu ezin diren lekuetan, ezinbesteko gutxieneko aldaketak justifikatu beharko dira garajeen erabilera egokia bermatzeko, beharreko segurtasun, osasungarritasun eta irisgarritasun baldintzak aintzat harturik. Eskumena duen udal bulego teknikoak finkatuko ditu irizpideak.

Azken puntu bat proposatzen dugu, eta idaztea gomendatzen dugun Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak dokumentura jotzeko aipatuko da hartan.

> 3.- Garaje erabilerarako lokalak definitzeko orduan **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentua erabiltzea gomendatzen da.

Artikulua dokumentu honetan oinarritu dela adieraziko da.

> Irungo HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez dokumentuan oinarrituta idatzi da artikulu hau.

# 7 3.3.8. Artikulua.- TRASTELEKU ERABILERARAKO LOKALETAN ESKA DAITEZKEEN FUNTZIONALTASUN BALDINTZAK GEHITZEKO PROPOSAMENA.

3.3. Kapituluan "Bizileku Erabilerako Eraikinetan aplikatu beharreko Lokalen Bizigarritasun Baldintza Orokorrak", ez dago trastelekuen ezaugarriak finkatzen dituen artikulurik. Horrenbestez, proposatzen dugu, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzak proposatzen dituen trastelekuen baldintzak eranstea, etxebizitzaren erabilerarako hain garrantzitsuak diren gune horiek definitzeko orduan gutxieneko kalitate maila bermatu ahal izateko.

> 1.- Etxebizitza eraikinetako trasteleku erabilerarako lokalen diseinua, Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzek, "Trastelekuei eskatu beharreko baldintzak" atalean (edo antzeko tituluan) xedaturikoaren arabera definituko da.

Artikulua dokumentu honetan oinarritu dela adieraziko da.

> Irungo HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez dokumentuan oinarrituta idatzi da artikulu hau.

# 8 3.6. Kapitulua.- BIZILEKU ERABILERA EZ DUTEN LURSAILETAN APLIKA DAITEZKEEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Ugari dira kapitulu honetan sar litezkeen gaiak, baina ezartzeko errazenak direnetan oinarrituko gara.

Alde batetik, Neurri Zuzentzaileen dokumentuan aipatu dugun bezala, 2. puntua aldatzea proposatzen dugu, karga eta deskargarako eremuen ingurukoa, eremu horietan segurtasuna bermatu ahal izateko. Dituen bi puntuez gainera, beste bat sartzea proposatzen dugu:

> ***3.6.2. Artikulua.- Erabilera baldintza orokorrak.***
>
> *(…)*
>
> ***2.- Karga eta deskargarako eremuak.***
>
> *- 3., 4. eta 5. kategorietako industri jarduerek; 4. eta 5. kategorietako merkataritza jarduerek eta, Udalak beharrezkotzat hartzen badu, 3. kategoriako merkataritza jarduerek ere edo, oro har, 1.500 m²(s)-tik gorako sabai azalera duten hirugarren sektoreko edo ekipamendu komunitarioko jarduerek –edo jarduera multzoek- okupaturiko eraikin guztiek izango dute barrualdean edo, erantsitako titularitate pribatuko eraiki gabeko espazioetan, merkantziak kargatu eta deskargatzeko eremu bat (bertako lokal guztiek izango dute sarbidea hartara), kamio artikulatu bat sartzeko beharreko lekuarekin, eta bide publikoan maniobrarik egin gabe ibilgailuak sartu eta ateratzeko aukera emango duen sarbidea 1.500 m²(s)-tik gorako sabai azalera duten industria jarduerek, edo 5. kategoriako merkataritza jarduerek okupaturiko lursailek, horietan bi (2) plazakoa izango da karga eta deskargarako espazioaren gutxieneko neurria.*
>
> *- Eraikineko goiko solairu batean baldin badago jarduera, eta hartara sartzeko beharreko ezaugarriak dituen arrapalarik ez badu, beheko solairuan edo erantsitako espazio pribatu ez eraikian izango du espazio hori, hartatik iristeko moduan, eta karga eta deskargarako atondoa ere beharko du maila berean, beheko solairuko karga eta deskarga espazioarekin lotua karga-igogailuaren bidez.*

Honela idatz liteke puntu berria:

- Oinezkoen ikuspena bermatu beharko du karga eta deskarga jarduerak. Halatan, jarduera horretarako eremua oinezkoen igarobide batetik hurbil badago, igarobide horren atzean kokatuko da, bidearen zirkulazio norabidean.

Bestalde, aparkalekuetan oinezkoen segurtasuna bermatu ahal izateko, beste artikulu bat sartzea proposatzen dugu haien baldintzak bertan definitzeko.

**3.6.4. Artikulua. Azalerako aparkalekuak diseinatzeko baldintzak.**

1.- Aplikazio esparrua

- Industria, merkataritza edo ekipamendu lursailetan eta haietako zirkulazio bideetan eta sarbideetan azaleran dauden aparkalekuak.

2.- Baldintza orokorrak

- Oinezkoen ibilbideak definituko dira aparkaleku plaza guztietatik. Ibilbide segurua bermatuko da espaloiraino, oinezkoen eremuraino edo beharreko eraikineraino.

- Ibilbide horien gutxieneko zabalera definitzeko orduan aintzat hartuko dira aparkaleku plazen kopurua eta espero den jende fluxua, baina 1,20 metroko zabalera izango dute gutxienez.

- Merkataritza guneetako eta ekipamenduetako aparkalekuetan, adin txikikoak, adineko pertsonak edo/eta mugitzeko laguntza behar duten pertsonak ibiltzen diren lekuetan, sare bat osatuko dute oinezkoen ibilbide horiek. Haren gutxieneko zabalera 1,50 metrokoa izango da bigarren mailako korridoreetan eta 2,00 metrokoa, berriz, korridore nagusietan.

- Oinezkoen ibilbidea aparkalekutik kanpoko bide baten albotik badoa eta bide horretan ibilgailuek abiadura gorena orduko 50 km-tik behera mugatua badute, ibilbidea bide horretatik bereizi egingo da 0,50 metroko altuerako hesiarekin edo zoladura goratuarekin. Ibilgailuak orduko 50 km-ra edo azkarrago joan badaitezke, hesi horiek 0,80 metrokoak izango dira gutxienez edo zoladura goratuak babes fisikoren bat izango du. Kasu horretan, betiere 1,50 metrokoa edo handiagoa izango da ibilbidearen zabalera.

- Zoladura desberdinarekin edo pinturarekin bereiziko dira oinezkoen ibilbide guztiak.

- Beharreko argiztapena izango dute oinezkoen ibilbideek, gutxienez 20 luxeko argiztapena (zoruaren mailan neurtua) emateko moduko argiteriarekin, eta batez beste % 40ko uniformetasun faktorea merkataritza guneetako eta ekipamenduetako

aparkalekuetan. Industri erabilerako lursailetako aparkalekuetan 15 luxekoa izango da gutxieneko argiztapena.

- Zirkulazio kodean zehaztutakoaren arabera seinaleztatuko dira:

  - Zirkulazioaren norabidea eta irteerak.
  - Zirkulaziorako abiadura gorena.
  - Igarotzeko eremuak eta oinezkoen igarobideak.

- Gauzak pilatzeko eta karga eta deskargarako eremuak seinaleztatuko dira, zoladuran bide markez edo pinturaz mugatzeaz gainera.

Azkenik, ekipamendu publiko berri guztiek bederen kale oinean, edo erraz iristeko moduan, komuna izan dezaten bermatzeko, beste artikulu bat sartzea proposatzen dugu:

**3.6.5. Artikulua. Eraikin publikoetako higiene-osasun ekipamenduak.**

1.- Aplikazio esparrua

- Eraikuntza berriko eraikinak edo ekipamendu publikoak edo berritu behar direnak.

2.- Baldintza orokorrak

- Komunak jarriko dira, ahal bada bederen kanpotik, edo bestela, beheko solairutik sarrera dutenak, justu sarreraren aldameneko eremuan. Komun hori ahal den ordutegi zabalenean erabiltzeko aukera emango da.

- Sexuen arabera bereizitako komunek haurrak aldatzeko lekua izango dute bi konpartimenduetan, eta komun-ontzia eta konketa ere gutxienez.

Artikulu hauek dokumentu honetan oinarritu direla adieraziko da.

Irungo HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez dokumentuan oinarrituta idatzi da artikulu hau.

Azken puntu honi, idaztea gomendatzen dugun Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak dokumentura jotzeko aipamena egiten duen esaldia eranstea proposatzen dugu.

**Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak** dokumentua erabiltzea gomendatzen da.

# 9 ERABILERA XEHEKO EREMUAK ARAUTZEKO ORDENANTZETAN PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

Neurri Zuzentzaileen dokumentuan aipatu dugun bezala, aldatzea proposatu dugun bizileku erabilera ez duten lursailen baldintza orokorretara jotzen dute kapitulu batzuek. Honako hauek dira kapitulu horiek:

4.14. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Hotela (TH)

4.15. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Merkataritza (TC)

4.16. Kapitulua.-Hirugarren Sektorea Bulegoak (TO)

4.17. Kapitulua.- Hirugarren sektorea Garajeak (TK)

4.18. Kapitulua.- Hirugarren Sektorea Gasolindegia (TG)

4.20. Kapitulua.- Hirugarren sektorea Aisia (TE)

4.21. Kapitulua.-Eskola Ekipamendua (EE EP)

4.22. Kapitulua.-Kirol Ekipamendua (ED EJ)

4.23. Kapitulua.-Instituzio Ekipamendua (EI)

4.24. Kapitulua.-Osasun Ekipamendu Publikoa (EM)

4.25. Kapitulua.-Laguntza Ekipamendua (EA EL)

4.26. Kapitulua.-Kultur Ekipamendua (EC)

4.27. Kapitulua.-Erlijio Ekipamendua (ER)

4.28. Kapitulua.-Zerbitzu Publikoen Ekipamendua (ES)

4.29. Kapitulua.-Aduana Ekipamendua (EN)

4.30. Kapitulua.- Hornidura bizilekuak (AD)

4.31. Kapitulua.-Zehaztu Gabeko Ekipamendua (EX)

4.33. Kapitulua.-Hiri arteko Bideak eta Egituratzaileak (VI / VE)

4.34. Kapitulua.-Hiri Bide Banatzaileak eta Tokiko Bideak (VD / VL)

4.35. Kapitulua.-Bide Sistemak Aparkalekua (VP)

4.36. Kapitulua.-Bide Sistemak Bide Pribatuak (VK)

4.40. Kapitulua.- Espazio Libreak (LP LJ LL LK)

Horietan guztietan dago artikulu bat, Erabilerak Ezartzeko Baldintza Espezifikoak, honela idatzia:

***4._.2.2. Artikulua.- Erabilerak Ezartzeko Baldintza Espezifikoak.***

*Araudi honen Hirugarren Tituluaren 3.6 Kapituluak xedaturikoa aplikatuko da, bizileku erabilera ez duten lursailei aplika dakizkiekeen eraikuntza eta erabilera baldintza orokorrei dagokienean.*

Honako erredakzio alternatibo hau proposatzen dugu artikulu honetarako:

**4._.2.2. Artikulua.- Erabilerak Ezartzeko Baldintza Espezifikoak.**

Araudi honen Hirugarren Tituluaren 3.6 Kapituluak xedaturikoa aplikatuko da, bizileku erabilera ez duten lursailei aplika dakizkiekeen eraikuntza eta erabilera baldintza orokorrei dagokienean.

Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta idatzi da kapitulua, eta Plan Nagusian barneratze irizpideak sartzea du xede.

Gainerako fitxetan ere sar liteke dokumentu honen aipamena, bere ikusgaitasuna handitu ahal izateko.

- Aintzat hartuko dira Irungo **HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez** dokumentuan oinarrituta Plan Nagusian jasotako barneratze irizpideak.

# 10 HAPNaren DOKUMENTUAN HIRI DEBEKATUAREN MAPA SARTZEA.

Neurri Zuzentzaileen atalean proposatu dugun bezala, Irungo Hiri Debekatuaren Mapan sumaturiko puntuak, oraindik erantzuna eman ez zaienak, **Plan Nagusian jaso** beharko lirateke bi atal bereizitan:

1. Laugarren Tituluko araudiaren laburpen fitxetan. **Oharpenak** atalak egokia dirudi gai honen aipamena sartzeko eta Maparen Txostenera jotzeko esateko.

2. Dagozkien Plangintza Esparru guztietan. Ohar hau **1.- Deskribapena** puntuan sartu beharko litzateke eta hor aipatu Irungo Hiri Debekatuaren Mapa dokumentuko 1. Eranskinera jotzeko. Hori Plan Nagusiaren dokumentuaren eranskin gisa gehitzea proposatzen dugu halaber.

## Ordenantza Xeheen Laburpen Fitxetan sartzea

Erabilera xeheko eremu bakoitzeko laburpen fitxetan bada azken atal bat beharreko oharkizunak jasotzen dituena. Proposatzen dugu eremu zehatzei dagozkien fitxa guztietan aipamena egitea eremu horien inguruetan puntu gatazkatsu bat sumatu baldin bada Irungo Hiri Debekatuaren Maparen dokumentuan. Honako esaldi hau sartzea proposatzen dugu:

> Erabilera Xeheen Ordenantza honen aplikazio esparruan bada **"Irungo Hiri Debekatuaren Mapan"** puntu gatazkatsu gisa aipatutako puntu bat. Kontsultatu Plan Nagusi honen Eranskin gisa doan dokumentu hori

Udaleko bulego teknikoko arduradunek egokitzat hartzen dituzten laburpen fitxa guztietan sartuko da aipamen hori.

## Plangintza Esparruetan sartzea

Gai duen eremuaren deskribapen txiki batekin hasten da esparru bakoitzeko lehenengo puntua, esku hartzearen helburu nagusiarekin batera. Ukituriko esparruen deskribapenaren amaieran ondoko esaldi hau sartzea proposatzen dugu:

> Esparru hau, gaur egungo egoeran, identifikatua dago Irungo Hiri Debekatuaren Mapan. Kontsultatu Plan Nagusiaren Eranskin gisa doan **"Hiri Debekatuaren mapa"** dokumentua eremu honen diagnostikoa eta gomendatu edo aurreikusitako jarduera proposamenak ezagutzeko.

Hemendik aurrera egiten diren Hiri Debekatuaren Mapak edo antzeko dokumentuak Plan Nagusian sartzea gomendatzen dugu, horrelakorik egiten bada behintzat.

| | |
|---|---|
| Miren Vives Urbieta, Arkitektoa | Patxi Galarraga Aiestaran, Arkitektoa |

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# V. DOCUMENTUA

# ERAGINAREN TXOSTENA

# 1 HELBURUA

Eraginaren Txosten honen helburua da **"HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez"** dokumentuak udalerriko HAPNaren berrikuspena osatzen duten dokumentuetan izango duen eragina baloratzea.

# 2 AURREKARIAK

**"HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez"** txostenak 2012ko ekainaren 20ko Aginduan du jatorri. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak bultzatu zuen agindu hura udal hirigintzan genero ikuspegia sartu ahal izateko, 2012an diru-laguntzak emanda Udalei eta Eraberritzeko Hirigintza Elkarteei.

Agindu hark xedaturikoarekin bat dator egindako txostenaren edukia: hala, 1. artikuluak adierazten zuen Aginduaren helburua zela "ondoko dokumentu hauetakoren bat egiteko beharreko laguntza teknikoa kontratatzeko gastuak finantzatzeko (zergak barne) diru-laguntzak emateko oinarriak finkatzea (...)":

- Udalerriko hiri-sare osoaren edo zati baten hirigintza analisia, hiri edo plangintza diagnostikoa genero ikuspegia aintzat hartuta.
- Diruz lagundutako dokumentuan bertan, edo hirigintza esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturik, aurrez egindako beste batean, planteatzen diren neurri zuzentzaileak ezartzeak berekin eramango lituzkeen araudi aldaketak aztertzea.
- Plan Orokorren, Arau Subsidiarioen edo gainerako udal antolakuntza irudien diagnostikoa, ebaluazioa edo/eta egokitzapena emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

Hortaz, 6 dokumentuk osatzen dute "HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez" txostena, eta horietan jaso dira Irungo Udalak aintzat hartu zituen edukiak:

1. Aurrekariak, Testuingurua, Helburuak.
2. Analisia eta diagnostikoa.
3. Neurri Zuzentzaileak.
4. Erredakzio Alternatiborako proposamenak.
5. Eraginaren txostena.
6. Dokumentuak Irungo HAPNan izango duen eragina ebaluatzeko gida.

Txosten hau egin den garaian, hasierako onarpen fasean dago HAPNaren berrikuspena, 2013. urtea amaitu aurretik behin-behineko onarpena lortzeko itxaropenarekin. Horrek esan nahi du parte hartzeko ekarpen publikoak biltzeko prozesuetarako epeak pasa direla jada, dokumentuetan egiten ari diren berrikuspenak

lege ikuspegitik ari direla egiten, dokumentua inguruan duen esparru arau-emaile osora guztiz egokituko dela bermatzeko.

# 3 NEURRI ZUZENTZAILEAK

Irungo Hiri Antolamendurako Planean ikuspegi barneratzailea sartzea besterik ez da Neurri zuzentzaileen helburua, herritarren abiapuntuko desberdintasunak orekatzen lagun dezaketen araudiaren puntuak hauteman ahal izateko betiere.

Kontua da jadanik onartua dagoenarekin kontraesanik ez sortzea, eta testuko ordenantzak ahalik eta modu eraginkorrenean osatzea. Horrenbestez, neurri zuzentzaileak identifikatzeko eta gero erredakzio alternatiboa egiteko erabilitako irizpidea eraginkortasuna bilatzea izan da, proposamen xumeak eginda eta haiekin HAPNaren dokumentuen edukia osatuta.

Planteamendu hau egin da HAPNaren berrikuspena oso aurreratua dagoen garai batean hasi delako lan hau, eta horrek murriztu egin ditu eztabaidarako edo parte hartzeko zeharkako prozesu luze samarrak bultzatzeko metodologiak planteatzeko aukerak, kontuan izanik proposamen konplexuagoak egin ahal izango zirela hala izan ez balitz.

# 4 ERREDAKZIO ALTERNATIBORAKO PROPOSAMENAK

Erredakzio alternatiboa edo, behar izanez gero, berria, zein artikulutan proposatzen dugun azalduko dugu ondoren:

1. 2.5.6. Artikulua.- Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
2. 3.1.2. Artikulua.- Eraikuntza aprobetxamendua kontatzeko irizpideak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
3. 3.2.1. Artikulua.- Bizileku erabilerako lursailetan baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorra ALDATZEKO PROPOSAMENA.
4. 3.3.2. Artikulua.- Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
5. 3.3.3. Artikulua.- Etxebizitzetan sartzeko erabilera komuneko espazio eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
6. 3.3.6. Artikulua.- Garaje erabilerarako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
7. 3.3.8. Artikulua.- Trasteleku erabilerarako lokaletan eska daitezkeen funtzionaltasun baldintzak GEHITZEKO PROPOSAMENA.
8. 3.6. Kapitulua.- Bizileku erabilera ez duten lursailetan aplika daitezkeen eraikuntza eta erabilera baldintzak ALDATZEKO PROPOSAMENA.
9. Erabilera Xeheko Eremuak Arautzeko Ordenantzetan PROPOSATUTAKO ALDAKETAK.
10. HAPNaren DOKUMENTUAN HIRI DEBEKATUAREN SARTZEA.

Gorago adierazi dugun bezala, “HAPNaren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokionez” txostena idazterakoan kontuan hartu da HAPNaren berrikuspena hain aurreratua egoteak sortzen duen baldintzatzailea. Hainbat artikulu aldatzeko egin dugun proposamenean bertan kontuan izan da HAPNaren berrikuspenak administrazio-prozesu neketsua daramala berekin, eta horrenbestez, HAPNaren berrikuspena osatzen duten dokumentuen erredakzioan eraginik izango ez duten proposamenak egin ditugu. Kalte ez egite horri esker, helburu bikoitza lortu nahi da: alde batetik, HAPNaren egutegian ahalik eta traba txikiena egitea, eta bestetik, txostenean jasotako neurri zuzentzaileak ez sartzea justifika lezaketen arrazoiak baztertzea.

# 5 IRUNGO HIRI PLANGINTZAN GENERO IRIZPIDEAK SARTZEKO ADIERAZLEAK ETA GOMENDIOAK

Neurri zuzentzaile guztiek ez dute beren erredakzio proposamen alternatiborik. Txostenak proposatzen du “Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak” dokumentuan jasotzea neurrietako batzuk. Horrekin baztertu egingo da gomendio horietan jasotako neurri zuzentzaileek ekar lezaketen eragin oro.

Horren haritik, “Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak sartzeko Adierazleak eta Gomendioak” dokumentuak ez luke inolako kalterik ekarriko eta ez luke inolako eraginik izango HAPNaren berrikuspen dokumentuetan.

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# VI. DOCUMENTUA

# DOKUMENTUAREN EBALUAZIO GIDA

# 1 HELBURUA

**Dokumentua ebaluatzeko Gida** honen helburua da **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez Irungo HAPN-ren Diagnostikoa, Ebaluazioa eta Egokitzapena** dokumentuaren eragina ebaluatzea, bere ibilbidea aztertzea eta Irungo Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren aplikazio prozesuetan sartzeko modua nola hobetu aurreikustea.

Gida honen xedea da genero ikuspegia sartzean transbersalitateari lekua egitea: ez du azterketa bat izan nahi, txosten honetako gaia behar bezala sartzeko gida modura balioko luketen adierazleak zeintzuk diren erakutsi nahi du.

2. puntuan dokumentuaren eragina baloratzeko erabiltzea proposatzen ditugun adierazleak aurkeztuko ditugu. Bildutako datuak sexuaren eta adinaren arabera banatuko dira, eta horrek balorazioaren ikuspegi egiazkoagoa emango digu.

3. puntuan galdeketa txiki bat definituko dugu, eta horrek datuak emango dizkigu txostenaren ulergarritasunaz, erabilgarritasunaz eta balorazio globalaz, irakurri dutenen iritziaren bidez.

# 2 ADIERAZLEAK

## 2.1 DOKUMENTUAREN HEDADURA PUBLIKOA

1. Dokumentua udal web orrian aurkeztea eta argitaratzea:
   a. www.irun.org/ orrian argitaratzea **[Bai / Ez]**
   b. www.irun.org/mujer/ orrian argitaratzea **[Bai / Ez]**
   c. www.irun.org/pgou/ orrian argitaratzea **[Bai / Ez]**
   d. Dokumentua jaisteko lotura www.irun.org/ orrian **[Bai / Ez]** **[Kargatze kopurua]**
   e. Dokumentua jaisteko lotura www.irun.org/mujer/ orrian **[Bai / Ez] [Kargatze kopurua]**
   f. Dokumentua jaisteko lotura www.irun.org/pgou/ orrian **[Bai / Ez] [Kargatze kopurua]**

2. Dokumentua komunikabideetan eta gizarte sareetan aurkeztea:
   a. Aipamena udal aldizkarian argitaratzea. **[Bai / Ez]** **[Ale kopurua]**
   b. Komunikabideetan izan duen oihartzuna. **[Aipamen kopurua]**

3. Dokumentua herritarrei saio irekietan aurkeztea eta azaltzea:
   a. Ondorioak:
      i. **[Saio kopurua]**
      ii. **[Saioen iraupena]**
      iii. **[Guztira saioetara bildutako jendea]**
   b. Udalaren inplikazioa:
      i. **[Bertaratutako kargu publikoen kopurua]**
      ii. **[Bertaratutako udal teknikarien kopurua]**
   c. Erredakzio-taldearen ikusgaitasuna:
      i. **Saioetara joan den. [Bai / Ez]**
      ii. **Programatutako esku-hartzea. [Bai / Ez]**

## 2.2 DOKUMENTUAREN HEDADURA HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ARLOAN

4. Dokumentuaren zabalkundea: eman al zaie kopiarik ondoko hauei?
   a. Hirigintza eta Ingurumen Arloko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
   b. Hirigintza eta Ingurumen Arloko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
   c. Arloko beste teknikari batzuei. **[Teknikari kopurua]**
   d. Hirigintzako Aholku Kontseiluko ordezkariei **[Ordezkari kopurua]**

5. Dokumentuaren feedback-a: Ebaluazio inprimakiari jarraiki, egin al du ondorengoren batek ekarpenen bat?
   a. Hirigintza eta Ingurumen Arloko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
   b. Hirigintza eta Ingurumen Arloko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**
   c. Arloko beste teknikari batzuek. **[Ekarpen kopurua]**
   d. Hirigintzako Aholku Kontseiluko ordezkariek **[Ordezkari kopurua]**
   e. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
   f. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
   g. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.3 DOKUMENTUAREN HEDADURA GIZARTE ONGIZATE, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOAN

6. Dokumentuaren zabalkundea: eman al zaie kopiarik ondoko hauei?
   a. Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
   b. Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
   c. Arloko beste teknikari batzuei. **[Teknikari kopurua]**

7. Dokumentuaren feedback-a: Ebaluazio inprimakiari jarraiki, egin al du ondorengoren batek ekarpenen bat?
   a. Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
   b. Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**
   c. Arloko beste teknikari batzuek. **[Ekarpen kopurua]**
   d. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
   e. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
   f. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.4 DOKUMENTUAK BERDINTASUNERAKO BATZORDEAN IZAN DUEN HEDADURA

8. Dokumentuaren zabalkundea: eman al zaie kopiarik ondoko hauei?
   a. Berdintasunerako Batzordeko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
   b. Berdintasunerako Batzordeko kideei. **[Batzordekide kopurua]**
   c. Berdintasunerako Plana idazteko prozesuan aholkularitza enpresako kideei. **[Ordezkari kopurua]**

9. Dokumentuaren feedback-a: Ebaluazio inprimakiari jarraiki, egin al du ondorengoren batek ekarpenen bat?
   a. Berdintasunerako Batzordeko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
   b. Berdintasunerako Batzordeko kideek. **[Batzordekide kopurua]**
   c. Berdintasunerako Plana idazteko prozesuan aholkularitza enpresako ordezkariek. **[Ordezkari kopurua]**
   d. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa**.** **[Puntuazioa]**
   e. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
   f. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.5 DOKUMENTUAREN HEDADURA ADMINISTRAZIOAREN BESTE ARLO BATZUETAN ETA BESTELAKO ERAKUNDEETAN

10. Dokumentuaren zabalkundea: eman al zaie kopiarik ondoko hauei?
    a. Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
    b. Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Plan Estrategikoko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
    c. Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze Arloko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
    d. Agenda 21eko arduradun politikoari. **[Bai / Ez]**
    e. Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
    f. Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Plan Estrategikoko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
    g. Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze Arloko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
    h. Agenda 21eko arduradun teknikoari. **[Bai / Ez]**
    i. Bidasoa Bizirik, Bidasoko garapen agentziaren arduradunari. **[Bai / Ez]**
    j. Irunvi - Irungo Etxebizitzarako Sozietate Publikoari. **[Bai / Ez]**

11. Dokumentuaren feedback-a: Ebaluazio inprimakiari jarraiki, egin al du ondorengoren batek ekarpenen bat?
    a. Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
    b. Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Plan Estrategikoko arduradun poliotikoak. **[Bai / Ez]**
    c. Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze Arloko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
    d. Agenda 21eko arduradun politikoak. **[Bai / Ez]**
    e. Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**

f. Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Plan Estrategikoko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**
g. Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze Arloko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**
h. Agenda 21eko arduradun teknikoak. **[Bai / Ez]**
i. Bidasoa Bizirik, Bidasoko garapen agentziaren arduradunak. **[Bai / Ez]**
j. Irunvi - Irungo Etxebizitzarako Sozietate Publikoak. **[Bai / Ez]**
k. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
l. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
m. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.6 DOKUMENTUAK HAPN IDATZI DUEN TALDEAN IZANDAKO HEDAPENA

12. Dokumentuaren zabalkundea: eman al zaie kopiarik ondoko hauei?
    e. Irungo HAPN idatzi duen taldeko kideei. **[Zenbati]**

13. Dokumentuaren feedback-a: Ebaluazio inprimakiari jarraiki, egin al du ondorengoren batek ekarpenen bat?
    h. Irungo HAPN idatzi duen taldeko kideek. **[Zenbatek]**
    i. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
    j. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
    k. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.7 DOKUMENTUAREN ZEHARKAKO EBALUAZIOA

14. Dokumentua eztabaidatzea eta ebaluatzea, ondorengo sail hauetako arduradun teknikoekin saio partekatuak eginez:

- Hirigintza.
- Gizarte Ongizatea.
- Berdintasuna.
- Agenda 21.
- Mugikortasuna.

a. Ondorioak:

i. **[Saio kopurua]**
ii. **[Saioen iraupena]**
iii. **[Saioetan parte hartzen duten sailak]**
iv. **[Saioetara bildutako beste batzuk]**
v. **[Guztira saioetara bildutako jendea]**

b. Ebaluazioa:

i. Genero ikuspegia hirigintzan sartzearen inguruan emandako batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
ii. Dokumentuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**
iii. Ebaluazio prozesuaren batez besteko balorazioa. **[Puntuazioa]**

## 2.8 DOKUMENTUAREN BARNERATZE-MAILA

15. Dokumentuak HAPN-n duen ikusgaitasuna:
    a. Dokumentua aipatzen duten artikuluak. **[Kopurua]**

16. Dokumentuak arau-izaerako beste dokumentu batzuetan duen ikusgaitasuna. Aipatzen al dute txostena ondorengo dokumentu hauetan?:
    a. Hiriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana. **[Bai / Ez]**
    b. Mugikortasunaren inguruko Ordenantza. **[Bai / Ez]**
    c. III. Berdintasun Plana. **[Bai / Ez]**
    d. Beste batzuk. **[Bai / Ez]** Zehaztu:

17. Dokumentuaren eraginkortasuna:
    a. Lehenago idatzitako testuan aldaketa izan duten HAPNko artikuluak. **[Kopurua]**
    b. Proposatutako artikuluekiko aldaketa izan duten HAPNko artikuluak **[Ehunekoa]**
    c. Txostenera bideratzen duten HAPNko artikuluak. **[Kopurua]**

18. **Irungo Hiri Plangintzan Genero Irizpideak Sartzeko Adierazleen eta Gomendioen** dokumentua idaztea.
    a. Positiboki baloratzen al da dokumentu hori idatzi beharra? **[Bai / Ez]**
    b. Laster idatziko ote da? **[Bai / Ez]**

19. **Irungo Hiri Debekatuaren Maparen** ikusgaitasuna
    a. Hiri Debekatuaren Mapa HAPN dokumentuan eranskin gisa sartzea. **[Bai / Ez]**
    b. Mapa aipatzen duten artikuluak. **[Kopurua]**

# 3 EBALUAZIO INPRIMAKIA

***"IRUNGO HAPN-REN DIAGNOSTIKOA, EBALUAZIOA ETA EGOKITZAPENA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ"***
**IZENEKO TXOSTENAREN EBALUAZIO INPRIMAKIA**

1. Balorazioa egiten duen pertsona
    a. Kargua/Postua
    b. Arloa
    c. Sexua
    d. Adina

*Balora itzazu ondorengo baieztapenak 1etik 5era (1: batere ados ez / 5: erabat ados)*

2. Genero Ikuspegia aintzat hartzen duen Hirigintzari dagokionez
    a. Genero ikuspegia beharrezkoa da Hirigintzan.

3. I AURREKARIAK, TESTUINGURUA ETA HELBURUAK dokumentuari dagokionez
    a. Ideiak behar bezain argi adierazita daude.
    b. Positiboki baloratzen ditut bertan azaltzen diren gaiak.

4. II ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA dokumentuari dagokionez
    a. Gaiak argi azalduta daude.
    b. Bat nator analisiaren ondorioekin.

5. III NEURRI ZUZENTZAILEAK dokumentuari dagokionez
    a. Ideiak behar bezain argi adierazita daude.
    b. Egokiak iruditzen zaizkit proposatzen diren gogoetak.

6. IV ERREDAKZIO ALTERNATIBOA dokumentuari dagokionez

   a. Testua ulertzeko moduan dago idatzita.
   b. Ados nago bertan egiten diren proposamenekin.

7. V AFEKTAZIOAREN INGURUKO TXOSTENA dokumentuari dagokionez
   a. Testua ulertzeko moduan dago idatzita.

8. VI EBALUAZIO GIDA dokumentuari dagokionez
   a. Positiboki baloratzen dut emandako ikuspuntua.

9. Ebaluazio prozesuaren balorazioa.

10. Oharrak / Iradokizunak

| | |
|---|---|
| | |
| Patxi Galarraga Aiestaran, Arkitektoa | Miren Vives Urbieta, Arkitektoa |

1. **Balorazioa egingo duen pertsonari dagokionean**

    a. Kargua/Postua/Arloa
    b. Sexua
    c. Adina

***Baloratu ondoko baieztapenak 1etik 5era (1ek desadostasuna esan nahi du eta 5ek guztiz bat etortzea).***

2. **Genero ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintzaren inguruan**
    a. Genero ikuspegia beharrezkoa da Hirigintzan.

3. **I. dokumentuaren inguruan: AURREKARIAK, TESTUINGURUA ETA HELBURUAK**
    a. Behar bezain garbi azaltzen dira ideiak.
    b. Positiboki baloratzen ditut landutako gaiak.

4. **II. dokumentuaren inguruan: ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA**
    a. Garbi landu dira gaiak.
    b. Bat nator analisiaren ondorio nagusiekin.

5. **III. dokumentuaren inguruan: NEURRI ZUZENTZAILEAK**
    a. Behar bezain garbi azaltzen dira ideiak.
    b. Proposatutako gogoetak egokiak iruditzen zaizkit.

6. **IV. dokumentuaren inguruan: ERREDAKZIO ALTERNATIBOA**
    a. Modu ulergarrian idatzia dago testua.
    b. Bat nator egindako proposamenekin.

7. **V. dokumentuaren inguruan: ERAGINAREN TXOSTENA**
    a. Modu ulergarrian idatzia dago testua.

8. **VI. dokumentuaren inguruan: EBALUAZIO GIDA**
    a. Positiboki baloratzen dut ikuspegia.

9. **Ebaluazio prozesuaren balorazioa.**

10. **Oharkizunak / Iradokizunak**

URBESFORALL
HIRIGINTZA BARNERATZAILEA
URBANISMO INCLUSIVO

# I. ERANSKINA

# BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ARAUDIA

# Xedapen Orokorrak

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**1160**

AGINDUA, 2009ko otsailaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituena.

2002ko abenduaren 30eko Aginduaren bitartez, une honetan indarrean dauden babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartu ziren, garai hartako ordenantzak eguneratzeko helburuarekin, besteak beste Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea eta lege hori garatzeko arau teknikoak, azaroaren 10eko 3148/1978 Errege Dekretuan ezarritakoa betez, 1994ko maiatzaren 18ko Aginduak onartu zituenak.

Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako nahitaezko arau teknikoak ezartzen dituzte ordenantza horiek.

2000ko maiatzaren 6an indarrean hasi zen Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen azken xedapenetatik bigarrena betez, 2006ko martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren arabera Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu zen (lege horrek baimena eman zion gobernuari Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzeko), eta, horri esker, arauzko esparru berri bat sortu zen eraikuntzaren oinarrizko betekizunak betetzeko, pertsonen segurtasuna, gizartearen ongizatea, eraikuntzaren iraunkortasuna eta ingurumenaren babesa bermatzeko helburuarekin.

Hala, Eraikuntzaren Kode Tekniko horrek, funtzionalitateko, segurtasuneko eta bizigarritasuneko oinarrizko betekizunei dagokienez eraikinek bete beharreko eskakizunak ezartzen ditu.

Eraikuntzaren Kode Tekniko horrek 1979az geroztik onartutako Oinarrizko Arauak ordezten ditu, berezko arau multzo koordinatua osatzeko gauza izan ez zirela aintzat hartuta.

Hori dela-eta, babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak, beste zenbait gai arautzeaz gain, arau horien osagarri dira, eta diseinurako nahitaezko zenbait arau tekniko ezartzen dituzte.

Arauzko eremu berri eta zabalagoaren barnean, zenbait arau errepikatu egiten dira, eta zenbait alderditan kontraesana ere nabari da. Beraz, babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak eguneratu behar dira, Eraikuntzaren Kode Teknikoan dagoeneko jasota dauden alderdiak ezabatuz, eraikinek, beren instalazioak barne, segurtasuneko eta bizigarritasuneko oinarrizko

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**1160**

ORDEN de 12 de febrero de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se aprueban las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial.

Mediante Orden de 30 de diciembre de 2002, se aprobaron las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial actualmente en vigor cuyo fin consistía en actualizar las Ordenanzas existentes en dicho momento, entre otras a la Ley 20/1997 para la Promoción de la Accesibilidad y sus normas técnicas de desarrollo, las cuales fueron aprobadas por la Orden de 18 de mayo de 1994, en virtud de lo establecido por el Real Decreto 3148/1978 de 10 de noviembre.

Dichas ordenanzas establecen las normas técnicas de diseño obligatorias en la configuración de vivienda de protección oficial.

Con la aprobación del Código Técnico de la Edificación según Real Decreto 314/2006 de 17de marzo de 2006 en virtud de la disposición final segunda de la Ley 38/1999 de Ordenación de la Edificación que entro en vigor el 6 de mayo de 2000, según la cual se autorizaba al gobierno para la aprobación del Código Técnico de la Edificación, se creó un nuevo marco normativo que pretende dar cumplimiento a los requisitos básicos de la edificación con el fin de garantizar la seguridad de las personas, el bienestar de la sociedad, la sostenibilidad de la edificación y la protección del medio ambiente.

Así, dicho Código Técnico de la Edificación establece las exigencias que deben cumplir los edificios en relación con los requisitos básicos de funcionalidad, seguridad y habitabilidad.

Este código Técnico de la Edificación sustituye las Normas Básicas aprobadas desde 1979 las cuales no llegaron a constituir en si mismo un conjunto normativo coordinado.

Es por esto, que las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial, entre otros aspectos regulados, venían a complementar dichas normas estableciendo una serie de normas técnicas de diseño obligatorias.

Dentro del nuevo y mas amplio marco normativo, se da una redundancia en las normas llegando en algunos aspectos a entrar en contradicción, por lo que se hace necesaria la actualización de las ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial donde se eliminan los aspectos ya recogidos en el Código Técnico de la Edificación por ser de obligado cumplimiento para los

betekizunak betetzeko, alderdi horiek nahitaez bete behar dituztela aintzat hartuta.

Aldi horretan beste zenbait arau onartu dira eraikuntza eta instalazioen sektoreari eragiten diotenak, hala nola abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena, 1027/2007 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duena, eta 2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Industria, Energia eta Meategien zuzendariarena, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-29 Instrukzio Teknikoa aplikatzeko jarraibideak ematen dituena, garajeen segurtasun elektrikoari eta aireztapenari dagokienez.

Horren guztiaren ondorioz, babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako baldintzetarako ezarritako erregulazioa aldatu behar da.

Nolanahi ere, 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren zenbait erregulaziok indarrean jarraitzen dute, kontuan hartuta egun etxebizitzari buruzko ikuspegia aldatu egin dela, eta ordenantzetatik kanpo geratu ziren errealitate sozial batzuk sartu behar direla.

Orain artean adierazi duguna aintzat hartuta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 10.31. artikuluan onartutako etxebizitza-arloko eskumen esklusiboa baliatuz, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa betez, honako hau,

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzea (agindu honen eranskinean jasota daude). Babes ofizialeko etxebizitzen proiektuei aplikatu behar zaizkie, baldin eta horien behin-behineko kalifikazioa ordenantzak indarrean hasi ondoren eskatzen bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu hau indarrean hasi aurretik eskabidea aurkeztu duten eta/edo behin-behineko kalifikazioa lortu duten espedienteak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean erregistratu direnak aurreko araudiaren arabera arautuko dira ondorio guztietarako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2002ko abenduaren 30ean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak emandako Aginduaren bidez onartu zirenez geroztik orain artean indarrean egon diren babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak indargabetu dira.

edificios, incluidas sus instalaciones para satisfacer los requisitos básicos de seguridad y habitabilidad.

Otras normas aprobadas en este periodo y que afectan al sector de la edificaciones e instalaciones han sido Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión, el Real Decreto 1027/2007 por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios y la Resolución de 27 de abril de 2006, del Director de Industria, Energía y Minas, por la que se dictan instrucciones para la aplicación de la Instrucción Técnica ITC-BT-29 del Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión, en lo que afecta a la seguridad eléctrica y ventilación de los garajes.

Todo ello hace necesaria una modificación en la regulación establecida de las condiciones de diseño de las viviendas de protección oficial.

No obstante, se mantienen las regulaciones de la Orden 30 de diciembre de 2002 vinculadas a la reseña de una evolución respecto la concepción de la vivienda que hoy día existe, así como el ánimo de incluir ciertas realidades sociales que habían quedado excluidas por la regulación de estas Ordenanzas.

Por lo hasta aquí expuesto y, en uso de la competencia exclusiva en materia de vivienda, reconocida en el artículo 10.31 del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales,

DISPONGO:

***Artículo único***.– Aprobar las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial, que figuran en el anexo a esta orden. Siendo de aplicación a los proyectos de viviendas de protección oficial cuya calificación provisional se solicite con posterioridad a su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes, que con anterioridad a la entrada en vigor de la presente orden, en los cuales se haya presentado la solicitud y/o obtenido la calificación provisional; así como, los expedientes que hayan sido registrados en el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, se regirán, a todos los efectos por la normativa anterior.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial, vigentes hasta fecha actual, aprobadas por Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

AZKEN XEDAPENA

EHAAn argitaratzen den egunetik hiru hilabetera hasiko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 12a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPOSICIÓN FINAL

La Presente orden entrará en vigor a los tres meses de su publicación el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de febrero de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

I. ERANSKINA

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN DISEINURAKO ORDENANTZAK

1.– Proiektuak aurkeztea.

Babes ofizialeko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eskatzeko proiektuek honako dokumentu hauek bilduko dituzte gutxienez:

1.1.– Memoria.

– Eraikuntzaren Kode Teknikoaren I. zatiaren «proiektu-edukia» izeneko I. eranskinean, oinarrizko proiektuaren gutxieneko edukiari buruzkoan, zehaztutako dokumentazioa.

– Erabilera Segurtasuna justifikatzea.

– Osasungarritasuna justifikatzea.

– Zarataren aurkako babesa justifikatzea.

– Energia-aurreztea justifikatzea.

– Eraikinen irisgarritasunerako eta hirigintza-oztopoak kentzeko gutxieneko neurriak justifikatzea.

– Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak.

– Azalera-koadroak, II. eranskin gisa jasotako ereduaren arabera.

– Kalitateen memoria-koadroa, III. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

1.2.– Aurrekontua.

– Proiektatutako obraren egikaritzearen gutxi gorabeherako balioespena, kapituluka, obren Segurtasuna eta Osasuna, Kalitate Kontrola eta Hondakinen Kudeaketa barne.

– Urbanizazio-aurrekontua, aparteko kapitulu batean xehatua.

– Proiektua idazteko eta obrak zuzendu eta ikuskatzeko ordainsariak.

– Egikaritze materialaren kontzeptua eta gastu orokorren eta etekin industrialaren kontzeptuak bereizita jasoko dira.

1.3.– Planoak.

– Kokapen-planoa.

– Indarreko Plangintzari dagokion kokaleku-planoa. Honako hauek edukiko ditu:

* Egikaritu beharreko partzela eta urbanizazioa mugatzea.

– Urbanizazio eta antolamendu orokorreko planoak. Honako hauek bilduko dituzte:

* Zerbitzu orokor eta harguneen eskemak.

* Kota eta sestrak zehaztea.

ANEXO I.

ORDENANZAS DE DISEÑO DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL

1.– Presentación de proyectos.

Los proyectos destinados a la solicitud de calificación provisional de viviendas de protección oficial contendrán la siguiente documentación mínima:

1.1.– Memoria.

– Documentación especificada en el anejo I «contenido de proyecto» de la parte I del CTE relativo al contenido mínimo del proyecto básico.

– Justificación de seguridad de utilización.

– Justificación de salubridad.

– Justificación de protección contra el ruido.

– Justificación de ahorro de energía.

– Justificación de medidas mínimas de accesibilidad en los edificios y eliminación de barreras urbanísticas.

– Ordenanzas de diseño de viviendas de protección oficial.

– Cuadros de superficies de acuerdo con el modelo que se recoge como anexo II.

– Cuadro de memoria de calidades de acuerdo con el modelo que se recoge como anexo III.

1.2.– Presupuesto.

– Valoración aproximada de la ejecución material de la obra proyectada por capítulos, incluyendo Seguridad y Salud en las obras, Control de Calidad y Gestión de Residuos.

– Presupuesto de urbanización desglosado en capítulo independiente.

– Honorarios de redacción de proyecto, dirección e inspección de obras.

– Se incluirán separadamente Ejecución Material, de los conceptos Gastos Generales y Beneficio Industrial.

1.3.– Planos.

– Plano de situación.

– Plano de emplazamiento referido al planeamiento vigente. Incluirá:

* Delimitación de la parcela y urbanización a ejecutar.

– Planos de urbanización y ordenación general. Incluirán:

* Esquemas de servicios generales y acometidas.

* Definición de cotas y rasantes.

– Altzariz hornitutako banaketa-oinak. Gutxieneko eskala: 1/100 orokorretan eta 1/50 etxebizitza tipoetan.

– Sukaldeko altzarien planoa, hondakinak gaika biltegiratu beharra kontuan hartuta, baita etxetresna elektrikoen, ke eta gasen hustubideen eta bestelako instalazioen kokapena ere. Gutxieneko eskala: 1/20.

– Oin akotatuak. Gutxieneko eskala: 1/100 orokorretan eta 1/50 etxebizitza tipoetan. Honako hauek bilduko dituzte:

* Etxebizitzen gela guztien azalera erabilgarriak, baita trasteleku, garaje eta lokalenak ere.

* Atari, etxebizitza, trasteleku, garaje eta lokalen identifikazioa.

* Garaje-plazen akotazioa.

– Estalkien oina. Honako hauek bilduko dituzte:

* Maldak, uren bilgunea, estaltzeko materiala eta abar.

– Altxaera orokorrak. Gutxieneko eskala: 1/100.

– Sekzio orokorrak akotatuak. Gutxieneko eskala: 1/100.

Oinen garaiera-kotak, forjatu-lodierak eta guztizko garaierak bilduko dituzte, hirigintza-betekizunak eta betekizun funtzionalak betetzen direla egiaztatzeko.

– Fatxadako eraikuntza-sekzioa, materialak eta/edo eraikuntza-sistema zehaztuta. Gutxieneko eskala: 1/20.

2.– Azalera erabilgarrien zenbaketa.

Azalera erabilgarritzat jotzen da etxebizitzaren, trastelekuaren, garajearen edo lokalaren zorukoa, kanpoarekiko edo edozein erabilerarako beste lokal batzuekiko itxituren barnealdeak zehaztutako perimetroak mugatzen duena.

Azalera erabilgarriaren zenbaketatik kanpo dago etxebizitzaren barneko itxitura finko zein mugikorrek oinean hartzen duten azalera, baita egiturazko elementu bertikalek eta 100 $cm^2$-tik gorako proiekzio horizontala duten kanalizazio edo hodi bertikalek eta 1,50 metrotik beherako garaiera librea duen zoru-azalerak hartzen duena ere.

Etxebizitza edo lokalak berdinak badira eta zutabe bertikalean antolatuta badaude eraikin berean, egiturazko elementu bertikalek eta 100 $cm^2$-tik gorako proiekzio horizontala duten kanalizazio edo hodi bertikalek oinean okupatutako azalerak zenbatzeko, zutabearen beheko eta goiko oinetan dauden etxebizitzei dagozkien balioen batez besteko aritmetikoa hartuko da aintzat.

2.1.– etxebizitzak.

Etxebizitzaren azalera erabilgarriak etxebizitzaren erabilera pribatuko kanpo-eremuen —terrazak, ese-

– Plantas de distribución amuebladas. Escala mínima 1/100 generales y 1/50 viviendas tipo.

– Plano de mobiliario de la cocina, teniendo en cuenta el almacenamiento selectivo de residuos, así como la ubicación de los electrodomésticos, los conductos de evacuación de humos y gases y otras instalaciones. Escala mínima 1/20.

– Plantas acotadas. Escala mínima 1/100 generales y 1/50 viviendas tipo. Incluirán:

* Superficies útiles de todas las piezas de las viviendas, así como las de trasteros, garajes y locales.

* Identificación de portales, viviendas, trasteros, garajes y locales.

* Acotación de las plazas de garaje.

– Planta de cubiertas. Incluirán:

* Pendientes, punto de recogida de aguas, material de cubrición, etc.

– Alzados generales. Escala mínima 1/100.

– Secciones generales acotadas. Escala mínima 1/100.

Incluirán cotas de altura de plantas, gruesos de forjado, alturas totales para comprobar el cumplimiento de los requisitos urbanísticos y funcionales.

– Sección constructiva de fachada con especificación de materiales y/o sistema constructivo. Escala mínima 1/20.

2.– Cómputo de superficies útiles.

Se entiende por superficie útil la del suelo de la vivienda, trastero, garaje o local delimitada por el perímetro definido por la cara interior de sus cerramientos con el exterior o con otros locales de distinto uso.

Del cómputo de superficie útil queda excluida la superficie ocupada en la planta por los cerramientos interiores de la vivienda, fijos o móviles, por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos verticales cuya proyección horizontal sea superior a 100 $cm^2$, así como la superficie de suelo en la que la altura libre sea inferior a 1,50 m.

Cuando se trate de viviendas o locales iguales y dispuestos en columna vertical dentro de un mismo edificio, para el cómputo de las superficies ocupadas en planta por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos verticales cuya proyección horizontal sea superior a 100 $cm^2$, se tomará la media aritmética de los valores correspondientes a las viviendas situadas en plantas inferior y superior de la columna.

2.1.– de viviendas.

La superficie útil de la vivienda incluirá también la mitad de la superficie de suelo de los espacios exteriores

kitokiak eta abar— zoru-azaleraren erdia ere bilduko du. Etxebizitzaren erabilera pribatuko kanpo-eremu horietako azalera erabilgarri zenbakarrien baturak ezin izango du azalera erabilgarri itxiaren % 10 gainditu.

Hirigintza-baldintzak direla medio, eraikuntza-profilak beharrezko egiten badu atiko-oinak eraikitzea edo sakonera eraikigarri handiagoa duten beste oin batzuen gainean beste oin batzuk eraikitzea, kanpo-eremu horien azalera erabilgarria zenbatzerakoan, etxebizitzaren azalera erabilgarri itxiaren % 10 zenbatuko da gehienez, 5.1. artikuluan ezarritako gehienezko azalera erabilgarria osatu arte.

Familia bakarreko etxebizitzetan, elementu eraikiak ez diren erabilera pribatuko kanpo-eremuak ez dira zenbatuko etxebizitzaren azalera erabilgarri gisa.

2.2.– trastelekuak.

Trasteleku bakoitzaren gehienezko azalera erabilgarri zenbakarria 13,50 $m^2$ izango da etxebizitza bakoitzeko, etxebizitzaren azalerarekin lotu beharrik gabe.

2.3.– aparkalekuak.

Garaje-plaza bakoitzaren azalera erabilgarria kalkulatzeko, garaje-plaza hori zehazten duen perimetroaren barneko azalerari barneko gurpilbide eta sarbide-arrapaletatik dagokion zati proportzionala batuko zaio, gehienez 30 $m^2$ zenbatu daitezkeela kontuan hartuta.

3.– Hirigintza-ezarpenari eskatu beharreko baldintzak.

Kalifika daitekeen eraikuntza-unitate oro indarreko hirigintza-araudira egokitu behar da, eta hiri-zerbitzuen funtsezko hornidura eduki behar du, edo, hala badagokio, horretarako obrak egin daitezen baimendu.

4.– Eraikinari eskatu beharreko baldintzak.

4.1.– Eraikinak eta instalazioak.

4.1.a.– Printzipio Orokorrak.

Eraikin babestu orok eraikuntza egokiko printzipioetara egokitu behar du, baita indarreko eraikuntza-araudi aplikagarrira eta ahalik eta mantentze merkeenera egokitu ere.

4.1.b.– Instalazioen hodiak.

Instalazioen hodi orokorrak irisgarriak izango dira eremu komunetatik, eta eraikinaren solairu bakoitzean erregistratzeko modukoak.

4.2.– osasungarritasuna.

4.2.a.– Sarbideak.

Atariak etxebizitzetarako eta etxebizitzen erantsietarako bide emango du bakarrik, baita, hala badagokio, bestelako ekipamendu sozialetarako bide ere. Eraikinean etxebizitzei lotu gabeko plazak dituzten garajeak badaude, oinezkoentzako aparteko sarbide bat gaituko da kanpoaldetik.

de uso privativo de la misma tales como terrazas, tendederos y otros. La suma de las superficies útiles computables de estos espacios exteriores de uso privativo de la vivienda, no podrá superar el 10% de la superficie útil cerrada.

Cuando por condicionantes urbanísticos, el perfil edificatorio obligue a plantas de ático o plantas situadas sobre otras plantas de mayor fondo edificable, la superficie útil de dichos espacios exteriores se computará hasta un máximo de un 10% de la superficie útil cerrada de la vivienda, hasta completar la superficie útil máxima establecida en el art. 5.1.

En las viviendas unifamiliares, los espacios exteriores de uso privativo que no sean elementos construidos, no computarán como superficie útil de la vivienda.

2.2.– de trasteros.

La máxima superficie útil computable de trastero por cada vivienda será de 13,50 $m^2$, sin necesidad de relacionarla con la superficie de la vivienda.

2.3.– de aparcamientos.

La superficie útil de cada plaza de garaje será la suma de la comprendida dentro del perímetro que define la misma más la parte proporcional que le corresponda de carriles de rodadura y rampas de acceso interiores, hasta un máximo computable de 30 $m^2$.

3.– Condiciones exigibles a la implantación urbanística.

Toda unidad edificatoria susceptible de ser calificable deberá encontrarse acomodada a la normativa urbanística vigente y tener resuelta la dotación fundamental de servicios urbanos, o en su caso permitir la realización de las obras conducentes a tal fin.

4.– Condiciones exigibles al edificio.

4.1.– Constructivas y de instalaciones.

4.1.a.– Principios Generales.

Todo edificio protegido deberá poseer adecuación a los principios de buena construcción, a la normativa constructiva vigente y aplicable y a un mantenimiento con el menos coste posible.

4.1.b.– Conductos de Instalaciones.

Los conductos generales de las instalaciones, serán accesibles y registrables en cada planta del edificio desde las zonas comunes.

4.2.– de salubridad.

4.2.a.– Accesos.

El portal sólo dará acceso a las viviendas, a los anejos de las mismas así como, en su caso, a otros equipamientos sociales. Siempre que existan en el edificio garajes con plazas no vinculadas a las viviendas, se habilitará un acceso peatonal independiente desde el exterior.

Estalkirako sarbidea ezarriko da, mantentzea errazteko, erabilera komuneko eremu batetik abiatuta eta giltza bidez ixteko sistemaz hornitua. Pertsona bat sartzeko moduko neurriak eduki beharko ditu, eta mantentze-lanetarako tresna eta material egokiez hornituko da. Gutxienez, eskala finko ezkutagarri batez edo konponbide baliokide batez hornituko da.

4.2.b.– Perimetroan itxitako patioak.

1) Neurriak: beheko taularen arabera patioan inskribatu behar den zirkuluaren diametroak zehaztuko ditu, batetik, patioaren bidez argiztatu eta aireztatuko diren lokalen erabileraren arabera, eta, bestetik, lokal horien zorutik patioaren goiko ertzera dagoen garaieraren (H) arabera.

El acceso a la cubierta para su mantenimiento se dispondrá desde una zona de uso común, con sistema de cierre con llave. Deberá tener las dimensiones suficientes para el acceso de una persona, herramientas y materiales para realizar el mantenimiento. Como mínimo será mediante una escala fija, escamoteable o solución equivalente.

4.2.b.– Patios cerrados en su perímetro.

1) Dimensiones: Estarán definidas por el diámetro del círculo inscrito exigible de acuerdo a la siguiente tabla, en función del uso de los locales que resuelvan su iluminación y ventilación a través del patio y de la altura (H) existente entre el suelo de dichos locales y la coronación del patio:

| Lokalaren erabil. edo etxebiz.mota | Diámetro del círculo inscrito en el patio |
|---|---|
| Aparteko patioa duten familia bakarreko etxeb. | Ø ≥ 3 m |
| Gorakako etxeb. edo patio partek. dutenak: | |
| – Egongela-jangela | Ø ≥ H ≥ 3m |
| – Logela eta sukaldea | Ø ≥ 1/3 H ≥ 3 m |
| – Bainug. eta esekit. | Ø ≥ 3/20 H ≥ 3 m |
| Eskailerak | Ø ≥ 3/20 H ≥ 2 m |

| *Uso del local o tipo de vivienda* | *Diámetro del círculo inscrito en el patio* |
|---|---|
| *Viviendas unifamiliares con patio independiente* | *Ø ≥ 3 m* |
| *Viviendas en altura o con patio compartido:* | |
| *– Sala comedor, estar* | *Ø ≥ H ≥ 3m* |
| *– Dormitorio y cocina* | *Ø ≥ 1/3 H ≥ 3 m* |
| *– Aseos y tendedero* | *Ø ≥ 3/20 H ≥ 3 m* |
| *Escaleras* | *Ø ≥ 3/20 H ≥ 2 m* |

2) Estaldura: patioak estali ahal izango dira beren etengabeko argiztapena eta aireztapena ziurtatzen baldin bada. Aireztapena bermatzeko, aireztapen-irekiguneak ezarriko dira, behar adina eremu eraginkor edukitzeko moduan, aireztapen-emarien bitartez aireztatzen diren lokaletarako eskatutako gutxieneko aireztapen-emarien arabera, gutxienekoak patioaren azaleraren ehuneko hamarretik (% 10) gorakoa behar duela kontuan hartuta. Patioak argiztatzen dituzten egiturarik gabeko argizuloen elementu gardenen azalera, proiekzio horizontalean, patio horretarako arautako gutxieneko azaleraren % 100 izango da gutxienez, eta betiere patio horren azaleraren 2/3 baino handiagoa.

Patioaren barneko zorua hustubide batez hornituko da.

2) Cubrimiento: Los patios podrán cubrirse, siempre que se asegure su iluminación y ventilación continua. Esta última se garantizará mediante aberturas de ventilación que cumplan el sumatorio de áreas efectivas en función de los caudales de ventilación mínimos exigidos de locales que ventilen a través de los mismos, siendo como mínimo superior al diez por ciento (10%) de la superficie del patio. La superficie en proyección horizontal de los elementos transparentes de los lucernarios, libres de estructura, que iluminan los patios será como mínimo del 100% de la superficie mínima reglamentada para dicho patio y siempre superior a 2/3 de su superficie.

El suelo interior del patio estará dotado de sumidero.

4.2.c.– Patio irekiak - Atzeraemanguneak.

Fatxadara irekitako patioek honako baldintza hauek beteko dituzte:

– Fronte irekiaren luzera ez da garaieraren 1/6 baino txikiagoa izango, eta gutxienez 3 m izango da, baldin eta atzeraemangunearen sakonera 1,50-3,00 metro baldin bada.

– Fronte irekiaren luzera ez da garaieraren 1/6 baino txikiagoa izango., eta, nolanahi ere, sakoneraren berdina edo handiagoa izango da, sakonera hori 3 m edo handiagoa bada.

Atzeraemanguneak ez dira fatxadara irekitako patiotzat hartuko baldin eta haien sakonera, normalean fatxadaren planoarekiko neurtuta, 1,50 m baino gutxiago bada, betiere alboetako planoetan baorik irekitzen ez badute. Patioaren garaiera, patiora aireztatzen duten behereneko etxebizitzen mailatik fabrika-hormaren goiko ertzeraino neurtuko da.

4.3.– Zirkulazioak eremu komunetan.

4.3.a– Diseinua.

1) Zirkulazioak araudi espezifikoan ezarritako gutxieneko ebakuazio-baldintzak bermatuko ditu eraikuntzaren eremu komunetan (eskailerak, eskaileraburuak eta ataria), eta eraikinaren etxebizitza eta elementu guztietan zuzenean sartzea ahalbidetuko du.

2) Zirkulazio-eremu guztietako pasagune librearen zabalerak indarreko irisgarritasun-arau teknikoetan araututakoa beteko du.

3) Eraikinean sartzeko atearen ondoko barne-eremuan atari bat egongo da, eta bertako zoruaren planoan 2 metroko diametroko zirkulua inskribatzeko aukera izango da.

4) Eraikinaren barnealdeko zirkulazio-pasaguneen zabalerak eta antolamenduak berrehun bider hirurogeita hamar zentimetroko (200 x 70 cm) angeluzuzena horizontalean pasatzea ahalbidetuko dute.

5) Garaiera librea 2,40 metro izango da gutxienez, eta 20 cm murriztu ahal izango da pasagune estuetan.

4.3.b.– Argiztapena eta aireztapena.

1) Eraikinaren eskailera komun guztiek eguneko argiztapen naturala edukiko dute, zenitala edo fatxada edo patioen bitartekoa, baita argiztapen artifizial osagarria ere.

2) Solairu bakoitzeko argiztapen-baoaren gutxieneko azalera 1,00 $m^2$ izango da, eta aireztatzeko azalera argiztapen-azaleraren 1/3 izan daiteke.

3) Argiztapena zenitala bada, eskailera-begiak 0,08 H-ko diametroko (gutxienez) zirkulua inskribatzeko aukera emango du, H eskaileraren abiotik argizuloaren batez besteko garaierara arteko garaiera dela aintzat hartuta, eta aireztapena bermatzeko zenbait irekigune ezarriko dira, bakoitzaren azalerak gutxienez argizuloaren azaleraren % 10 edo esparruaren azaleraren 1/20 behar duela aintzat hartuta.

4.2.c.– Patios abiertos - Retranqueos.

Los patios abiertos a fachada cumplirán las siguientes condiciones:

– La longitud del frente abierto no será inferior a 1/6 de la altura, con un mínimo de 3 m cuando la profundidad del retranqueo este comprendida entre 1,50 y 3,00 m.

– La longitud del frente abierto no será inferior a 1/6 de la altura, y en cualquier caso igual o mayor que la profundidad cuando esta sea mayor o igual que 3 m.

No tendrán la consideración de patio abierto a fachada aquellos retranqueos cuya profundidad, medida normalmente al plano de fachada, sea inferior a 1,50 m y siempre que en los planos laterales no abran huecos. La altura del patio se medirá desde el nivel del piso de las viviendas más bajas cuyas piezas ventilen a él, hasta la línea de coronación de la fábrica.

4.3.– Circulaciones en zonas comunes.

4.3.a.– Diseño.

1) La circulación por las zonas comunes de la edificación (escaleras, rellanos y portal) garantizará las condiciones mínimas de evacuación establecidas en su normativa específica y permitirán el acceso directo a la totalidad de viviendas y elementos comunes de la edificación.

2) La anchura de paso libre en todas las zonas de circulación cumplirá lo reglamentado en las normas técnicas de accesibilidad en vigor.

3) En el espacio interior inmediato a la puerta de acceso al edificio, habrá un portal, en el cual se podrá inscribir en el plano del suelo un círculo de 2 m de diámetro.

4) La anchura y disposición de los pasos de circulación en el interior del edificio permitirán el paso horizontal de un rectángulo de doscientos por setenta centímetros (200 x 70 cm).

5) La altura libre será como mínimo de 2,40 m. que podrán reducirse en 20 cm. en los pasos críticos.

4.3.b.– Iluminación y Ventilación.

1) Toda escalera común de la edificación contará con iluminación natural diurna, bien sea cenital o a través de fachadas o patios, y artificial complementaria.

2) La superficie mínima del hueco de iluminación en cada planta será de 1,00 $m^2$, pudiendo reducirse la destinada a ventilación a 1/3 de la misma.

3) En los casos en que la iluminación sea cenital, el ojo de la escalera permitirá la inscripción de un círculo de diámetro mínimo 0,08 H, siendo H la altura desde el arranque de la escalera hasta la altura media del lucero; garantizándose la ventilación mediante aberturas con una superficie mínima igual al 10% de la superficie del lucero 0 1/20 de la superficie del recinto.

4) Eskailera argiztatzen eta aireztatzen duten argizuloen azalera, proiekzio horizontalean, eskailera-kaxaren azaleraren bi heren izango da gutxienez.

5) Aireztapena zenitala bada, barandek edo karelek, hala badagokio, zati opakua mugatuko dute 40 cm-ko garaieran, mailagainaren kanpo-ertzaren bertikalean neurtuta.

5.– Etxebizitzei eskatu beharreko baldintzak.

5.1.– Osaera eta programa.

Etxebizitzak honako gela hauek izango ditu gutxienez: egoteko, jateko eta kozinatzeko gela bat, logela bat, bainugela bat eta esekitoki bat.

Hiru edo lau logelatako etxebizitzetan gutxienez bi bainugela egongo dira, bata osoa, eta bestea bigarren mailakoa.

Bainugela osoak honako hauek edukiko ditu: konketa, komunontzia eta bainuontzia (gutxieneko luzera: 1,40 m) edo dutxa (gutxieneko neurriak: 0,80 x 0,80 m). Nolanahi ere, dutxa bat ezartzeko erabakia hartzen bada, bainuontzi bat jarri ahal izateko tokia utziko da, paragrafo honetan adierazitako gutxieneko neurriak eduki behar dituela kontuan hartuta; bainuontzi horren azalera dutxaren azalerari gainjar dakioke, eta artikulu honen 4. zenbakian zehaztutako erabilera erabilgarriko eremuaz ere horni daiteke. Bigarren bainuontziak konketa, komunontzia eta dutxa izango ditu. Familia ugarientzako edo 5 kide edo gehiago dituzten bizikidetza-unitateetan, bainugeletako batek gutxienez bete beharko ditu baldintza horiek.

Etxebizitza guztiek kanpoalderako arropa-esekitoki baterako zuzeneko sarbidea edukiko dute. Arropa fatxadan esekitzen bada, kaletiko bistak babestu egin beharko dira. Esekitokiaren neurriek aukera emango dute 5 m-ko edo hortik gorako esekitze-lerroa ezartzeko.

Etxebizitza mota bakoitzaren gehienezko azalera erabilgarri zenbakarria honako hau izango da, logela kopuruaren arabera:

| Logela kopurua: | Gehienezko azalera erabilgarria ($m^2$): |
|---|---|
| Logela bat | 60 |
| Bi logela | 70 |
| Hiru logela | 90 |
